2018-04-27 EGUBAKOITZA / 769. ZENBAKIA / 18. URTEA
**DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA** GOIENA.EUS

# goiena

Zu hemen zaude.




# M-1

## LANGILEEN EGUN ATOMIZATUA, NORK BERE ESTRATEGIARI EUTSIZ

MAIATZAREN LEHENAZ, LANEKO ALDARRIKAPENEZ ETA SINDIKALISMOAREN ORAINAZ ETA GEROAZ DIHARDUTE SINDIKATUEK / 2

IB




+

Oztopo Trialsin Taldea, salto egiteko gertu

"Errespetua" eskatzen dute ehiztariek

**SINADURAK**

IGOR ARIZMENDIARRIETA / **8**
AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ / **30**
ANDONI ELEJALDE / **24**
AITOR UGALDE / **35**
PEDRO GARITANO / **27**
AGURNE BARRUSO / **48**



# Maiatzaren Lehena: aldarriz beteko da kalea

Urtero legez, ekintza ugari deitu dituzte sindikatuek Maiatzaren Lehenerako; Euskal Herriko hiriburu eta herri askotan finkatu dituzte hitzorduak. Nork berea aldarri, argi dituzte errebindikazioak. Eta "aldatu beharreko asko" dagoela diote













Sindikatuek Maiatzaren Lehenerako ateratako kartelak. GOIENA

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Iristear da Maiatzaren Lehena. Eta sindikatuek finkatuak dituzte Langileen Nazioarteko Egunerako hitzorduak. Nork berea aldarrikatuz, Euskal Herriko txoko ezberdinetan egingo dituzte ekimenak. Hori bai, irakurketak irakurketa, sindikatu guztiek diote oraindik "aldatu beharreko asko" dagoela. Eta, hori horrela, "funtsezko" egun dute Maiatzaren Lehena. "Klase kontzientzia berreskuratu, borrokaren balioa aldarrikatu eta elkartasuna lantzeko eguna da", azaldu du Alaia Basetak, LAB sindikatuko kideak. "Kontuan izan behar dugu langileriaren ospakizun egun ere badugula. Jendea harro dagoela gizarte klase horren parte izateaz", gaineratu du Iñaki Tempranok, CCOOko kideak.

Hori bai, sindikatuak jakitun dira langileen protestek jasandako bilakaeraz. Eta gizarte aldaketekin lotzen dute hori. "Orain, aldatua dago langileon nortasuna –lan mota berriak, langabezia...–. Ondorioz, aldarri orokorragoak ere baditugu gaur egun. Gizarte ereduaren beraren alde ere badihardugu, esaterako", onartu du Felix Irizarrek, ESK-ko kideak.

### Sindikatuen indarra

Bestetik, sindikatuek indarra galdua duten ustea dago hedatuta gizartean. Baina, oro har, "baikor" dira langile ordezkariak. "Indartsu darraigu, duela 40 urte moduan ez ikusarazi arren. Finean, gaur egun, dibertsifikatuago dago klasea. Baina enpresei edota agintariei presio egiteko gaitasun handia izaten segitzen dugu", onartu du CCOOko ordezkariak.

"Asko kritikatzen gaituzte patronalak eta euskal gobernuek –EAE eta Nafarroa–; interes kontrajarriak ditugu sarri. Gauzak ongi egiten ari garen seinale dira halakoak. Ezin dugu ahaztu langile klasearen bizi baldintzak hobetzeko jaio garela", dio Amagoia Lasagabasterrek, ELAko kideak.

### Nork bere bidean

Hori bai, oro har, nork bere bidean dihardu, bere ikuspegiarekin. "Elkarrizketa sozialaren sindikalismoa hondoratzen ari da, kontrabotere izateari utzi ziolako aspaldi; kapitalak amortizatua du hori. Sindikalismo eraldatzaileak, aldiz, kontraboterea izateko bokazioari eutsi dio", esan du LABeko ordezkariak. "Konfrontazioaren ordez euren pribilegioak mantentzen saiatu direnek min handia egin diote sindikalgintzari", gaineratu du ESK-ko ordezkariak. Eta, horren kontra, uste dute goraka doazela "klaseko sindikatuen indarra eta zilegitasuna": "Gero eta indartsuagoak, jendetsuagoak, dira gure deialdiak".

### Belaunaldi berriak

Dena den, gizarteak zalantzan jarria du sindikatuen etorkizuna, belaunaldi aldaketarako arazoak izango direlakoan. Baina, orokorrean, langile ordezkariek ez dute horrela ikusten. "Lan munduan sartzean, gazteek ikusten dute urte ugari pasa beharko direla euren ametsak errealitate bihur daitezen; esfortzua eta ikasketak eskatzen dizkiegula, gero, 800 eta 1.000 euroko nomina izateko. Hala, badakite antolatu eta borrokatu ezean, ez dutela etxebizitzarik, familiarik... izango", azaldu du ELAko ordezkariak.

Hori bai, LABek badaki azken urteetako zenbait gertakarik sindikatuekiko "afekzioa kaltetu" dutela; berdin, gazteen kasuan. "Sektore batzuek ez gaituzte tresna eraginkor bezala ikusten. Eta, kasu batzuetan, orokortua dago sindikatuak sistema ustel honen parte garen ustea", aitortu du.

### Protestak

Esan moduan, sindikatuek hitzordu ezberdinak finkatu dituzte Maiatzaren 1erako; Euskal Herriko hiriburu eta herri ezberdinetan izango da horiekin bat egiteko aukera. Hain zuzen ere, Bilbon –11:45, Jesusen Bihotzean– eta Iruñean –12:00etan, Gurutze plazan– izango da ELA. *Pobreziari gerra! Soberan inor ez* leloa aukeratu dute egun horretarako."Aukera bikaina izango da feminismoak –Martxoak 8– eta pentsiodunek kalera eroan duten errebindikazio oldea indartzeko", dio sindikatuak.

Horrez aparte, hainbat hitzordu finkatu ditu LABek. Horien artean da Eibarkoa. Zehatz esanda, Untzaga plazan hasita, manifestazioa egingo dute 12:00etan. Eta, ekitaldiaren ostean, herri bazkaria eta Biren musika taldearen kontzertua antolatu dituzte egunari bukaera emateko. *Lan, bizi, herri duina* leloa aukeratu dute aurten. "Lan, bizi eta herri duinak helburu, herri honetan dagoen eraldaketa sozialerako grina gauzatzeko mobilizazio soziala indartzea litzateke erronka nagusia", argitu du LAB sindikatuak.

Eta ESK-k ere egina du deialdirik Maiatzaren Lehenerako. Haiek, 10:30erako finkatu dute lehen hitzordua: Errenteriatik Donostiarako ibilbidea egingo dute, zenbait sindikaturekin eta gizarte eragilerekin batera. Ostean, 12:30ean, manifestazioa egingo dute Bulebarrean hasita. *Kriptonita da bide bakarra. Todas y todos tenemos superpoder* leloa aukeratu dute mobilizazioak iragartzeko. "Jakin badakigu mobilizazio garrantzitsua dela gura dugun gizarte eredua lortzeko. Beraz, herritarren parte hartzea eskatzen dugu", diote ESK sindikatuko ordezkariek.

Eta, bukatzeko, deialdi bateratua egin dute CCOO eta UGT sindikatuek; EAEko hiriburuetan izango dira. Hain zuzen ere, 11:30erako finkatu dute Bilboko hitzordua –Jesusen Bihotzean hasiko dute manifestazioa–; eta Gasteizen –Andre Maria Zuriaren plaza– eta Donostian –Alderdi Eder–, 12:00etan hasiko dituzte protestak. *Es tiempo de ganar. Reclama tus derechos* leloa aukeratu dute aurten. "Gaur egun langileen aurka gertatzen diren bidegabekeriengatik protesta egiteko, krisian zehar suntsitutako eskubideak aldarrikatzeko eta lan baldintzetan hobekuntzak exijitzeko eguna izango da Maiatzaren 1ekoa", esan du CCOO sindikatuak. "Asko dira egun horretarako helburuak. Baina, batez ere, esan daiteke botereek entzun gaitzaten tresna garrantzitsu dela", gaineratu du UGTk. Are gehiago, Maiatzaren Lehenak "aldarriz eta borrokaz beteriko zaplaztekoa" izan behar luke haren ustez. "Soldatak, lanpostu duina, pentsioak eta berdintasuna modukoak berreskuratu behar ditugu", aldarrikatu du Maite Alistek, UGT sindikatuko kideak.

**MAIATZAREN LEHENAREN ATARIAN, "ALDATU BEHARREKO ASKO" DAGOELA DIOTE SINDIKATUEK**

**EUSKAL HERRIKO HAINBAT HIRIBURU ETA HERRITAN EGINGO DITUZTE EGUNEKO EKITALDIAK**

# Oraingoak eta aurrera begirakoak



**AMAGOIA LASAGABASTER**
ELA

**"Aberastasuna egon badago, gero eta esku gutxiagotan"**

"Baliteke krisia atzean utzi izana, baina jendartea ez dago pozik. Ikusi besterik ez dago herrietako kaleak nola betetzen diren protesta egiteko. Aukera bikaina dugu Maiatzaren Lehen honetan feminismoak –Martxoak 8– eta pentsiodunek kalera eroandako aldarri oldea indartzeko. Mundua atzerakada neoliberal eta kontserbadore batean murgildu da –hor dago Euskal Herria ere–. Aberastasuna egon badago, baina gero eta esku gutxiagotan. Emakumeak, immigranteak, langile prekarioak... Horiek guztiak ditugu gogoan".



**ALAIA BASETA**
LAB

**"Burujabetza ezinbesteko zaigu aldaketa sozialerako"**

"Lan eta bizitza duina bermatu behar diogu herritar orori. Horrek izan behar luke herri baten eredu ekonomiko eta sozialaren helburu nagusi; baina Ibex-35-ek eliteen mesedetan agintzen du beti; eta prekarietatea zabaltzen jarraitzen du kapitalak. Hazkunde ekonomikoaren fasean, elite ekonomiko eta sozialek miseriara kondenatu dute gehiengo soziala –euren aberastasunerako–. Hala, aldaketa sozialerako ezinbesteko zaigu burujabetza. Lan harreman eta babes sozialeko euskal esparrua eraiki beharra dugu, ezkerretik eta feminismotik".



**FELIX IRIZAR**
ESK

**"Indarrak bateratu behar ditugu eredua aldatzeko"**

"2018a historikoa izango da, martxoan izandako bi mobilizazio erraldoiengatik: greba feminista –Martxoaren 8an– eta pentsiodunek martxoaren 17rako deitu zituzten mobilizazioak. Horiek biak eredugarriak izan dira Euskal Herrian. Hori horrela, herriaren borrokak plazaratzeaz aparte, horiek herriaren izaeran barneratzeko balio behar luke Maiatzaren Lehenak; bide berean jarri behar lukete klase sindikatuak eta gizarte mugimenduak. Ezinbesteko dugu indarrak bateratzea, eredu sozial berri eta justuagoa lortzeko".



**IÑAKI TEMPRANO**
CCOO

**"Politika ekonomiko okerra da nagusi"**

"Geldi dago lan baldintzen auzia. Eta lanpostu prekarioak gehiengo dira kontratazioetan. Finean, politika ekonomiko okerra da nagusi, EDESArekin edo elkarrizketa sozialerako mahaiaren deuseztapenarekin ikusten den bezala. Era berean, kezkatzekoa da langileriaren txirotzea eragiten duten sektoreetako lan-hitzarmenen blokeoa. Hori horrela, CCOOk prekarietatea deuseztatzea, sektoreetako lan-hitzarmenen alde egitea eta borroka feminista bera ditu lehentasun. Horiek lortzeko segituko dugu lanean".



**MAITE ALISTE**
UGT

**"Lan erreforma indargabetu beharra dago"**

"Negoziaketa kolektiboa zurrun dago uneotan, lan erreformaren atzeranzko neurriek eta patronalen jarrerak eraginda; azken horiek ez dute gura hazkunde ekonomikoaren eragin positiboak langileongana heltzea –eros ahalmena berreskuratzea galarazten du horrek–. Hori horrela, indargabetu beharra dugu soldaten murriztea eta lanaren prekarizazioa ekarri dituen lan erreforma. Finean, prekarietateari esker jaitsi da langabezia. Eta pobrezia kroniko bihurtzen duten neurrien kontra egin beharra dugu, beraz".

DEBAGOIENEKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA
"GUZTION ESKOLA, GUZTION ARTEAN"




MAIATZAREN 2tik 14ra

605 77 39 92 goieskola@gmail.com
goieskola
baikara

BATXILERGOAK

Arrasate
Arrasate Institutua
* Zientziak
* Giza eta Gizarte Zientziak
* Arte Batxilergoa
Ate irekiak
Maiatzaren 3an, 18:00etan

Bergara
Ipintza Institutua
* Zientziak
* Giza eta Gizarte Zientziak
Ate irekiak
Maiatzaren 2an, 18:00etan

Oñati
Zuazola-Larraña Institutua
* Zientziak
* Gizarte Zientziak
Ate irekiak
Maiatzaren 3an, 18:00etan

# Epaiketara, nork bereari eutsiz

Azaroan Bergaran egindako aurre-entzunaldian argi geratu zen, eta orain, epaiketaren atarian, bi aldeek bereari eutsiko diotela berretsi dute. Ordaindu eta Eskuratuko abokatuek, batetik, eta Mondragonekoek, bestetik, epailea konbentzitu beharko dute

**Miren Arregi** ARRASATE

Ordainduko eta Eskuratuko 959 lagunek Mondragoni 47 milioi euro erreklamatzeko arrazoiak dituztela frogatu beharko dute maiatzaren 7an hasiko den epaiketan. Alegia, Mondragonek "engainatu" egin zituela demostratu beharko dute. Bazkide ohiek argi dute "korporazioak esaten zuena sinistu eta bete egiten zela". Diote "haiek ziurtatzen bazuten Fagor ez zebilela txarto eta sostengu ekonomikoa emango ziotela", bazkide ohiek "sinistu" egin zutela eta horregatik ez zutela erretiratu egindako ekarpen ekonomikoa. Demandatzaileek aurrez aurre izango dute Mondragon. Hark, egozten zaion erantzukizunik ez duela ebatzi beharko da. Alde biek gertu dute beren defentsa.

**Demanda egilea eta demandatua**

Ordainduko eta Eskuratuko kideak urduri baina gogotsu daude, "luze" doan prozesu baten epaiketa hasteko atarian dagoelako. Mikel Olabe bozeramailearen ustez, "badituzte irabazteko aukerak". "Partikularki, Belen Kortabarriari, Markaideri eta Txema Gisasolari



## Epaiketaren mamia: bien argudioak

**ELENA LAKA** ABOKATUA

Maiatzaren 7tik 10era partida garrantzitsu bat jokatuko da Bergarako Lehen Auzialdiko 1 zenbakidun Epaitegian.

Alde batetik, epailearen eskuinaldean jarrita, 959 lagunek jarritako demanda bat defendituko dute. Euretarik 865, Fagor eta Edesako bazkide edo bazkide izandakoak; 94, hildako bazkideen oinordekoak. Demandatzaileen helburua: 47.829.230,95 euro ordain dakiela, bakoitzari berea: gutxien eskatzen duenak, 2.800,54 euro; gehien eskatzen duenak, 1.082.315,52 euro. Guztizko kopuruari interesak eta juizioaren kostuak gehitzeko galdegiten dute. Auzibidea hasita, demandatzaileetako batek bertan behera utzi du bere eskaera; beraz, 80.555,44 euro gutxiago eskaeran.

Demandatua, eta beraz, auzira deitua, Mondragon Corporacion Cooperativa Sociedad Civil elkartea. Auzira ekartzeko argudioa: kontratu harreman batetik kanpo sortutako erantzukizun zibileko akzioa. Ekipoa zuzentzen, Raul Tenes abokatua, Donostiako Sunion taldekoa.

Beste aldetik, epailearen ezkerraldean eserita, Mondragon korporazioko ordezkaritzak jokatuko du, auzira ekarria 2016ko hasieran jaso zuen demandaren bitartez. Bere defentsaren argudioa: gauzak ez zirela gertatu demandatzaileek esan bezala, ez zela engainurik izan eta kontratuz kanpoko erantzukizuna ez dela aplikagarri. Bere eskaera epaileari:



IKER ONATE

erabat ezetsi dadila demandatzaileen demanda eta hauek juizioaren kostak ordain ditzatela. Bi abokatuk sinatzen dute erantzuna: bata, Mondragon etxe barrukoa, LKSko Jose Angel Rubio, eta bestea, Arantza Estefania, Uria Menendez abokatu bulego entzutetsuko kide. Epailea, Bergarako epaitegiko beterano bat, Angela Rodriguez-Monsalve.

Honezkero, 2015eko azaroan hasi zen auzibidean, alderdi biek oso garbi utzi dituzte gertakizunen bertsioak, bakoitzaren jarrera, argudio juridikoak eta baita ere zein baliabide erabiliko dituzten bakoitzaren egitateak frogatzeko. Maiatzaren 7tik hasita, hiru egunez pasako dira epaitegiko aretotik lekukoak eta perituak, alderdiek proposatuta eta epaileak hala erabakita, abokatuek egingo dizkieten galderei erantzuteko. Laugarren egunean, han entzundako guztia eta aurretik

**ORDAINDUK ETA ESKURATUK FROGATU BEHARKO DUTE MONDRAGONEK, BERE ERRUZ, KALTE BAT SORTU ZUELA**

aurkeztutako dokumentu guztiak oinarri hartuta, alderdi bakoitzeko abokatuak bere ondorioak aurkeztuko ditu, eta bukaeran epaileak hainbeste filmetan ikusitakoa esango du: "Epaia emateko prest" *(visto para sentencia)*. Ondoren, epailearen esku geratuko da auzi guztia, epe barik epaia eman dezan, eta ebatz dezan Mondragonek eskatutako dirua ordaindu behar dien edo ez eskatzaileei. Aurreikusi daiteke alderdietako bat ez dela epaiarekin konforme izango, eta ondoren Gipuzkoako Lurralde Auzitegiaren aurrean gora jotze errekurtsoa jarriko duela. Baina hori beste partida bat, edo partidaren luzapena izango da.

**Demandatzaileen argudioak**

Hasteko, eskatzaileek Mondragonen sorreraren eta bilakaeraren birpasatze historiko bat egiten dute. Nola izan den bilakaera Ulgorretik Mondragonera, kooperatiben arteko elkartasuna oinarri. Gaur egun, ondorioztatzen du Mondragon holding kapitalista bat dela, zuzendaritzak kide dituen enpresen erabakietan parte hartzeko gaitasun handia duena eta bere orientazioa garbi kapitala bultzatzera dagoela. Ondoren, Fagor eta Edesaren historia laburra egiten du, azken urteetan bizi izan duten krisialdi egoera aipatuz –galerak merkatuetan, krisi ekonomikoa, hornitzaileekin egindako hitzarmena 2011n, 500 milioi euroko zorra finantzatzeko, 2013ko urriko konkurtso eskaerara iritsi arte–. Fagor korporazioko "koroaren bitxia" dela dio, eta horren erakusle, Fagorreko zuzendariek, Mondragoneko goi kargutza osatzen zutela, Txema Gisasola kasu. Bazkideei dagokienez, adierazten du nola enpresen zuzendaritzak planteatzen zien jubilatzen ziren bazkideei bere ekarpenak ez jasotzea, proiektu kooperatiboari lotuta jarraitzeko. Bazkideak kooperatiba "familia"-tzat hartzen ditu, eta mundu kooperatiboaren inguruan urte askoan "adoktrinamendua" jaso zutela eransten du. Azaltzen ditu baita ere ekarpen mota desberdinak, hala nola borondatezko ekarpenak –aurrezki kutxen interes gordinaren tipoa gehi 2,5 puntu ehuneko errentagarritasuna sortzen zutenak–, bueltatzeke zeuden derrigorrezko ekarpenak –errentagarritasun berdina–, eta merkataritzako maileguak edo ekarpen bereziak, bazkideak inaktibo bilakatzen zirenean borondatezko ekarpenek hartzen zuten figura –errentagarritasuna %7,5 + KPlaren %50–. Kontatzen

**MONDRAGONEK, IRMO ADIERAZTEN DU EZ ZELA INOLAZ ERE EGON "ENGAINUAREN TEORIA"RIK**

du bitartean Mondragonek Fagorren San Andres eta Garagartzako pabiloiak eskuratu zituela 55 milioiren truke, eta Fagorri errentan eman. Eta apurka-apurka, bazkide eta bazkide izandakoen konfiantza irabazten joan zela, jarrera "toxikatzaile" baten bitartez, informazioa "ezkutatuz eta mozorrotuz", adieraziz Fagorrek eta Endesak etorkizuna zeukatela, bazkide eta izandakoek beren ekarpenak eskatu ez zitzaten. Aipatzen du 2011tik aurrera korporazioa konkurtsorako urratsak egiten hasi zela, baina modu ordenatuan. Helburua, Lagun Arok 2.000 bazkideren langabeziari aurre egin behar ez izatea, eta Mondragonek, Fagor Taldeak eta Laboral Kutxak bere inbertsioak ez galtzea.

**Eskaeraren oinarri juridikoa**

Informazio faltsua emateagatik, bere erruz, Mondragon korporazioak kalte bat sortu duela, eskatzaileei konfiantza bat sorrarazi zielako, zapuztuta ikusi den konfiantza bat, eta ondorioz hauek bere ondasunak galdu dituztela. Hau da, kontratu baten bitartez loturarik izan gabe, nahikoa arduraz jokatu gabe eragindako kalteengatik ordaindu behar dutela. Argudioaren oinarritzat hartzen du Kontu Auditoreei eska dakiekeen erantzukizuna, eta horren inguruko Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiak aipatzen ditu.

**Demandatuaren erantzuna**

Erantzuna nahigabe adierazpen batekin hasten da: Mondragonek bere nahigabea adierazten du Fagor eta Edesak izan duten bukaerarengatik,

eskatzen diegu esan dezatela egia. Haiek egia esaten badute, uste dugu aukera asko ditugula epaiketa irabazteko", dio bazkide ohiak.

Mondragonek, bestetik, indartsu ikusten du bere burua, eta, besteak beste, argi du bazkideek "ezagutzen" zituztela "Fagor Etxetresnen eta Edesaren egoera eta inbertsioaren arriskuak, kooperatibako bazkide ziren heinean".

Gainera, azpimarratu dute Mondragon eta bere kooperatibak direla Fagor Etxetresnen eta Edesaren krisiaren hartzekodun nagusiak. Izan ere, 331 milioi euroko ekarpen ekonomikoa egin zuten, "egoera bideratzen saiatzeko".

Mondragonentzat, demanda gainerako kooperatiben eta bazkideen aurka doa. "Izan ere, Mondragon ez da enpresa holding bat, non enpresa nagusiak kooperatiba guztien gaineko kontrola egiten duen". "Mondragon enpresa autonomoen elkarte bat" izanik, eta "kooperatiba bakoitza erakunde autonomo eta burujabea den heinean", bazkide bakoitzak egindako ekarpenak korporazioari itzultzeko eskatzeak zentzurik ez duela adierazi dute. Eskuratuko eta Ordainduko kideek, aldiz, demandan diote "Mondragon holding kapitalista" bat dela, "zuzendaritzak kide dituen enpresen erabakietan parte hartzeko gaitasun handia" duena, eta "bere orientazioa garbi kapitala bultzatzera" dagoela.

**Konkurtsoa, ezustekoa**

Donostiako Merkataritza Epaitegiak konkurtsoa ezustekotzat eman izana ere azpimarratu du Mondragonek. Alegia, "bazkide ohiek konkurtsoaren prozeduran erantzukizuna Mondragoni leporatu nahi izan ziotenean" porrot egin zutela. Pedro Jose Malagon administrazio epaileak "konkurtsoa ezustekotzat jo" zuen eta, besteak beste, ebatzi zuen Fagor Etxetresnek eta Edesak "ez ziotela informazio finantzariorik ezkutatu inolako hartzekoduni, eta are gutxiago beraien bazkideei".

Bestetik, salatu dute "bazkide demandatzaileek esperientzia kooperatiboaren historian ezezagunak ziren errebindikazio bideetara" jo dutela, eta adibide gisa "korporazioko zuzendarien aurkako mehatxuak, *escrache*-ak, deskalifikazio pertsonalak, asteroko manifestazioak..." ipini dituzte.

Azkenik, Mondragonek "enpleguaren aldeko konpromisoa" berretsi du, nabarmenduz kooperatibek Fagor Etxetresnak lantegiaren itxierak eragindakoei enplegua bilatzeko erakutsi duen konpromisoa.

demandatzaileek jasan duten kalte ekonomikoengatik eta honen ondorioz Mondragon Taldeko kooperatibetako bazkide/langileek ere jasan izan behar izan dituzten galerengatik. Ondoren, ez ditu inola ere onartzen demandan azaltzen diren egitateak, eta errua biktima baino ez direnei botatzea.

Gertatutakoa, laburtzen du, da zordunen konkurtso eta likidazio baten ondoren sozietate batean gertatzen dena beti; hau da, bazkideek kapital sozialean egindako ekarpenak galdu egiten dituztela, eta sozietateari egindako maileguak ezin dituztela berreskuratu. Ehun orri pasatan irmo adierazten du ez zela inolako "engainuaren teoria"-rik egon, baizik eta demandatzaileek, bazkide zirenez, kooperatiben egoeraren berri zehatza eta puntuala izan zutela beti, informazio hori bazkideentzako kanal egokian eman zela, hau da, Batzar Nagusietan, 2011, 2012 eta 2013an. Gehitzen du demandatzaileek ez bazituzten 2011 eta 2013 artean beraien ekarpenak berreskuratzeko eskatu, euren erabakia izan zela soil-soilik, inork ez zituela behartu, besteak beste, dio, "jasotzen zituzten interesak ikaragarri erakargarriak zirelako". Tesi hori indartzeko eransten du bazkide askok eskatu zutela berreskurapena orduan, eta ez zutela horretarako arazorik izan. Eta era berean bere argudioa sendesten saiatzen da esanez Donostiako Merkataritza Epaitegiak Fagor eta Edesaren konkurtsoa ezustekotzat kalifikatu zuela –ez erruduna–, eta, gainera, garai egokian aurkeztu zela adierazi zuela; beraz, horrekin baztertuta geratzen dela horko kredituen gaineko edozein ardura. Epaitegi berak adierazia dela Mondragoneko kooperatiba bakoitza "independentea eta autonomoa" dela, eta, beraz, ezin zaiola egotzi Taldeari kooperatiba batek izandako norabidea.

Oinarri juridikoetan, argudiatzen du ez dagoela gertakizun antijuridikorik, ez horrek sortutako kalterik, ez Mondragonen jokabidearen eta kalteen arteko lotura kausalik –hiru elementu hauek beharrezkoak dira kontratuz kanpoko erantzukizun bat deklaratu dadin–. Aldi berean, zehaztasun falta egozten dio demandari, esanez eskatzen diren kreditu guztiak nahastuta daudela, ez direla behar bezala frogatzen, eta ez dela nahikoa konkurtsoan kreditu horiek aitortu izana –batzuk ez ziren aitortuak izan, gainera–, baizik eta berariaz frogatu beharra zegoela bakoitza banan-banan demanda honetan. Aipatzen du inola ere ez dela aplikagarria Kontu Auditoreei erantzukizuna eskatzeko legeria, ez baitago alderatzerik kontu auditore batek bere lanean izan dezakeen ardura eta Mondragon Taldeak kide dituen kooperatibekiko dituen ardurak.

Eransten du, gainera, kontratuz kanpoko erantzukizun zibila egotekotan ere, akzio hori erabiltzeko preskribituta egongo litzatekeela. Egitate, oinarri juridiko eta frogak, lekuko nahiz perituak, horiexek guztiak dira maiatzaren 7tik 10era bitartean ikusiko ditugunak.



# "Defentsa-gabezia handia dago Katalunian"

**ALBERT BOTRAN** CUP ALDERDIKO KIDEA

CUPeko kideak hitzaldia egin du asteon Arrasaten, Alternatibak gonbidatuta; urriaren 1a ezkero Katalunian gertatzen ari diren aldaketez aritu da, nagusiki

**E.A.** ARRASATE

2018ko otsaila ezkero CUP alderdiko burukidea da, eta Kataluniako Parlamentuaren diputatu izandakoa da.

**Urriaren 1a ezkero, nola ari da aldatzen Kataluniako egoera?**

Espainiako Estatuak gure aurka erabili ditzakeen instrumentuen gaineko kontzientziazio maila aldatu da, nagusiki, gizartean. Urriaren 1ean indar polizialak modu ikaragarrian erabili zituen Espainiako Estatuak, eta gehiengoak ez zuen uste hala izango zenik. Gerora ere, errepresio modu asko erabili ditu Estatuak, preso politikoak eta erbesteratuak edukitzeraino. Independentiston aldetik, aldatu dena baita da orain pertzepzio kritikoagoa daukagula errepublika gauzatu ezin izan zutenekiko.

**Egunerokoan zertan aldatu da egoera? Eta 155. artikuluaren aplikazioa nola ari da eragiten?**

Defentsa-gabezia handia dago Katalunian eta Estatuaren inpunitatea da nagusi. Estatua erakusten ari da indar basatia erabiltzeko gai dela. Gainera, eskuin muturrekoen ekintzak areagotu egin dira azkenaldian eta Estatuak ezikusiarena egiten du. Independentismoaren ekintzak, aldiz, itsu-itsuan jazartzen ditu, guztiz baketsuak izan arren. Inpunitate sentsazio horrekin bizi dugu egunerokoa Katalunian.

**Maiatzaren 22a gerturatzen ari da, eta oraindik ez duzue presidente berria inbestitu. Nola ikusten duzu?**

Aurkezten diren hautagaiek oso aukera gutxi dituzte inbestituak izateko. Lehenik, Puigdemont. Hura inbestitzeko prest geunden, baina ez zen posible izan. Jordi Sanchezen hautagaitza ere ez da posible izan, preso dagoelako; Jordi Turullena ere zapuztu egin zuen Estatuak eta kartzelatu egin zuten. Estatuak aukera gutxi uzten dizkio gure parlamentuaren subiranotasunari. Maiatzaren 22ra bitartean, gure helburua da ditugun aukera urri horiek aztertzea eta baita desobedientzia instituzionala gure gain hartzea ere.



Albert Botran, eguazteneko hitzaldian, Etxaluzeko Axeri gelan. E.A.

**"POLITIKARIAK MENDEKUAGATIK DAUDE KARTZELAN, PRESIONATZEKO TRESNA BAT DA"**

**Puigdemonten eta Cominen boto delegatuek zer aldatzen dute?**

66 botorekin presidentea aukeratu daiteke bigarren itzulian, eta boto delegatu hauek hori egiteko aukera eskaintzen dute. Baina oinarrian dagoen gatazkak hor segitzen du, eta, seguruenik, Estatuak baliorik gabe utziko du inbestidura hori.

**Zein da CUPen jarrera arlo honetan?**

Guk defendatzen duguna da agintaldi hau parlamentuaren subiranotasuna indarrean jarriz hastea, eta egoki ikusten dugun presidentea aukeratu ahal izatea. Urtarrilean esan genuen, hauteskundeen emaitzak aintzat hartuta, Puigdemont zela hautagai egokiena, baina ez zen posible izan.

**Estatuak hauteskundeak errepikatzea nahi duela uste duzu?**

Itxuraz, Estatuak komunikatzen duena da gobernu bat nahiago duela, aurrekontuaren negoziazioetan EAJrekin dituen desadostasunak argituko liratekeelako. Hala ere, badirudi akordio hori oso gertu dagoela, eta Kataluniako egoerak ez du hori baldintzatzen, zoritxarrez.

**Eta, bitartean, bederatzi politikari preso eta beste zazpi erbestean.**

Garbi dago Estatuak bahituta dituela. Estatuaren mendekuagatik daude kartzelan, presionatzeko tresna bat da. Ez dago kondena finkorik, modu prebentiboan daude eta zenbaiti, gainera, hainbat eskubide urratzen zaizkie, beste egoera batean onartuko litzaiekeenak. Jordi Sanchez, adibidez, gogor zigortu dute hauteskunde kanpainan kartzelatik mezu bat bidaltzeagatik. Moduluz aldatu dute, pertsona batzuekin harremanak edukitzea ukatu diote. Politikoki baliogabetzeko dituzte kartzelan eta, bide batez, independentismoari lotuta gaudenok eskarmentatzeko. Beraz, onartu behar dugu, agian, luzerako borroka izango dela.

## Debagoieneko Artzainen Eguna egingo dute hilaren 6an Elgetan

Artzaintza gertuagotik ezagutzeko, askotariko ekintzak egingo dituzte; seigarren edizioa izango da

**E.A.** DEBAGOIENA

Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak, Deba Garaia Landa Garapen Elkarteak eta Debagoieneko Pastoriek taldeak antolatu dute egitaraua eskualdeko artzaintza ezagutzera emateko helburuarekin egiten den Debagoieneko Artzainen Egunerako, eta aurten, Elgetako Udalaren laguntza izan dute.

Maiatzaren 6an –domeka– egingo dute, eta hainbat ekintza antolatu dituzte. 10:00 inguruan irekiko dute herriko plazan egongo den artzainen azoka; hamahiru postu inguru izango dira, eta, besteak beste, artisauak egongo dira artilea lantzen. "Gainera, mundu mailan ibiltzen den emakume artisau bat ere edukiko dugu, artilea lantzen duena, eta artilearen onurak zeintzuk diren azalduko die bertaratutakoei", dio Agurtzane Diazek, Deba Garaia Landa Garapen Elkarteko teknikariak.

Bildotsa burruntzian dastatzeko aukera ere izango dute urreratzen direnek, herriko emakume taldeak banatuko dituen pintxoen bitartez, eta askotariko gaztak ere izango dira probatzeko eta erosteko. Eskualdeko sei artzain inguru izango dira, eta, Idiazabal jatorriko hainbatez gain, bestelako batzuk ere eramango dituzte. "Ardigazta izango da, baina ez jatorri izena dutenak bakarrik, baita gazta urdina, zaharra eta beste gazta mota batzuk erosi eta dastatzeko aukera izango dugu", zehaztu du Diazek.

Gatzatu tailerra eta haurrendako jolasak ere izango dira. "Polita izaten da haur eta gaztetxoei ardi desberdinen gaineko azalpenak ematea, giro ederra sortzen da", azaldu du Javier Arando artzainak.

Azkenik, hilero moduan, Intxortako ibilbide tematikoaren bisita gidatua egiteko aukera ere izango da, 10:00etan.

**Aurten, seigarrena**

Aurten, seigarren urtez egingo dute da Debagoieneko Artzainen Eguna. 2012an egin zuten estreinakoz Arrasaten eta ondorengo urteetan Oñatin, Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan egin ostean, aurten Elgeta izango da artzaintza munduaren erakusleihoa bailaran.




MIREIA BIKUÑA

## Erailketa bikoitza salatu dute

Gasteizko erailketa bikoitza salatzeko elkarretaratzeak egin dituzte Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin. Horrez gain, Arrasateko eta Bergarako udalek oharrak kaleratu dituzte gertatutakoa gaitzesteko. Ustezko hiltzaileak 46 urte ditu eta arrasatearra da. Hildakoak, berriz, 69 urteko emakumea eta 43 urteko alaba dira.

## Tontoen kontsolamendua

**PITER ENCINAS**
ARRASATEKO EH BILDUREN IZENEAN
ARRASATE

Urtarrila ezkero, Debagoieneko agintariak komunikabideetan agertzen ari dira *etxafuegoak* botatzen; dirudienez, hondakin birziklatzearen emaitzak oso onak iruditzen zaizkie. Jakina, bakoitzak egoera bati balorazio desberdina eman diezaioke, askatasun osoa baitugu hori egiteko, edota interes politikoa ere bai.

Hasteko, ikuspuntu batzuk azaldu nahi ditugu Arrasateko EH Bilduko kideok:

Lehena: norekin konparatzen dugun, lan ona egiten dugu eta emaitzak ere oso onak dira; adibidez, Donostiaren emaitzekin konparaketa egiten dugunean txapeldunak gara, baina, gure ohiko emaitzekin, ba, ez dira hain onak. Gogorarazi nahi dugu 2016ko martxoan emaitza %81 izan zela, gaur egungoa baino hiru puntu handiagoa, iraganean hobeto lan egin dugun seinale.

Bigarrena: Gipuzkoako emaitzak oso kaskarrak dira, %48 inguru; horrek zer esan nahi du? Ikusita Gipuzkoako herri gehienetan nola kudeatzen dituzten –EAJ eta PSE– herri hondakinak, oso nabarmena da erraustegiaren alde daudela. Hemengo emaitzak onak direla esaten badute, beste herri batzuetan zergatik ez dute *gure* sistema jartzen? Lander Arregik, Mankomunitateko Hondakinen Kudeaketa Batzordeko presidenteak, esaten badu gure sistema eredugarria dela, zergatik ez dute eramaten Gipuzkoan falta diren herrietara?

Hirugarrena: emaitza onen beherakada hori defendatzeko, beste argudio bat erabiltzen dute: sortzen dugun hondakin kopurua igo egin dela! Bai! Egia da, baina horrek ez du zerikusirik kudeaketarekin, kudeaketa ondo egiten badugu bakarrik aldatuko baita hondakin kantitate osoa, ez birziklapenaren emaitzak. Nahasmendu hori eragiteak 2015eko hondakinen inguruko egia erdiak esatearen estrategiarekin antz apur bat badu.

Bukatzeko, guretzat, garrantzitsuena birziklatze emaitza da. Horregatik, asko kezkatzen gaitu datuen jaitsierak. Maria Ubarretxenak gidatzen duen Udal Gobernuari planteatu diogu hainbatetan Hondakinen Mahaia berriz martxan jartzeko, orain arte egin den lan ona alferrik ez galtzeko.

## Etorkinak al gara birziklatzen ez dugunok?

**LUCIANA ALFARO**
BERGARA

Mankomunitateak zaborren inguruan etorkinei zuzenduriko kanpaina bat egingo duela irakurri dut, gure hizkuntza eta kulturarengatik ez baitugu araudia betetzen.

Herriko zerbitzuak nola antolatuta dauden eta nola funtzionatzen duten jakin beharra dugu herrian bizi garenok, eta honen berri ematearen ardura administrazio publikoena da. Halere, pertsona migratzaileei bakarrik zuzendutako programa bat egiteak migratzaileak eurak birziklatze tasa baxuen errudun edo erantzule moduan azaltzeko helburua duela iruditzen zait.

Neurri honek erakusten du migratzaileek birziklatzen ez dutela eta bertakoek, aldiz, dena ondo egiten duten aurreiritzia dagoela.

Honelako programa bat praktika arrazista bat dela esan genezake, migratzaileen irudi negatiboa zabaltzen duelako bertakoekin kontrajarria.

Gaur egungo gaikako bilketa sistemak ez du ahalbidetzen birziklatzen ez duten pertsonak nortzuk diren ezagutzea.

Are eta gutxiago pertsona hauen jatorria –bertakoak edo migratzaileak–. Birziklatze tasak jaitsi badira, ez ote da izango egungo sistema ez delako egokiena?

Administrazio publikoei eskatuko –eta eskertuko– nieke eskaintzen dituzten zerbitzuen komunikazioa programatzerakoan eta euskarriak diseinatzeko orduan inklusiboak izan eta bailaran bizi garenon aniztasuna kontuan izateko, eta ez kolektibo batzuen gainean dauden aurreiritziak indartzen dituztenak.

## '100 urte, milaka gertakizun'. Eta erronka bakarra, baina izugarria

**ADRIAN MERINO**
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOKO ZUZENDARITZAKO KIDEA
ARETXABALETA

Zail da futbolak sortzen duen pasioa azaltzen. Ez dirudi kirol dibertigarriena izan litekeenik, baina saihestezina den sentipena sortzen du gugan. 100 urte bete ditu Gipuzkoako Futbol Federazioak (GFF), eta, urteurreneko leloak dioen moduan, hamaika bizipen bizitzeko aukera izan dugu mende honetan zehar.

Futbol profesionalak eman dizkigun bizipenenetatik harago, Gipuzkoako herri guztietako elkarteek egiten dute futbola handi. Milaka dira gau eta egun musu-truk lanean dihardutenak, guztiak zuzen egin dezan aurrera. Eta nola ez dute, ba, Gipuzkoako etorkizuna diren gazteentzat lan hori egingo, hori bada gazteek egin nahi duten kirola?

Lan hori guztiori, ordea, ez da nahikoa. Futbolak aurrera egin behar du, eta eraldaketa sozialerako motor izan behar da. GFFk horretan sinetsi eta horretarako oinarriak jarri behar ditu ezinbestean. Etorkizunak zer ekarriko egon gabe, etorkizuna eraiki behar du.

Aurrerantzean, gure futbola ezin da izan emaitza jomuga duen 22 jokalariren arteko joko soila. Futbol eremuek askoz gehiagorako balio dutela frogatuta dago, eta balioetan hezteko tresna bikaina direla ere bai. Errespetuak izan behar du balio nagusi: futbol zelaietan nahi duen gazte orok izan behar du lekua, futbolean jakin zein ez. Onarpena, elkartasuna, ahalegina, eskuzabaltasuna, ekimena, elkarbizitza… izan behar dira futbol guneetako ardatz. Pertsona kirolariak eta bizitza osasuntsua duten gazteak hezi behar ditu futbolak.

Futbola ezin da hartu zenbaitek kudeatzen duten urrutiko kontu bat bezala. Egungo markoa aldatu behar dugu. Trantsizio garai bat behar dugu, jokalariekin ez ezik, gurasoekin, entrenatzaileekin eta kirol honekin lotura duten guztiekin lanketa egiteko.

Ez da bide errazena, baina bide egokiena delakoan nago. Ezagutzen dut honetan sendo lanean dabilen elkarte bat, baina GFFri apustu argia egitea dagokio, onura gipuzkoar guztiena izan dadin.

Zorionak, GFF, mende honetako arrakasta guztiengatik! Orain, erronka zoragarri honi arduraz heltzea opa dizut.

## Hotz Oñatik, Oñatiko herriari

**EDURNE SAEZ**
HOTZ OÑATI ELKARTEAREN IZENEAN
OÑATI

Badira bi urte pasatxo oñatiar batek, egoeraren larritasuna ikusirik, talde bat eratzeko bilera ireki baterako deialdia egin zuela. Han elkartu ginen dozena bat herritar. Gaur egun, bagara bikoitza taldean, erdia ekintza batzuetan, eta herri oso bat proiektu desberdinetan. Garbi ikusi zen hori apirilaren 19 eta 21 bitartean egindako janari eta produktu bilketan. Boluntario, laguntzaile, komunikabide eta herritar askoren lanaren ondorioz, 6.000 kilotik gora produktu batzea lortu zen. Kontuan izanda aurreko urteetan 4.000 kilo bidali izan direla, gehienez, kantitate handia da. Batutakoa *Zaporeak* eta *En Red SOS Refugiados* proiektuei bidaliko zaie, Grezian burutzen ari diren lanetan lagungarri izan dadin. Esan, Grezian, errefuxiatuen blokeo egoerak bere horretan jarraitzen duela, eta laguntza beharra inoiz baino handiagoa dela.

Janari eta produktu bilketaren emaitzak ikusirik, Hotz Oñatiko lantaldetik eskerrak eman nahi dizkizuegu oñatiarroi, izan duzuen borondateagatik. Baita herriko hainbat enpresari, emandako material guztiagatik, nahiz dendetan, garajeetan, antolaketan… aritu zareten boluntario guztiei ere; eta, nola ez, gure lana aurrera eramateko, baldintzak onartu eta arreta jarri duzuen denda guztiei. Oso balorazio positibo egiten dugu Hotz Oñatiko taldearen izenean. Mila esker!

Hilabete honetan eratu gara elkarte bezala, eta antolaketa bat egiten ari gara, bai arlo politikoko gaiak lantzeko eta baita herri mailan egin daitezkeen ekintza desberdinak aztertzeko. Errefuxiatuen krisiak egoera tamalgarrian jarraitzen duela ikusirik, ahal den eta esparru gehienak erabiltzen ari gara laguntzeko. Herritar orori luzatzen dizuegu parte hartzeko deia. Zuen inplikazioa, ahala/nahia… edozein delarik, ongietorriak izango zarete!

Datozen hilabeteetarako ekintza desberdinak antolatzen ari gara. Esaterako, San Migel Txiki jaietan txosnan izango gara ogitartekoak saltzen. Beti bezala, bertan batutako dirua proiektu ezberdinetara bideratuko da.

Beste hainbat proiektu ere prestatuko ditugu aurrerantzean, orain artean bezala taldeak herrian duen presentzia izaten jarraitu dezan.

Batera arituko garelakoan, eskerrik asko eta animo, Oñati! Pena litzateke gutxi egin dezakezula uste izateagatik ezer ez egitea.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## ZABALIK



**IGOR ARIZMENDIARRIETA**

# %25eko igoerari ezetz?

Bilbon izan zen pentsiodunen manifa bateko pankarta batean zegoen akats matematiko bat ekarriko dut gure artera gaurkoan. Bertan zioen lehen lerroan, gazteleraz, *Pentsio publiko duinak, %0,25ari ez* eta bigarren lerroan, euskaraz, *Pentsio publiko duinak, %25ari ez.*

Kontxo!, esan nuen, euskal hiztunek %25eko igoerari ere ezetza ematea...

Igoera %0,25ekoa bada, 600 euroko pentsio batean 1,5 euro dira hilabeteko. %25eko portzentajea aplikatuko bagenu, berriz, 150 euro. Eta honi ezetz esaten diote? Igoera honi euskal hiztun pentsiodunek ezetz esatea ere... kar kar kar.

Bitxikeria hau alde batera utzita, ez dakit zorioneko edo zoritxarreko, baina ez naiz pentsioduna oraindik.

Akaso, izango naiz inoiz, baina, gauzak nola doazen ikusita, ezin dezakegu esan nola bukatuko den pentsio-sistema hau.

**GAUZAK NOLA DOAZEN IKUSITA, EZIN DEZAKEGU ESAN NOLA BUKATUKO DEN PENTSIO-SISTEMA HAU**

Azken hilabeteetan, hedabideetan maiz ikusten ari gara pentsiodunen albisteak.

Astero-astero, eta antolakuntza bikain bat erakutsiz, beraien aldarrikapenak denon belarrietara eta begietara iristea lortu dute.

Gizarteko beste zenbait esparrutan ikusten ez den batasun irmo bat erakusten dute, koloreen gainetik.

Egia da beraien eskubideengatik borrokatzen direla, baina egia da guregatik ere –gazteagoak garenongatik– borrokatzen direla. Izan ere, gu ere noizbait iritsiko gara pentsiodun izatera –hori espero dut, behintzat–.

Beraien oraingo lorpenak gure etorkizuneko oinarriak izango dira.

Eta hori nahi dut adierazi, beraien borrokarekin, guretako izango diren lorpenak ere eskuratuko dituztela, seguru aski.

Hor autokritika egiten diot neure buruari; izan ere, beste askok bezala, pentsioduna izatea urruti ikusten dut eta badirudi mobilizazio edo aldarrikapenetara joan beharrik ez dugula, kontrakoa denean.

Baina gauza bat argi dut, %25eko igoera nik oraintxe bertan sinatuko nukeela!

Hor ez nator bat pankartakoekin.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE**




## HANDIK ETA HEMENDIK

### Ogia besapean

**MIKELE LANDA**

HTTPS://LABUR.EUS/8DLXI

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Bereziki udaberri garaian gertatzen zait. Babes gutxiago behar izaten dudanetan etxetik irteteko. Nire bizitzaren zati batean debekatuta neukana errutina bilakatu zaidala konturatu, eta zirrikituetan zirrararen xerka hasten naiz. [...]

Kaleaz ari naiz. Kalean ibiltzeaz goizetan. Ikastola garaian esperientzia ezezaguna zitzaigun eta niretzat behintzat ia mistikoa bilakatu zen. Ikastetxeko horma eta patioko hesiek banatzen gintuzten mundu horretatik. Urtean pare bat alditan soilik zeharka genitzakeenak, salbuespenak ziren medikuarenera bisita eta txango edo irteerei esker. Begiak zabal-zabal barneratzen ginen karriketan eta ikusten genituen helduak alde batetik bestera, erosketak egiten, kafea edaten, *footing*-ean eta ogiarekin besapean. [...] Nagusien mundua ziren kaleak goizetan eta ogi usaina zerion unibertso horren parte izatea genuen amets guk. Boligrafoak erabiltzeko genuen irrikarekin aldera daiteke hein batean; urdin aspergarriz marrazten zuten gailuok, baina helduen kontuak ziren eta guk denak deskubritu nahi genituen.

Bat-batean, etxea boligrafoz josi dugu, ogia besapean ibiltzen gara, eta gaur bezalako egunetan konturatzen gara ahaztu egin zaigula kaleak goizetan berezi egiten zituen hori zer den. Gurasoen besoa tenkatuta gora begira doan haurrari irribarre egiten diogu, eta haren zirrara ulertu gabe egiten dugu aurrera.

Larkin Poe taldearen abesti batek dioen bezala, *Nik badakit zer den denbora, denbora lapur bat da* eta errutina lagun duela oroitzapenak osten dizkigu apurka-apurka.

Orainaldiko gure egunerokotasuna betikotzen du denborak, gauzak beti horrela izan direla sinestera garaman arte.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea**
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.
**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Euskararekiko inertzia batzuk aldatu nahi ditugu"

**ARRATE ILLARO** EUSKARALDIAREN KOORDINATZAILEA

**Eneko Azkarate** DEBAGOIENA

Topagunea eta herriz herriko talde eta elkarteak murgilduta daude Euskaraldian. Izan ere, helburua da azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte, *11 egun euskaraz* aritzeko herritarrak prestatzea.

**Zelan doa Euskaraldia?**

Harrera ona izaten ari da herrietan. Aurkezpenak egin diren herrietan euskaltzale dezente ari dira batzen eta ilusioa sortzen. Bestetik, herritarrak batzen ari dira ekimenak beraien herrian abiatzeko. Hortaz, gauzak ondo doaz.

**Euskaraldiaren lehen hamaikakoa aurkeztu berri da. Zein izango da haien egitekoa?**

Euskal Herriko hamaika pertsona dira, euren borondatez erabaki dutenak Ahobizi edo Belarriprest izatea. Beraien inguruko jendeari azalduko die zer egitera doazen eta zergatik eta nola egingo duten. Herrietan ere sortuko dira antzeko hamaikakoak. Eta norbanakoen sare horren bidez ailegatu nahi da ahalik eta jende gehienarengana, Euskaraldia zer den azalduz eta parte hartzera animatuz. Pertsonengana iristeko pertsona ezagunen bidez.



Arrate Illaro, Topaguneko kide eta Euskaraldiaren koordinatzailea da. HIRUKA

**Jendeak badaki zer den Euskaraldia?**

Oso dinamika berria da eta denbora eskatzen du. Ez da ekimen sinboliko hutsa. Ez da euskararen alde gaudela esatea, baizik eta ariketa bat egitea da, euskararen erabilera sustatzeko eta areagotzeko. Orain arte, bereziki, euskaltzaleak ari dira Euskaraldiara batzen. Eta horien bidez, besteengana ere heldu nahi da. Ahobizi eta Belarriprest rolak ere berriak dira. Denbora behar dugu, baina lortuko dugu.

**Zer geratzen da egiteko?**

Behin taldeak osatuta, talde horien egitekoa izango da euren herrietan gainerako elkarte edo taldeei eta norbanakoei Euskaraldia zer den kontatzea eta dinamikan parte hartzera animatzea. Ostean, herritarren izen-ematea etorriko da. Orokorrean, irailean egingo da. Hirugarren epea izango da izena eman duten herritarrak prestatzea *11 egun euskaraz* epealdian egingo den ariketarako: sortuko diren elkarrizketa edo egoera berri horiei ahalik eta erosoen aurre egiteko gertatzea, tailerren bidez eta.

**Zer egongo da hamaika egun horietan?**

Helburua ez da ekitaldi ponposoak egitea, nahiz eta herri bakoitzean erabakiko den zer egin. Herritarren ohiko hizkuntza harremanetan eragin nahi da, euskara presenteago egon dadin.

ITURRI ONETIK

## 'El Gran Wyoming' Aramaion'

Jose Miguel Monzon *El Gran Wyoming*-ek Aramaioko Iturrieta sagardotegian bazkaldu zuen joan zen egubakoitzean. Donostiara bidean, Aramaion geldialdia egin zuen. Eta bertan elkartu zen Arrasateko enpresa bateko ezkontza agurreko bazkaria egitera joandako talde batekin. Adierazi dutenez, *Wyoming* oso gertuko agertu zen eta hark banatu zizkion opariak omenduari, aurkezpen lanak eginda. Antza, gustuko du Aramaioko jatetxe hori, ez baita lehen aldia Iturrietara otordua egitera hurbiltzen dena.

ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2004-04-24

## 'Puertollanoko heroiak' Garagartzan

Oraingo zapatuan elkartuko dira, Bergaran, duela 51 urte Puertollanon (Ciudad Real), Calvo Sotelo taldearen aurka berdindu (2-2) eta Bigarren Mailatik Lehen Mailara igo zen Realeko jokalari izandakoak. Talde hartan zeuden Jesus Mari Aranbarri eta Jon Sagasta arrasatearrak eta Agustin Aranzabal *Gaztelu* bergararra. Oraingoan bezala, duela 14 urte, apirilaren 24ko baten, Garagartzan elkartu ziren, Aranbarriren jaiotza-lekuan.

HAU BE BADOGU!

## Realeko eta Athleticeko zaleak, derbira begira



Bihar, 16:15ean, jokatuko dute euskal derbia Realak eta Athleticek, Anoetan. Aurten, itxura kaskarra eskaintzen ari dira bi taldeak, eta ezer gutxi egongo da jokoan. Hala ere, begiradak taldez aldatu duen Iñigo Martinezengan egongo dira jarrita.

*@carlescalvis*: "Zapatuan Iñigo Martinezek jasoko duen txistukada kristorena izango da" (itzulita).

*@lizarraga_ander*: "Athleticen garaipena Iñigo Martinezen golarekin. Historiara pasatuko litzateke".

## Cristina Cifuentes, denen ahotan

Madrilgo Erkidegoko presidenteak kargua utzi du. Izan ere, 2011n Eroski batean krema batzuk lapurtu zituen Cifuentesek, eta bideoa kaleratu zuten eguaztenean. Erabiltzaileek umorez bete dituzte sare sozialak:

*@boligorria*: "Cifuentes Vallecaseko Eroski batean kremak lapurtzen; ez da El Mundo Today".

*@Quebebo*: "Cifuentesek, agian, kremak lapurtu zituen Masterra ordaintzeko aurrezten zegoelako...".

## Kanbo herria 'trending topic' izan da

Lapurdiko herriak ETAren amaieraren inguruko nazioarteko topaketa hartuko du maiatzaren 4an. Asteon adierazi dute hainbat eragilek batera Kanbon izango dela hitzordua, eta sare sozialetan *trending topic* bilakatu da gaia.

*@euskalirratiak*: "Kanboko Arnagan maiatzaren 4an egingo den bake konferentzia, eguerdiz izanen da. Amaieran nazioarteko eragileek adierazpen bat irakurriko dute *@Bakebidea #Kanbo*".



Ezkerretik eskuinera, Oiana Sanchez, Miguel Ballesteros, Mikel Garcia eta Jose Luis Etxeberria *Porru*. XABI GOROSTIDI

# San Andres auzoko jaiak indarberrituta datoz

Duela bi urte jai batzordea desegin ostean, iaz batzorde berria sortu zuten auzoko jaiekin jarraitzeko. Ilusioz eta gauzak ondo egiteko gogoz hartu zuten lekukoa, eta musikaz eta haurrentzako ekintzaz jositako egitaraua prestatu dute

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Etorkizunari begira soka luzea izango dute San Andresko jaiek, hein handi batean, jai batzorde berritua dagoelako auzoan. "Duela bi urte, arazo batzuk egon ziren azken urteetan jaiak antolatu zituen lantaldean, eta jai batzorderik gabe geratu ginen. Jai batzorde berri bat eratuz gero Udala dirua jartzeko prest egongo zela jakinarazi zigun Jose Luis Etxebarria *Porru*-k, eta horri ekin genion".

Tabernari batzuek hasi zuten lantaldea osatzeko zeregina, eta, handik gutxira, hamar laguneko taldea osatu zuten. "Aurten, gutxiago gara, baina praktikoagoa da lan egiteko. Hainbat erabaki hartu beharra dagoenez, lantalde murriztuagoarekin errazagoa da guztia".

**Lehen aldian, lezio ugari**

*Hanka-sartzeetatik ikasi egiten da* bizitzako hainbat egoeratan aplikatu daitekeen esaldia da, baita jaiak antolatzeko unean ere. "Iaz antolatu genituen jaiak lehen aldiz, eta asko ikasi genuen; batez ere, koordinazioa ezinbestekoa dela. Gure kasuan, *Porru* bezalako beterano baten laguntza ezinbestekoa da, baimen eta segurtasun kontuetan esperientzia zabala du eta. Etxafuego, bigantxa eta nagusien bazkarirako baimenak lortzeaz hura arduratzen da".

Arrasateko Udalaren laguntzarekin osatzen dute aurrekontuaren zati handiena, baina badaude ekarpenak egiten dituzten beste eragile batzuk. "Tabernek, komertzioek eta auzoko atarteek ere dirua jartzen dute. Tabernen kasuan, ekarpenak handiagoak dira, jaietan zehar diru sarrerak handitzen dituztelako. Horrez gain, iaz soberakin txiki bat izan genuen, eta aurtengo ekitaldian erabiliko dugu".

**"BI KONTZERTU GARRANTZITSU IZANGO DITUGU, GOVERNORS ETA SONAKAY TALDEENAK"**

**Haurrak eta musika**

Bi aspektu horiek lehenetsi dituzte jaietako egitaraua prestatzeko. "Gazte eta helduentzako parranda giroa ziurtatuta dago tabernekin; beraz, haurrak eta ekintzak musikalak indartu nahi izan ditugu. Haurren kasuan, gazte txokoko kideei eskerrak eman nahi genizkieke, laguntza handia ematen digutelako. Musikari dagokionez, bi kontzertu garrantzitsu izango ditugu; Governors eta Sonakay taldeenak. Esfortzu handia egin dugu bi talde hauek ekartzeko, baina ziur gaude jende asko erakarriko dutela".

Asteburuko eguraldi iragarpena eskas samarra dela ikusita, neurriak hartuko dituzte. "Beharrezkoa bada, Udalara igoko gara arrautzak jartzera, eguraldi ona erakartzeko".

## San Andresko jaien egitaraua

**Apirilak 27, ostirala**
- **17:30** Jaien hasiera eta etxafuegoak.
- **17:35** Txokolate-jana eta txapa banaketa Kurtzetxiki plazan.
- **18:30** Buruhandiak.
- **19:30** Gazte Chef lehiaketa.
- **22:00** Dardo txapelketa Equs tabernan.

**Apirilak 28, zapatua**
- **11:30** Puzgarriak Gudarien plazan.
- **15:00** Herri bazkaria, iberikoen zozketa eta talde argazkia.
- **17:00** Poteoa eta elektro-txaranga.
- **19:00** Dantzaldia Javi Sound-en eskutik.

**Apirilak 29, domeka**
- **11:30** Puzgarriak.
- **16:00** Txintxon txapelketa Lizarra eta Nuevo tabernetan.
- **18:00** Poneyak eta bigantxak Hiruki plazan.
- **23:00** Governors eta Cruce de Caminos taldeen kontzertuak.

**Apirilak 30, astelehena**
- **12:00** Globoflexia, aurpegi margotzea eta joakoa Gudarien Plazan
- **16:00** Tute txapelketa Tokieder eta Avenida tabernetan.
- **17:00** Potx eta Lotx pailazoak Gudarien plazan.
- **23:00** Sonakay eta Aitor Escobarren kontzertuak Gudarien plazan.

**Maiatzak 1, asteartea**
- **12:00** Meza, San Viator Txikin.
- **13:30** Helduen bazkaria Sara Merenderuen, eta opari banaketa.
- **16:00** Mus txapelketa Itxaso eta Tantaka tabernetan.
- **18:30** Buruhandiak Gudarien plazan.
- **20:00** Etxafuegoak eta jaien amaiera.

## Haurren danborradan izena emateko eguna, maiatzaren 2a

Parte hartu nahi dutenek SUCD elkarteak Nafarroa etorbideko 23an duen egoitzara joan beharko dute; maiatzaren 2an, 18:00etatik 19:30era. Antolatzaileek jakinarazi dute pertsona bakoitzak, asko jota, hiru haur apuntatu ahal izango dituela. Guztira, 160 plaza egongo dira; beraz, izena ematen azkarrenek izango dute parte hartzeko aukera.

## Gurasoentzako tailerrak sexualitate askean hezteko

Udal Sexologia Zerbitzuko hezitzaileak gidatuko saioak, eta hiru adin tartetan banatu dituzte: 0-5 urte, 6-12 urte eta 13-18 urte. Saioak Kulturateko Jokin Zaitegi gelan egingo dituzte; 14:45etik 16:15era gazteleraz eta 18:00etatik 20:00etara euskaraz. 0-5 urtekoena maiatzaren 7an egingo dute; 6-12koena, hilaren 8an; eta 13-18koena, 9an.

## Alternatiben azokan Kataluniako egoera aztertuko dute

Aurtengo edizioaren azken geldialdia zapatuan egingo dute, pil-pilean dagoen Kataluniako auziari buruz.

*Errepublika behetik eraikitzen* izeneko mahai-ingurua egingo dute, CUP alderdiko parlamentari batekin eta CDRko bi kiderekin. Horietako bat azken hamar urteak Katalunian pasa dituen arrasatear bat da.

## OHARRAK

### Mapa topologikoa

Udalak 2007ko kale izendegia eta 1998ko mapa toponimikoa berritu ditu. Udal webgunean daude ikusgai; *Informazio praktikoa* atalean.

### Maiatzaren 1a

Langileen Nazioarteko Egunean, Udalaren kirol instalazioak itxita egongo dira –Musakola, Iturripe eta Uarkape–.



Astelehenean Euskararen plazan ateratako talde argazkia. AMAIA TXINTXURRETA

# Herri euskaldunagoa, aktibazioaren bitartez

Geike dinamikak herritarrak "aktibatu" nahi ditu euskarak presentzia nabariagoa izan dezan Arrasaten. Astelehenean talde argazkia atera, eta, bide batez, Arrasatek Euskaraldiarekin bat egin duela jakinarazi zuten herriko eragile euskaltzaleek

**A.T. / X.G.** ARRASATE

Euskaltzaleak batu eta herritarrak euskara gehiago erabiltzera "aktibatu" daitezen, lanean jarraitzen dute Geike bilguneko kideek.

Aurtengo erronka nagusia Arrasaten Euskaraldia martxan jartzea izango da, eta jakinarazi dute dagoeneko eman dutela lehenengo pausoa: eman dute izena Euskaraldian, Euskal Herriko beste herri askok egin duten bezala.

**Talde argazkia**

Iazko Euskararen Egunerako eragile askok elkarlanean eta ilusio handiz egindako muralaren aurrean, Euskararen plazan, elkartu ziren astelehen arratsaldean, herrian euskara gehiago erabiltzeko lanean dabiltzan euskara taldeak eta Udaleko eta eskoletako ordezkariak, hainbat herritarrez gain. Muralarekin argazki kolektiboa atera dute eta adierazi dute Geike bilgunearen urte honetako zeregin nagusia izango dela Euskaraldia herrian zabaltzea.

**Euskaraldia**

Arrasatek eman du izena dagoeneko Euskaraldian. "Arrasate aktibatu nahi dugu, herritarren hizkuntza ohiturak aldatzeko", azaldu du Geike-ko kide Maria Osesek. Gaineratu du ariketa pertsonala izango dela, baina taldearen babesa izango duela.

**Euskaren erabilerak, behera**

Baina zergatik "aktibatu" nahi dute herria? Arrazoi hau eman dute: "Eroso gaudelako, oso eroso. Izan ere, euskararen erabilerak oso hazkunde txikia izan du azkeneko urteetan eta azkeneko datuek erakusten dute erabilerak beheranzko joera hartu duela". Datu hauek eman dituzte hori egiaztatzeko: ezagutza %55 izanda, euskaraz hitz egiten dutenak %25 dira; gaztelaniaz, aldiz, %71. Beste hizkuntza batzuen erabilera %4koa da. Haurren artean, %41ekoa da erabilera; gazteena, %20koa; eta helduena, %25ekoa.

**EUSKARAREN EZAGUTZA MAILA %55EKOA DA; ERABILERA MAILA, ALDIZ, %25EKOA**

Horregatik, kezkatuta daude. Eta hauxe gaineratu dute: "Zenbat eta gazteago izan, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara, eta pozgarria da. Dena den, beheranzko joera horri buelta emateko, euskaldun gazte eta helduak aktibatu behar ditugu; alde egotetik euskaraz egitera pasatu, taldearen babesarekin hizkuntza ohiturak aldatu".

Euskaraldia azaroaren 23tik abenduaren 3ra proposatzen den ariketa soziala da; hau da, 11 egunez euskaraz dakiten guztiak euskaraz bizi daitezen nahi dute, eta euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz egitea.



Transformadorea, eta atzerago Musakolako Haur Eskola. XABI GOROSTIDI

## Musakolako transformadorea kentzeko lanak martxan daude

Hiru fasetan banatuko dira eta sei hilabete beharko dira bukatzeko; lanen kostua 232.864 euro da

**X.G.** ARRASATE

Azken urteetan, Herri Eskola berritzeko oztopo izan da jolastokian dagoen transformadorea, baina aste honetan hasi dituzte hori lekualdatzeko lanak.

Sei hilabete beharko dira horretarako, eta lanek 232.864 euroko kostua izango dute. Hasiera batean, Udalak ordainduko ditu lanak –ahalik eta azkarren hasteko–, eta, ostean, faktura pasatuko dio Jaurlaritzari.

"Herri Eskola Eusko Jaurlaritzari dagokion eremua izanik, Jaurlaritzari zegokion lana egitea. Halere, arazoari behin betiko irtenbidea emateko, Udalak hartu zuen gai honen lidergoa. Horrela, behin lanak bukatuta, Udalak Jaurlaritzari fakturatuko dio transformadorea aldatzearen kostua".

**Hiru fasetan**

Lehenik eta behin, Nao de Santiago kaleko belardian transformazio-zentro berri bat egokituko du Artzamendi enpresak. Bigarren fasean, Iberdrolak transformadorea jarriko du bertan, eta hirugarrenean, transformadore zaharra kenduko dute ikastetxeko jolastokitik.

## GORA ETA BEHERA



RAQUEL WINEHOUSE

### Uribe auzoko espaloia, "ganorarik gabe"

Uribeko bizilagun batek kexa helarazi du Udalera; bertako espaloi berria "ganorarik gabe" egin dela dio. "Kolore ezberdinetako zoruak, margo arrastoak paretetan..."

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.



Itxaropena plazako jolas-parkeak gaur egun duen itxura. XABI GOROSTIDI

# Itxuraldatzea eta estaltzea helburu

Itxaropena parkea goitik behera aldatuko dute: belardi batzuk kendu egingo dituzte, estalpe handi bat izango du, eta eskailera alboko belardian bi txirrista. Lanak 262.226 euro kostatuko dira, eta ekainean hasi eta azaroan bukatzea da asmoa

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Zaldibarren, Munarren, Gorostizan eta Biterin dauden jolas-parkeak berritu ondoren, laster, Itxaropena plazakoaren txanda izango da.

Bi ziburu, haurrentzako hainbat arrisku eta aterperik ez duen jolas-parkea da gaur egun. Euria bada edo eguzkiak gogor jotzen badu, parkea ez da erabilgarri izaten. Jolaserako ziburu gutxi ditu eta parke erdian dauden harrizko belardiak arriskutsuak dira haurrentzako.

Jolas-parkea berritzeko beharra ikusita, ideia lehiaketa jarri zuen martxan Udal Gobernuak, eta, bertan batutako hainbat ideiarekin, proiektuaren txosten teknikoa idatzi du Bidein ingeniaritza enpresak. "Ideia lehiaketako irabazleek oso lan txukuna egin zuten, eta hori izan dute oinarrian txosten teknikoa egin dutenek" azaldu du Maria Ubarretxena alkateak.

### Aldaketa ugari

Parke berriak estalpe handi bat izango du; zuria, eta more koloreko borobiltxoekin. Horrez gain, eguzkia edo euria albo batetik sartzea saihesteko sare edo oihal moduko bat izango du.

Ziburuentzako leku gehiago izateko, gaur egun dauden harrizko belardietako batzuk desagertu egingo dira. Estalpe barruko lurra kautxuzkoa izango da, eta askotariko ziburuak egongo dira: salto-salto bat, bi txirrista eta bertara igotzeko sareak izango dituen egurrezko ziburu bat, tilin-talan bat eta erle eta krokodilo formako beste bi ziburu ere bai.

**LANAK EKAIN INGURUAN HASIKO DIRA ETA BOST HILABETE IRAUTEA AURREIKUSTEN DA**

Erguin kaletik parkera sartzeko eskailera batzuk daude, eta horien alboan bi txirrista jarriko dituzte, ideia lehiaketako irabazleek proposatutako legez.

"Lanak maiatz bukaeran edo ekainean hastea espero dugu, eta bost hilabeteko iraupena izatea aurreikusten da", azaldu du Ubarretxenak.

### Parkea, zenbakitan

294.957 euroko prezioa onartu zen lanak esleitzeko pleguetan –BEZ barik–, eta 262.226 eurotan esleitu zaizkio Altuna y Uria enpresari –BEZ barik–.

Guztira, zazpi enpresa aurkeztu dira parkea berritzeko lehiaketa publikora.



## Parke berriaren zirriborroa

Eskailera alboan bi txirrista izango ditu. Estalpeaz gain, beste sare antzerako bat izango du, euria eta eguzkia alboz ez sartzeko. Harrizko belardietako batzuk mantendu egingo dira, eta tamaina handiko zuhaitzak jarriko dituzte horietan, itzala egiteko.



## Harearekin jolasteko gunea

Itxaropena plazan dago Uribeko jaietan bolo txapelketa jokatzen den bolatokia. Txosten teknikoak jasotzen duenez, bolatokia mantendu egingo da, eta, horrez gain, harearekin jolasteko gune bat egokituko dute bertan.

## Nao de Santiago eta Kurtzetxiki

Udal Gobernuak txosten tekniko bat izan du oinarri, berritu beharreko jolas-parkeen ordena aukeratzeko orduan. "Aurreko agintaldian egin zen txosten hori, 2012an. Parke guztien beharrak jasotzen zituen, eta baita haien erabilpen-maila ere. Guk txosten hori jarraitu dugu, berritu beharreko hurrengo parkea zein den erabakitzeko" azaldu du Maria Ubarretxenak.

Makatzenakoa berritze prozesuan dago une honetan, eta Itxaropenako lanak laster hasiko dira. Berritzen hurrengoa Zigorrola auzoko Nao de Santiago kalekoa izango da. "Bertan ezin da estalperik jarri, etxebizitzak oso gertu daudelako; beraz, dauden ziburuak berrituko ditugu". Horren ostean, San Andres auzoko Kurtzetxiki parkeko ziburuak ere berrituko dituzte.

# Ternuako baleazaleen arrastoaren atzetik

Euskaldunek Ternuan izan zuten garrantzia izan zuen hizpide Iraitz Agirre antropologoak eguaztenean Kulturaten egindako berbaldian, 'Euskaldunak Ternuan, Ternuako baleazaleen arrastoaren atzetik memoriaz eta ahanzturez' izenburupean

**Imanol Beloki** ARRASATE

Eguaztenean, Zuztarrak Errotuz taldearen udaberriko hitzaldi zikloaren barruan antolatuta, *Euskaldunak Ternuan, Ternuako baleazaleen arrastoaren atzetik memoriaz eta ahanzturez* hitzaldia eskaini zuen Iraitz Agirre antropologoak, Kulturateko areto nagusian.

Historiako pasarteak josi, bistaratu eta balioan jartzeko hitzaldian, arrantza, ontzigintza, giza harremanak, emakumeen lana, euskara… izan zituen hizpide Iraitz Agirre hizlariak. XVI. mendeko emakumeen bizimodura gerturatzeko apustua duela hamarkada bat pasa hasi zuen Agirrek, 2005ean; Ternuan hiru hilabete pasa zituen antropologiako landa-lana egiteko, eta bertan, Selma Huxley historialari anglo-kanadarrarekin euskal baleazaleen historia guztia ezagutzeko aukera izan zuen.



Iraitz Agirre, *Hemen Debagoiena* saioan, hitzaldiaren berri ematen. GOIENA

### Euskal toponimia hizpide

"Niretzat, harrigarria izan zen Ternuako mendebaldeko itsasertzak, batez ere, San Lorentzoko badiarekin lotuta dagoenak, euskal toponimia oso nabarmena zuela ikusteak", adierazi zuen Agirrek. Duela 500 urte bertako euskaldunen arrantza teknologia batzuk han geratu zirela gaineratu zuen, besteak beste.

### Emakumeak hainbat esparrutan

Ternuatik itzulita, eta garai hartako beste gertakari historiko batzuk aztertuta, emakumeen presentzia euskal portuetan ikaragarria izan zela adierazi zuen Iraitz Agirrek: "Itsasontzietako enpresariak izan ziren, gabarrariak, batelariak… ziren, eta, barnealdean, burdinoletako jabe ziren, gatzaren ekoizpena ere egiten zuten…".

## Pottogorriak taldeak lehen Tour Feminista egingo du domekan

Seber Altube plazatik hasiko da, 12:00etan, Pottogorriak taldeak antolatu duen lehen Tour Feminista. Batukadaren laguntzarekin abiatuko dira herriko kaleetan zehar, mugimendu feministarentzat garrantzitsuak izan diren pasarteak gogoraztekko.

Horretarako, lehen Emakume Asanbladako bi kideren laguntza izango dute, eta ibilbidean zehar geldialditxoak egingo dituzte. Helburua da feminismoaren hastapenetan aritutako haien esperientziak belaunaldi berriei transmititzea.

Ibilbidea finkatu barik duten arren, 13:30ak eta 14:00ak artean amaituko dute lehen Tour Feminista.

### Luntxa eta atzera begiratua

Behin ibilbidea amaituta, Arrasateko gaztetxean luntxa egingo dute, indarrak berreskuratzeko. Horrez gainera, taldea nola sortu zuten kontatuko dute *pottogorriek*.





**MUk Iturripen CD Estelaren aurka jokatu zuenekoa. Iker Barbero baloia jaurtitzen, lau aurkariz inguratuta.** IMANOL SORIANO

# Liderraren etxean irabazi gura du MUk azkena

Sailkapenean lehenengo postuan dagoen CD Estela taldea izango dute aurkari Iñaki Ogara 'Arri'-ren mutilek bihar, zapatua, 19:00etan; kikildu ordez, garaipen batekin bukatu gura du denboraldia entrenatzaileak: "Euren festa ekiditen saiatuko gara"

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Berez, ez du mailari eusteko inongo aukerarik Mondragon Unibertsitateak. "Federazioaren dokumentuei erreparatuz gero, bost talde jaitsiko lirateke, baita koefiziente txarrena duen seigarrena ere, kasu honetan, gure multzokoa izango litzatekeena", azaldu du *Arri*-k. Hala ere, onartu du azken urteetan ez dela sekula hori bete, eta gaineratu du dagoeneko inork ez duela hori sinesten. "Azken urteetan, EBA maila Espainiako Federazioaren proba-banku bihurtu da. Jokalariek ere ez dute sinesten jaitsieran, eta horrek balioa kentzen dio ligari".

Entrenatzaileak esan du urtero berritu egiten dutela liga eta talde desberdinak izaten direla. "Aurten, hamasei talde izan gara, baina, agian, datorren urtean hogei izango dira. Ez dakigu EBAn jarraituko dugun edo ez".

Kontuak kontu, itxura ona emanda eta liderraren etxean irabazita bukatu gura du denboraldia *Arri*-k. "Irabazten badigute, automatikoki igoko dira. Festa bat dute prestatuta, baina hori ekiditen saiatuko gara".



**Iazko udalekuetako argazki bat.** OINTXE! SASKIBALOI TALDEA

## Udalekuetako izen-ematea ireki dute

Aurten ere umeentzako udalekuak antolatu ditu Ointxe!-k, eta dagoeneko izena emateko aukera dago, 629 80 47 82 telefonora deituta edota *ointxe@ointxe.eus* helbidera mezua idatzita. Bi udaleku izango dira, Eneko Mataren gidaritzapean. Izena emateko azken eguna ekainaren 10a izango da bietan.

Batetik, Arrasateko udalekuak ekainaren 26tik 30era izango dira, 10:00etatik 18:00etara. Izen-ematea 55 euro izango da, etxean bazkalduta; 95 euro, campusean bazkalduta. LHko hirugarren mailatik DBHko laugarren mailara arteko ikasleei zuzendutakoak izango dira.

Bestetik, Orioko udalekuak uztailaren 9tik 15era izango dira eta izen-ematea 295 euro da. LHko bosgarren mailatik DBHko laugarren mailara arteko ikasleei zuzendutakoak izango dira.

## Lauko finala, Iturripen

Kadete mailako nesken Ointxe Araski taldeak lehenengo postuan bukatu du A1 taldea, eta Euskal Liga irabazteko lauko finala jokatuko du asteburu honetan Iturripe kiroldegian.

Finalaurrekoa Easo Bankoa taldearen aurka jokatuko dute arrasatearrek bihar, zapatua, 12:30ean. Denboraldi honetan elkarren aurka jokatuko duten bosgarren partidua izango da eta aurreko lauretan nahiko erraz nagusitu da Ointxe Araski –74-85; 72-52; 61-81; 76-46–. Gainera, arrasatearrak sasoi bikainean iritsi dira denboraldi amaiera honetara. Hala ere, ikusi egin beharko da zer gertatzen den biharko partiduan.

Beste finalaurrekoa Loiola Indautxuk eta Gernikak jokatuko dute, bihar, 10:15ean. Finala domekan izango da, 12:15ean.

## Arlutz taldea, maila onean

Pasa den asteburuan, Gipuzkoako Eskolarteko Xake Txapelketa jokatu zuten Donostian, eta Arrasate Arlutz Xake Taldeko jokalariak maila onean aritu ziren.

Aritz Tornay jokalariak bigarren postua eskuratu zuen kimu mailan, eta, taldekako sailkapenean, arrasatearrak hirugarren sailkatu ziren. Taldeak positiboki baloratu ditu jokalarien emaitzak.



ARRASATE ARLUTZ XAKE TALDEA

## Mondratek bihar bukatuko du denboraldia, etxean

Batzarre AD de Futbol 5 taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, Mondratek, 18:00etan, Musakola kiroldegian. Denboraldiko azken partidua izango da eta arrasatearrak etxeko lanak eginda kantxaratuko dira. Izan ere, mailari eustea lortu dute. Beraz, disfrutatzera irtengo dira bihar, sailkapeneko bigarrenari aurre egiteko asmoz.

## Hiru gimnasta arrasatear Azpeitiko finalean izango dira

Gipuzkoako B mailako Eskolarteko gimnasia txapelketa jokatu zen asteburuan Uarkapen, eta etxeko gimnastek maila txukuna eman zuten. Hori horrela, hiru gimnasta finalerako sailkatu ziren: kimu mailan, Miren Miguelez eta Liyanis Alonso; eta infantil mailan, Nora Marco. Maiatzaren 13an izango da finala, Azpeitian.



Arrasate Musikaleko orkestra, emanaldi batean. ARRASATE MUSIKAL

# Bakarrik ariko da aurten orkestra oholtza gainean

Udaberriko Musikaldiaren baitan, Arrasate Musikaleko orkestrak kontzertua eskainiko du bihar, 20:00etan, San Frantzisko elizan –sarrera doan–; azken urteetan Goikobalu abesbatzarekin batera eman du kontzertua, baina aurten bakarrik izango da

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

2009an eskaini zuen lehen kontzertua Arrasate Musikaleko orkestrak, Udaberriko Musikaldian. Orduko hartan ere bakarrik egon ziren oholtza gainean. Hala ere, orduz geroztik, Goikobalu abesbatzaren laguntza izan dute urtero. Aurten, hasierako formatura itzultzea erabaki dute. "Egitarau asko egin ditugu elkarrekin. Haiek beste proiektu bat zuten aurkezteko eta guk ere formatua aldatzea erabaki dugu aurten, urtero gauza bera ez egiteagatik. Baina, agian, datorren urtean berriz elkartuko gara", azaldu du Iker Olazabalek, Arrasate Musikaleko orkestrako zuzendariak.

Kontzertua bihar izango da, 20:00etan, San Frantzisko elizan, eta hiru egileren bost obra eskainiko ditu orkestrak.

Hiru egile horietako bat euskalduna da, Fernando Velazquez. "Oso ospetsua da, film askotako soinu bandak egin ditu eta", azaldu du Olazabalek. Hain zuzen ere, Velazquezenak izango dira bostetik hiru obra: *El guardián invisible, Lo imposible* eta *El hombre esponja*.

Lehenari dagokionez, "berezia da, musikak intriga adierazten du. Gainera, hemengo kultura presente dago, basajauna eta hemengo mitologiako pertsonaia batzuk ere agertzen direlako".

*Lo imposible* pelikulako soinu banda, pelikula bera moduan, tristea da, eta emozioak sortzea du helburu. "Musika oso tristea eta hunkigarria da, barruraino iristen den horietakoa. Hemen, Igor Egiron bakarlari izango dugu, txeloarekin".

Velazquezen azkena *El hombre esponja* izango da, entzulea fantasiara eramaten duena.

## FERNANDO VELAZQUEZ MUSIKARI GETXOTARRAREN HIRU OBRA ESKAINIKO DITU ORKESTRAK BIHAR

Laugarren obra *Acuarelas de Irlanda* da. "Film baterako konposatuta zegoen, baina, azkenean, orkestrarako suite bat atera zuen Alejandro Romanek. Irlandako paisaiak irudikatzen dira". Roman madrildarra da, eta Madrilgo goi mailako kontserbatorioan dihardu, irakasle.

Azkenik, Arturo Marquez mexikarraren *Danzón número 2* lana eskainiko du orkestrak. "Oso ospetsua da obra hori. Mexikarren bigarren ereserkia moduan da, oso entzuna", azpimarratu du Olazabalek.

### 50 kideko orkestra

Gaur egun, 50 kidek osatzen dute Arrasate Musikaleko orkestra, eta, zuzendariak adierazi duenez, geroz eta proiektu egonkorragoa da. "Aurrerapen handiak egin ditugu orkestra moduan, eta jarraitzen dugu hobetzen. Ilusio aldetik ere, hasieran bestekoa edo handiagoa dugu. Elkarlana oso ona da eta pozik gaude egiten dugunarekin".

# "Goikobalu Bartzelonara doan bigarren aldia izango da hau"

**JUAN ANTONIO BARRIOCANAL** PRESIDENTEA
Goikobalu abesbatza Bartzelonara doa asteburuan

**E.A.** ARRASATE



Juan Antonio Barriocanal. E.A.

Sant Climent de Llobregat herrian kontzertua eskainiko dute bihar, 20:00etan, herriko abesbatzarekin batera.

**Elkartruke bat egingo duzue. Noiz sortu zen ideia?**

2015ean. Orduko hartan, joateko data jarrita genuen, baina, azkenean, plana alde batera utzi behar izan genuen. Izan ere, Bartzelonan aste kultural bat egitekoak ziren, baina Udalean alkate aldaketa egon zen eta Ada Colauk bertan behera utzi zuen aste kultural hura.

**Orain, berriz heldu diozue orduan gauzatu ezin izan zenutenari.**

Hori da. Gestio guztiak egin ostean, dena prest daukagu Bartzelonarantz abiatzeko.

**Lehen aldia da Goikobalu Bartzelonan izango dena?**

Iñaki Maidagan abesbatzako zuzendariak adierazi duenez, 90eko hamarkada hasieran izan ziren Bartzelonan, hirian bertan. Beraz, bigarren aldia izango da hau.

**Zein da plana?**

Bihar goizean irtengo gara Arrasatetik autobusez, 07:00etan, eta eguerdirako bertan egotea espero dugu. Villadecans herrian dugu hotela, Sant Climent de Llobregatetik lau kilometrora. Kontzertua 20:00etan izango da, elizan, meza nagusiaren ostean. Ondoren, hango abesbatzarekin batera afalduko dugu, eta domeka libre izango dugu, Bartzelona bisitatzeko edota herria bera ikusteko. Astelehenean itzuliko gara, bazkaltzeko Tuteran geldialdia eginez.

**Kontzertuari dagokionez, bi abesbatzek kantatuko duzue?**

Lehenik, haiek abestuko dute, eta ondoren, guk. Bukatzeko, bi abesti kantatuko ditugu elkarrekin, *Agur jaunak* eta haiek aukeratutako bat, katalanez.

**Zenbat kide izango zarete bidaian?**

Guztira, 41 pertsona joango gara. 35ek abestuko dugu eta sei laguntzaile izango ditugu. Izatez, 55 bat kide gara abesbatzan, baina sekula ez gara guztiok batzen. 25 eta 85 urte bitarteko kideak ditugu abesbatzan, baina kide gehienek 45 urte inguru dituzte.

**Eta haiek noiz datoz hona?**

Ahal dutenean. Zapatu gauean egingo dugun afaria haiek ordainduko digute, eta, bueltan datozenean, guk haiei ordaintzea adostu dugu.

## NCC eta Aitor Ochoa & Mad Mule taldeak bihar gaztetxean

Nuevo Catecismo Catolico eta Aitor Ochoa & Mad Mule taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Arrasateko gaztetxean, 22:30ean –sarrera bost euro da–.

NCC talde donostiarra oso ezaguna da punk eta rock indartsuaren zaleen artean. Ibilbide luzea dute, eta, orain gutxi, 25 urte bete dituzte agertoki gainean. Arrasaten askotan izanak dira, eta bueltan izango dira "gogo betez".

Aitor Ochoa & Mad Mule iaz sortu zuten Soul Gestapo taldeko kideek. Rocka zentzu zabalagoan ulertzen dute, "baina, betiere, maisutasunez"; diskoa aurkeztera datoz Arrasatera.

Bestalde, Kooltur Ostegunetako maiatzeko egitaraua ere osatu dute dagoeneko: maiatzaren 3an Kokein taldeak joko du; hilaren 17an, Rokula taldeak; hilaren 23an, Sofa taldeak; eta hilaren 31n, Kaskezur taldeak.

# Argazkiak, drogen aurka konpromisoak hartzeko

'Argazki bat baino gehiago: konpromiso bat' leloa duen kanpaina aurkeztu dute UDAk eta San Juan de Dios ospitaleak. Oraingoan, herritar guztiei egin diete dei drogen aurka jarduteko; konpromiso hori argazkitan jasoko dute

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Drogen kontra abiarazitako lanean *(U@DA, United @gainst Drugs Adolescence)* beste pauso bat eman gura izan dute UDAk eta San Juan de Dios ospitaleak. *Argazki bat baino gehiago: konpromiso bat* kanpaina aurkeztu dute, drogen kontrako ekimenean herritar guztiek parte har dezaten argazki bidez.

Drogen arazoa sozializatu eta herritarren konpromisoa eskatu gura duen kanpaina da bi erakundeek aurkeztu dutena. Ibarra futbol zelaia izango du abialeku aste bukaera honetan bertan, eta kontua da drogen kontrako leloekin argazkiak ateratzea. "Hamabi kartel ditugu esaldiekin, eta, horiek esku artean, argazkiak aterako ditugu, gero nork bere sare sozialetara igo ditzan. Horretarako erabiliko dugun traola da *#UaDAproiektua*", adierazi du Oihana Matak, UDAko zuzendaritzako kideak, eta gaineratu: "Kanpainarekin bat egiten duen edonork atera dezake argazkia, izan jokalari, guraso edo herritar, konpromisoa hartzea da kontua". Erabiliko dituzten esaldietako batzuk honako hauek dira: *Drogek denoi egiten digute kalte*; *Zaindu nazazu, ez eman drogarik*; *Nik ez dut nahi drogarik nire herrian*; *Nire "taldean" drogek ez daukate lekurik, zuk bai*.

Futbol zelaian abiatutako kanpaina herrira zabalduko da gero, baita Eskoriatzara ere. "Herrietako horma bana erabiliko dira orduan argazkiak ateratzeko".



Angel Agiriano (San Juan de Dios) eta Oihana Mata eta Adrian Merino (UDA). M.A.

**"Komunitatearen beharra"**

San Juan de Dios ospitaleko zuzendari Angel Agirianok, ostera, komunitatearen garrantzia nabarmendu du: "Herria kontzientziatu gura dugu oraingoan. Drogak arazo dira eta denok bat egin behar dugu, komunitatea ez bada inplikatzen ez dugu zereginik", dio, eta Tarragonan izandako jardunaldiaren berri eman du: "Hainbat herrialdetako adituak elkartu ziren *2nd workshop Planet Youth* jardunaldian. Horren helburua zen 1998an Islandian abian jarritako programa komunitarioa ezagutzera ematea. Eta azpimarratu zen herritarren parte-hartzean oinarritzen den eredu komunitarioak duen garrantzia prebentziorako". Hala, nerabeak drogen arriskutik urruntzeko lanean "herritar guztiak" direla beharrezkoak berretsi du.



UDAko eta San Juan de Diosko ordezkariak Madrilgo unibertsitatean. UDA

## Madrilgo unibertsitateko ikasleekin

Rey Juan Carlos unibertsitatean izan ziren joan den astean UDAko eta San Juan de Dios ospitaleko hainbat ordezkari proiektuaren berri ematen. Osasun Zientzien Fakultateko ikasleen aurrean jardun zuten, eta "pozik" itzuli ziren; harrera beroa egin zieten.


Trikitilariak Mitarte kalean, iazko Udaberri Jaixan. ARIZMENDI IKASTOLA

# Maiatzaren 5ean ospatuko dute Udaberri Jaixa Arizmendikoek

Urtero legez, kalejirarekin girotuko dute herria, taloak eta jolasak egingo dituzte eta bazkaltzeko elkartuko dira

**Goiena komunitatea**
Arizmendi Ikastola / ARETXABALETA

XIII. Udaberri Jaixa ospatuko dugu maiatzaren 5ean, Aretxabaletan; denok batera ospatu ere, gurasoek, ikasleek eta irakasleek. Horretarako, egun polita antolatu dugu, beste behin: jolasak, talogintza tailerra, bazkaria… izango ditugu.

**Bazkalostean, karaokea**

Nahiz eta egunak falta diren oraindik, parte hartzera animatzen zaituztegu. Egitarau dotorea gertatu dugu aurten ere; hona hemen horren berri: 10:30ean ekingo diogu jaiari, Basabeazpi gunean elkartuta, eta handik abiatuta jolasak izango dituzte neska-mutikoek eta gurasoek; 12:00etan Herriko Plazara joango gara kalejiran, eta han, erraldoiekin eta buruhandiekin bat egingo dugu; talo tailerra ere izango da. Bazkaltzeko elkartuko gara 14:00etan, eta bazkalostean tailerrak izango dituzte umeek. 15:30ean hasita euskal karaokeak girotuko du arratsaldea, eta 17:30ean, Argitxok agurtuko du jaia txokolate beroa hartuta. Gonbidatuta zaudete guztiok egun ederra pasatzera!

## GORA ETA BEHERA


GOIENA

### Arrantzan egiteko aukera Deba ibaian

Ibaian –Belorrietako tartean– jarritako kartela ikusita harrituta geratu den herritar batek zera dio: "Arrantza tarte izendatu badute arrainak egon badaudelako izango da, eta hori bai pozgarria!"

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.



Antonio eta Ainhoa Herruzo, euren okindegian, landu berri dituzten zenbait ogirekin.

# "Kalitatezko ogia zor diogu bezeroari"

**ANTONIO HERRUZO** OKINA

Okindegian bertan egindako artisau ogia saltzen du Antonio Herruzok. Eta etengabe dihardu sektorea ikertzen, bezeroei kalitatezko produktua eskaini guran

Asko dira ogia saltzen duten dendak –gutxitan lantzen dute euren ogia–. Eta batzuek barnean daroate okinen tradizioa. Ez hori bakarrik: lan modu tradizionala eta ogiaren kalitatea berreskuratzeko lanean dihardute. Horixe da, hain zuzen ere, Aretxabaleta Okindegiaren kasua. Kalitatezko ogi propioa saltzeko erronkarekin dihardu Antonio Herruzo okinak. Eta etengabe dihardu sektorea ikertzen, bezeroen eskakizunak ase guran. Ondo ezagutzen du sektorea –okinen elkarteko kide da hura–.

**Azken urteetan behera egin du ogia egiteko tradizioak. Zuek, ordea, horrekin diharduzue.**

Hala da. Duela hogei urte sortu genuen Aretxabaleta Okindegia [Antonio Herruzok 49 urteko esperientzia daroa soinean]. Eta buru-belarri gabiltza, ogia egiteko era tradizionala berreskuratu guran. Urteekin jabetu naiz jendeak ogi naturala gura duela, kalitatezkoa; osasuntsua, modu berean. Ezin entzungor jardun. Ogiaren benetako balioa berreskuratu beharra dugu. Eta horretarako lanean gabiltza, etengabe berritzen, ogia egiteko era tradizionaletik aldendu barik, betiere.

**Bezeroen eskaerara moldatzen diharduzue, beraz.**

Duda barik. Honetan guztian haiek dira garrantzitsuenak. Beti esaten diet langileei: "Entzun bezeroei". Hein handi batean, horiengatik erabaki nuen iraganeko ogirantz joan beharra genuela, industrializatzearen tranpan erori gabe. Ideia horrekin, etengabe dihardut berritzen, aldatzen, antzinako ogi hori berreskuratzeko ahaleginean.

**Ogia saltzen duten negozio asko daude. Bezeroak zergatik joan behar luke zurenera?**

Hasteko, geuk eginiko ogia saltzen dugulako, okinak garelako. Alegia, ez garelako salmenta puntu soil bat. Eta kalitatezko osagaiak darabiltzagulako. Ore ama da gure ogien funtsa –%20 eta %80 artean dute gure ogiek–. Esan beharra dugu, zoritxarrez, kalitate bako ogi asko jaten dela gaur egun. Eta tristea da hori; aldatu beharrekoa, halaber.

**Eta zein ogi mota saltzen dituzu?**

Denetarik aurki daiteke Aretxabaleta Okindegian. Besteak beste, chiaz, espeltaz, zekalez... egindako ogiak ditugu. Esan moduan, garrantzi handia ematen baitiogu osasunari; ongizatera bideraturiko ogi sorta bat dugu, adibidez. Eta, halakoez aparte, ogi tradizionala ere eros daiteke gure okindegietan. Bestalde, garaian garaiko bestelako produktuak –San Blas, Erregeeguneko erroska handia, karapaixoa...– eta pastak egiten ditugu.

**Okin bakoitzak bere ogia lantzen du...**

Noski. Okin bakoitzak bere lan modua du; eta hori nabari da produktuan. Esan dezaket zapore handiko ogia lantzen dugula, kalitatezkoa; asko irauten du, hondatu barik. Gainera, aurrelanketa handiko ogia da: 01:00etan hasten gara horrekin, masa lantzen. Eta, ostean, ukitu barik utzi behar dugu denbora batez, masa altxa dadin; bakoitzak bere denbora behar duen arren, ohikoan, bi eta hiru orduz uzten dugu horrela. Gainera, aurreko egunetik utzi behar izaten dugu prest ore ama, hartzidura edo fermentazio egokia izan dezan. Hori guztia egin ostean sartzen dugu labean –harrizko bi labe ditugu, esaterako–.

**Eta egunean bertan zuen okindegira...**

Hori da. Bi egoitza ditugu Aretxabaletan: Basaben –bertan egiten dugu ogia– eta Loramendin. Besteak beste, bezeroarekin zuzeneko harremana izatea ahalbidetzen digu horrek. Eta asko eskertzen dugu hori. Finean, pasioa da gurea. Ederra da kontsumitzailea pozik dagoela ikustea. Jakitea ogia gustuko duela. Asko betetzen gaitu horrek.

**Berebiziko garrantzia ematen diozu kalitateari, ezta?**

Duda barik. Hori da gure okindegiaren funtsa. Eta gure kasuan, kanpoko enpresa bat dabil hori kontrolatzen, etengabe. Besteak beste, gure produktuetan erabiltzen ditugun osagaien eta lan egiteko moduaren kalitatea bermatzen laguntzen digu hark. Finean, kalitatea zor diogu bezeroari. Horretarako bitartekoak jartzea dagokigu.

**"URTEEKIN JABETU NAIZ JENDEAK OGI NATURALA BEHAR DUELA; OSASUNTSUA, MODU BEREAN"**

ARETXABALETA
OKINDEGIA PANADERIA & KAFETEGIA CAFETERIA
Artisau-ogia, etxean bertan egina
Basabe poligonoa 2 ARETXABALETA Loramendi 6



Aretxabaleta Lagunkoia taldeko kideak apirilean egindako bileran. ARETXABALETA LAGUNKOIA

# Herri erosoa lortzeko, "gogotsu" lanean

Aretxabaleta Lagunkoia egitasmoko kideak herria aztertzen dabiltza hainbat arlotan banatuta. Aire libreko guneen eta eraikin publikoen gaineko hainbat proposamen egin dizkiete udal ordezkariei, eta haiengandik jasotako erantzunarekin "pozik" agertu dira

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Iaztik dihardute lanean Aretxabaleta Lagunkoia egitasmoko kideek, eta dagoeneko fruituak ematen hasi da proiektua. Hamazazpi lagunek osatutako taldea –65 eta 85 urte artekoak– aldiro elkartzen da pertsonendako egokitutako herri txukuna lortzeko lanean.

"Herriaren gaineko diagnostikoa 2013an egin genuen, baina, iaz Udalak ere egitasmo horrekin bat egitea erabaki zuenez, aurretik egindako lan hura eguneratzea erabaki genuen", adierazi du Pedro Etxebarriak, taldeko kideak. Dagoeneko hiru arlo eguneratu dituzte: Aire libreko guneak eta Eraikin publikoak; Garraioa; eta Etxebizitza. Eta oraindik egiteko dituztenen artean daude beste hauek: Parte-hartzea eta Sare sozialak; Errespetua eta Gizarte inklusioa; Gizabidezko parte-hartzea eta Enplegua; Komunikazioa eta Informazioa; eta Komunitateko zerbitzuak eta Osasun zerbitzuak.

**Plataforma iraunkorra**

"Lehenengo arloko proposamenen erantzunak jaso ditugu eta orain bigarren arlokoen zain gaude. Aurrez aurre zein idatziz jaso ditugu eta oso eskertuta gaude". Era berean, pozik agertu dira, egindako lana herriaren interesrako dela aitortu dietelako. Era berean, eskaera batzuk egin dizkiote Udalari: "Azalpen gehiago eskatu ditugu kontu batzuetan, data batzuk... Baina jakin badakigu egingarriak ikusten ez dituzten lanak alboratu egingo dituztela", dio Etxebarriak.

Parte-hartzerako herritarren plataforma legez eratu direla gaineratu du, eta bertako lagunak aldatuaz joan arren talde iraunkorra izan gura duela.

**HERRITARREK OSATUTAKO TALDEAN 65 ETA 85 URTE ARTEKO HAMAZAZPI LAGUN DAUDE LANEAN**

## Landutako gai batzuk

Udal ordezkariei aurkeztutakoak eta jasotako erantzun batzuk.

- Zaratak tabernetan…: neurgailua erosi.
- Kutsadura: airearen azterketa.
- Arratoi eta uso izurritea: kanpaina usoak murrizteko.
- Parkeak, gune berdeak: Iñurrategi parkea ireki, kiroldegi aurreko zelaia egokitu eta komentuko loretegia herriratu.
- Kaleen eta ibaiaren garbitasuna: zakarrontzi gehiago…
- Komun publikoak.
- Segurtasuna eta argitasuna: plana abian.
- Bidegorria: segurtasuna bermatu.



FORU ALDUNDIA

## Coprecin izan da Markel Olano

Hazkunde fasean dagoen Copreci kooperatiban izan ziren Olano diputatu nagusia eta Ekonomia Sustapen, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako diputatu Ainhoa Aizpuru. Hiru urtean 50 milioi euroko inbertsioa egitea aurreikusten du kooperatibak, jarduera hedatzeko helburuarekin, eta horren %70 Aretxabaletako fabrikara bideratuko dela adierazi dute.



M.A.

## GEDkoak Durana kalean daude

Durana kalean –Udalak UDAri utzi dion lokalean, hain zuzen ere– Gure Esku Dago-ko kideak izango dira eguaztên eta egubakoitz arratsaldeetan. Kamisetak salduko dituzte han, eta ekainaren 10eko giza katerako izenak jaso ere bai; 500 aretxabaletar behar direla 185. kilometroa betetzeko gogorarazi dute, eta "sareratzeko" dei egin diete herritarrei.

### Interneten eta smartphoneen gaineko oinarrizko ikastaroak

Markole auzoan egoitza duen KZgunean ordenagailua erabiltzen ikasteko ikastaroa egingo dute, maiatzaren 2an hasita; eta Interneten gainekoa, 7tik aurrera. Smartphonea eta tableta erabiltzen ikasteko saioak ere egingo dituzte. Argibideetarako eta izena emateko, bertara jo behar da: *tutor.aretxabaleta@kzgunea.net* eta 943 02 36 14.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# "Musikalak ditut gustuko, baina ateak itxi gabe"

**BEÑAT ARIZABALETA IRURE** ARTISTA

Dantzerti eskolan dihardu Arte Dramatikoa ikasten eta ETBko 'Bago!az' saioko lehiakidea da; 'Go!azen' telesailerako txartela lortzeko lanetan dabil lanean gogor

**A.Txintxurreta/M.Altube** ARETXABALETA

Orain dela hamar urte Goiena telebistaren lehenengo Kantari saioan hartu zuen parte Beñat Arizabaletak, eta ondoren, beste batean ere bai. Egun, ETBko *Bago!az* saioan dihardu.

**Zelako esperientzia izaten dabil?**

Izugarrizkoa! Emozioz beteta bizi dut; oso une onak daude, baina txarrak ere bai, tentsio handikoak. Dena den, argi dut disfrutatzeko zerbait dela, eta besteei gozarazteko; horregatik, ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz transmititu gura dudana besteei helarazteko.

**Saioan *coach* batzuk dituzue; zelakoa da eguneroko lana horiekin?**

Oso ona, oso gertukoak dira eta. Familia bat osatzen dugu *Bago!az*-eko guztiok, eta hori izugarri eskertzen da. Edozein zalantza dugunean, eurengana jotzen dugu eta erremintak ematen dizkigute gure saioak hobetzeko, asko laguntzen digute.

**Bi saio irabazi dituzu dagoeneko eta immunitatea ere lortu duzu…**

Bai, zer esan… Lorpen handia da bi gala jarraian irabazi ondoren kanporatua ez izatea, izugarrizko luxua. Baina gogorra ere bada, beste presio bat dago eta. Lan handia egin behar da astero-astero norberaren onena emateko.



Arizabaleta artista aretxabaletarra . AMAIA TXINTXURRETA

**"LAN HANDIA EGIN BEHAR DA ASTERO-ASTERO NORBERAREN ONENA EMAN ETA AURRERA EGITEKO"**

**Zure lagunak eta senideak joan izan dira gala horietara; zelan bizi dute?**

Gurasoei esan izan diet oso ezberdina dela Beñat lez kantuan entzutea ni etxean, sarri entzuten nautelako, eta Europe taldeko kantari moduan jantzita agertzea *The final countdown* kantuan. Eta aho zabalik geratu ziren: "Ostras!", zioen amak. Zirraragarria izan zen haientzat hala ikustea ni, magikoa ere bai, beste bat naizelako halakoetan. Era berean, tentsioa ere badago une horietan, eurek ere ez dutelako nahi ni kanporatzerik.

**Saioaren finala gerturatzen dabil… *Go!azen* telesaileko partaide izan gurako zenuke?**

Bai, horixe! Baina finala oso gogorra izango da; izan ere, geratzen garen lehiakideak oso onak gara guztiak ere eta gogor egin beharko dugu lan geure burua hobetzeko. Bukaerara iritsi gurako nuke eta irabazi, noski!

**Herritarrek zer esaten dizute?**

"Ikusi zaitugu, zein ondo, Beñat!". Eta umeek argazkiak ateratzeko ere eskatu izan didate. Zelan esango diet, ba, ezetz? Mila bider ikusiko ninduten kalean, baina orain, ezberdina da…

**Dagoeneko artista bat zara, eta ikasketa horiek egiten dihardzu…**

Bai, Dantzertin nabil; Euskadiko arte dramatiko eta dantzako goi mailako eskolako lehen promozioko kidea naiz. Hirugarren mailan nago eta oso gustura nabil.

**Praktikek garrantzi handia izango dute halako ikasketetan, ezta?**

Bai; taldeen lan egiteko era ezagutzeko izaten dira praktikak. Lehen bi urteetan Donostian egon nintzen operak egiten dituen Opus Lirica konpainian, eta aurten, Bilboko zirku eskolan nabil; erabat aldatu nahi izan dut, eta beste diziplina bat jorratu.

**Behin ikasketak bukatuta, norantz jo nahiko zenuke?**

Musikalak oso gustuko ditut, baina ezeri ateak itxi gabe, oso mundu zabala da eta.

## 'Mugarrixak' antzezlana

Apropoxek ekoiztuta eta Iurgi Etxebarriak zuzenduta, *Mugarrixak* antzezlana eskainiko dute Arizabaletak eta Jon Zubiaga *Osoron*-ek, maiatzaren 12an (22:00). Aretxabaletako mugarriak aitzakia hartuta, historia kontuak landuko dituzte.

## 'Jose Azul'-en eskulturak ikusgai maiatzean Arkupen

Burdina forjatuarekin egindako animaliak jarriko ditu ikusgai *Jose Azul* (Jose Angel Lopez Martin) eskultoreak (Teruel, 1967) Arkupeko erakusketa aretoan, *Ugaritzen diren animaliak* izenarekin. Burdinarekin batera, egurra, harria, hezurrak eta beste material batzuk ere erabiltzen ditu animaliak sortzeko. Burbaguena herrian du lantokia, eta, han sortu arren lanak, leku askotan erakutsi ditu, Euskal Herrian ere sarri. Maiatzaren 3an, eguena, Aretxabaletara iritsiko da; hona hemen Arkupeko ordutegia: astelehenetik egubakoitzera goizez (11:00-13:00) eta arratsaldez (18:00-20:00); eta zapatuetan, goizez bakarrik.

## Otala Zelai kroserako izen-emate epea zabalik dago

Maiatzaren 13an jokatuko da Urkulu urtegiaren bueltan Joseba *Mardo*-ren oroimenezko Otala Zelai krosa. Lasterketaren 40. urteurrena da, gainera, eta izena emateko epea zabalik dago: *Herrikrosa.eus* webgunean eta Ibarra kiroldegian. Aurten ere bakarka zein bikote mistoak osatuta parte har daiteke; izena aurrez emanez gero, 8 euro ordainduko ditu lasterkari bakoitzak; eta egunean bertan, 15 euro.

Umeen lasterketekin ekingo diote egunari, beste behin; 10:30ean izango da hori, Otala Zelain bertan. Helduen lasterketa, ostera, 11:00etan abiatuko da eta Urkulu urtegiari buelta eman beharko diote.

ANDRA MARI
Aholkularitza
2017ko errenta kanpaina
Aholku pertsonalizatua
Etorri eta lagunduko dizugu
Andra Mari Auzunea 3 • ARETXABALETA • Tel. / Fax.: 943 79 29 26 • naiara@asesoriaandramari.com



Bidebarrietatik aterata, Santa Ana eta Santa Marina arteko zatian egingo dituzte lanak. IMANOL BELOKI

# Aparkalekuaren irekiera, aurrera bidean

Santa Ana eta Santa Marina arteko lursail horretako bi jabegorekin akordioa egin ostean, 40 auto ingururentzako aparkalekua, Jose Arana kaleko etxeen atzetik oinezkoentzako pasagunea, berdegunea eta erabilpen librerako gunea egingo dituzte

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako apirileko osoko bilkuran hainbat gai izan zituzten hizpide, baina azpimarragarriena hauxe izan zen: Santa Marinan lurzatiak alokatzea ibilgailuentzako doako aparkaleku bezala eta espazio librerako erabiltzeko. EH Bildu eta Eskoriatza Irabazi alderdien abstentzioekin, Santa Ana eta Santa Marina artean aparkaleku berria egingo da.

Akordioa abiapuntu, hitzarmena sinatu eta obra lizitaziora irten ostean, uda bukaeran martxan izango dela adierazi zuen Joserra Zubizarreta alkateak: "40 aparkaleku inguru egongo dira, eta, hauek egitean, Arbiñosteko espaloian ezingo da aparkatu. Aparkalekua bermatzeaz gain, oinezkoen pasabide berria egingo da. Berdegunea eta aparkaleku zatia alokatu egingo dugu, 5.500 eurora ez da iritsiko. Eskerrak eman nahi dizkiet proiektu hau garatzeko aukera eman digutenei".

Josu Ezkurdia Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak adierazi zuen berri ona dela kontratua sinatzea: "Kostata, baina epe motzean aparkalekua zabalduko dugunez, berri pozgarria da. Bestalde, lehen alokatuta ez genituen bi partzela ere alokatuko ditugu, eta erabilpen librerako parketxo bat jarriko dugu. Azkenik, aipatu beharra dago alokairuaren prezioa lehen geneukanaren antzekoa izango dela".

## Oposizioaren abstentzioa

EH Bilduko bozeramaile Aitor Zubizarretak abstentzioaren arrazoiak eman zituen: "Prozedurarekin zalantzak ditugu; jabe guztiekin ez da hitz egin, eta interesgarria litzateke. Posible izan da batzuekin akordioa egitea, eta pozten gara alde horretatik, baina zergatik ez guztiekin, eta, azkenik, sendotasun juridikoa badu?". Horren harira, Ezkurdiak adierazi zuen prozedura egokia erabili dutela, negoziazioari dagokionez, negoziatu nahi dutenekin negoziatzen dutela, eta berme juridikoa ere badutela gaineratu zuen. Irabaziko Rafa Bernal bozeramaileak, bestalde, gaia oso garbi ez duela ikusten adierazi zuen, eta horregatik abstenitu zela.

**LANAK AMAITZEN DITUZTENEAN, ARBIÑOSTEKO ESPALOIAN EZINGO DA APARKATU**

## Jose Aranako zirkulazioa

Lete eta Sorautzen arteko lanengatik, plaza aurreko errepidea autobusentzat eta kamioientzat ireki dute, bi noranzkoetara, eta autoek bide hori ez erabiltzeko dei egin dute. Izan ere, autoak goranzko edo beheranzko noranzkoetan joaten dira, eta dagoeneko neurriak hartzen ari direla adierazi zuen alkateak.



Jon Sarasuaren saioak eman zion hasiera, Liburuaren Asteari. ARANTXA UNZUETA

# Gaur bukatuko da Liburuaren Astea, Zaldibar antzokian

'Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu' lehiaketako saridunek aitona-amonen biografiak kontatuko dituzte

**I.B** ESKORIATZA

Ekintzaz beteta egon da Liburuaren Astea Eskoriatzan: Jon Sarasuaren *Iturri bati begira, Joxan Artzeren interpretazio bat* izeneko emanaldia, bigarren eskuko liburuen azoka, Pello Añorga irakasle, ipuin kontalari eta idazlearen ipuin kontaketa... eta gaur, egubakoitza, amaiera emango diote asteari, Zaldibar antzokian egingo diren emanaldiekin.

Lehenengo eta behin, *Beenan eta begigorri munstroa* izeneko saioa eskainiko dute Beheko Errota musika eskolakoek, ipuin musikatu eran, eta gero, *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketaren sari banaketa izango da.

## Aitona-amonen biografiak

Almen-Arizmendi eta Luis Ezeiza ikastetxeetako seigarren mailako 57 ikaslek hartu dute parte *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketan, eta saridunak Aroa Garro eta Olaia Balbas izan dira. Euren aitona-amonen biografiak idatzi dituzte, eta, hain zuzen ere, saridunek haiei irakurriko dizkiete idatzitakoak Zaldibar antzokian.




LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

# Herri eskolan abestia grabatzen

Ene Kantak taldekoak Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolan izan dira aste honetan, lehenengo mailakoekin, *Dinosaurioak* abestia grabatzen. Ene Kantak taldeak hainbat abestiz osatutako CD eta DVDak ateratzen ditu, horiek salduz lortutako dirua euskararen alde erabiltzeko asmoz. Hala, abestiaren grabaketa egin, eta bikain pasatu zuten txikienek.



Gorosarri Dantza Taldeko ordezkariak Debagoieneko Dantzari Egunean. GOROSARRI DANTZA TALDEA

## Gora Debagoieneko dantzariak!

**Goiena komunitatea**

Gorosarri dantza taldea / ESKORIATZA

"Debagoieneko 25. Dantzari Eguna ospatu genuen larunbatean, Arrasaten, eta gure eskerrik beroena eman nahi diegu antolatzaileei, bereziki egun eder horretan parte hartzeko gonbidapena egin zigutelako. Urteak dira Eskoriatzan talde bezala dantzatzeari utzi geniola, baina argi dago dantzaren sua barruan genuela, norbaitek edo arrazoiren batek txinparta pizteko zain. Gonbidapena jaso genuenean, berehala eman genion baiezkoa! Saiatuko ginela, behintzat, taldetxo bat bildu eta dantzaren bat edo beste egiten! Eta hala izan zen. Buru-belarri jarri eta dantza berriak eta guzti ikasi ditugu. Ezin aipatu gabe utzi honetan asko lagundu digun Ibone Arrieta, Eskoriatzan dantzari gaztetxoen irakaslea den Aretxabaletarra. Eskerrik asko zuri ere!

Primeran pasa dugu, eta amaiera –edo ez– egun eder batekin eman diogu; oroitzapenez beteriko egun eder batekin.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, hau posible egin duzuen guztiei.

Dantzatzen duen herria, bizirik dagoen herria!

Eskoriatzako Gorosarri dantza taldea".

# Dantzari Egunera ilusioz joan dira eskoriatzarrak

Urteak dira dantza talderik ez dagoela Eskoriatzan, baina Gorosarri Dantza Taldeko hamabost kide Arrasaten izan ziren Debagoieneko 25. Dantzari Egunean. Lehengo garaiak gogorarazteko eta egun ederraz gozatzeko aukera izan zuten bertaratuek

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Gaur egun ez dago helduen dantza talderik Eskoriatzan, baina dantzarako zaletasuna ez da galdu herrian. Urteko hainbat jaiegunetan ikus daiteke dantzari apartak daudela herrian, eta horren adibide da pasa den zapatuan Gorosarri Dantza Taldea ordezkatzen izan ziren eskoriatzarren kasua.

**Gorosarri taldearen hastapenak**

Gorosarri Dantza Taldea eratu baino lehenago, Eskoriatzan Alai Garbi izeneko dantza taldea egon zen, 60ko hamarkada hasierara arte. Gero sortu zen Gorosarri Dantza Taldea, eta haien lehenengo dantza-ekitaldia Aberri Egunean izan zen, Fernando Eskoriatza plazan. Taldearen lehen irteera, berriz, 1967an Miarritzera izan zen, dantza taldeen topaketa batera, eta azkena Arrasaten izan da; pasa den zapatuko Debagoieneko 25. Helduen Dantzari Egunekoa, alegia.

**Taldearen hasierak**

Mario Padilla Eskoriatzako txistularia izan da urte askoan, eta hark egindako lan handiari esker, Eskoriatzan txistu-zaletasuna eta euskal dantza taldea egon dira. Hura izan zen, gainera, Gorosarri dantza taldearen sortzaileetariko bat. Hala, hainbat urtez egin zituzten emanaldiak herrian, eta topaketa ezberdinetara ere joaten ziren, taldea desegin zen arte.

80ko hamarkada hasieran talde txiki bat zegoen arren, 1993an kuadrilla talde bat elkartu zen; ume eta helduz osatutako 100 bat dantzari izatera heldu ziren garai hartan. Mario Padillak erreleboa eskatu zuen, eta, ondoren, 1999-2000. urtean dantzari gutxi geratzen zirenez, taldea uztea erabaki zuten.

**Indarra hartu guran**

Gaur egun, txikienek hartu dute dantzaren lekukoa Eskoriatzan, eta Beheko Errota musika eskolak kudeatzen du. Honela adierazi du Araceli Telletxeak, musika eskolako irakasleak: "Hainbat urtez ari gara dantza taldearekin, eta, gaur egun, 6 eta 16 urte arteko 40 neska-mutiko ari dira taldean. Azken urteotan, irakasle aldaketa ugari izan ditugu; izan ere, taldea finkatzea asko kostatzen zaigu, eta herriko saio ezberdinetan –Ferixa Egunean, San Pedro jaietan…– eta, esaterako, urtero egiten den Aretxabaletako topaketan parte hartzen dugu, baina nahiko genuena baino gutxiago. Hala ere, egonkortzeko bidean doala ematen du".

**BEHEKO ERROTA MUSIKA ESKOLAKO GAZTETXOEN DANTZA TALDEAN 40 NESKA-MUTIL DAUDE**

## Udaberritxotx! jaiaren lehen edizioa arrakastatsua izan da

Datorren urteari begira jaia berriz antolatzeko aukera asko daudela adierazi dute Eingeinke Elkarteko kideek

**I.B** ESKORIATZA

Udaberritxotx! jaiaren lehen edizioa izan zen Eskoriatzan pasa den zapatuan, eta geratzeko etorri den festa dela ematen du. Izan ere, arrakasta itzela izan du jaiak, eta parte-hartzea ere oso ona izan dela adierazi du Asier De la Florrek, Eingeinke Elkarteko kideak: "Jende asko gerturatu zitzaigun zorionak ematera eta antolakuntza ona izan dela adieraztera, eta eskertzekoa da hori. Datorren urteari begira jaia berriz antolatzeko aukera asko daude, izan duen erantzuna ona kontuan hartuta eta apirilean herrian ekintza gutxi antolatzen direla aintzat hartuta. Hala ere, herriko beste eragileek ere antolakuntzan parte hartzea komeniko litzateke".

230 lagun elkartu ziren herri bazkarian, Martin Berrizbeitia eta Xabi Igoa bertsolariek saio ederra eskaini zuten, eta, aulki joko erraldoia ez bazen egin ere, erromeriarekin dantza nagusitu zen Fernando Eskoriatza plazan.



Udaberritxotx! jaian, Fernando Eskoriatza plazako herri bazkarian. IMANOL SORIANO

# Azkenengo jardunaldian, hirugarren postuaren bila

Eskoriatzako areto futboleko ohorezko gazteek denboraldiko azken partidua etxetik kanpo jokatuko dute, Lauburu taldearen aurka. Pasa den astean Osasunaren aurka galdu arren, berdindu edo irabaziz gero hirugarren postuan amaituko dute

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako areto futboleko ohorezko gazteek galdu egin zuten pasa den astean, Manuel Muñozen, Osasunaren aurka (4-10). Intentsitate eta gogo handiz irten zen kantxara etxeko taldea: "Ondo hasi arren, partidua desorekatu egin zen. Epaileak ere lan kaskarra egin zuen, eta partidutik atera gintuen", adierazi du Adrian Garnateok, taldeko bigarren entrenatzaileak.

Hala ere, festa giroa izan zen nagusi kiroldegian. Izan ere, herriko plazatik kalejiran joan ziren hainbat zale partidua ikustera, kirol elkarteko kamisetak jantzita zituztela, eta ia 400 pertsona batu ziren harmailetan, etxeko taldea animatzeko.



Aritz Urzelai baloiarekin. IMANOL SORIANO

### Maiatzean, Euskal Kopa

Liga bukatzeko partidu bakarra geratzen zaie ohorezko gazteei. Tolosarren etxean jokatuko dute, zapatuan, Lauburu taldearen aurka. 16:00etan izango da norgehiagoka, eta berdinketarekin edo garaipenarekin eskoriatzarrek hirugarren postuan amaituko dute txapelketa. Ondoren, Euskal Kopa jokatuko dute, maiatzean. Lehen asteburuan finalerdietako joaneko partidua jokatuko dute Bilbon eta bigarren asteburuan, itzulerakoa. Kanporaketa gaindituz gero, finala Eskoriatzan jokatuko dute, maiatzeko hirugarren aste bukaeran.

### Seniorrek, 'play-off'-ak

Liga amaituta, *play-off*-ak izango dituzte aurretik Eskoriatzako neskek, eta lehenengo partidua Trintxerperen aurka jokatuko dute, maiatzaren 5ean, etxetik kanpo. Hala, irabazten badute, finalaurreko partidua jokatuko dute maiatzaren 12an eta finala, aldiz, maiatzaren 19an izango da.

Geratzen zaizkien partiduak irabaziz gero, Gipuzkoako txapeldun izango dira, baina helburu nagusia hori ez dela adierazi du Ander Romero entrenatzaileak: "Gustatuko litzaiguke, baina urtean zehar egindako lanarekin eta eboluzioarekin geratzen gara".

## Olazar elkarteko erretiratuak Sevillara doaz astebeterako

Olazar Erretiratu Elkartekoek Andaluziara bidaia antolatu dute, eta han daude dagoeneko Eskoriatzako hainbat erretiratu. Guztira, 85 pertsona irten ziren eguazten gauean, 00:00etan, bi autobusetan banatuta, eta hainbat irteera egiteko aprobetxatuko dute.

Sevillako erdigunean egingo dute lo egunero, eta, bertatik abiatuta, hainbat leku bisitatuko dituzte. Esaterako, Kordobara joango dira, Espiel herrira. Izan ere, hango festetara joateko gonbidapena jaso dute; eskoriatzar asko handik etorri ziren, edota familia dute han. Horrez gain, Cadiz ikusteko aukera izango dute...

## Gabez Takarraran lasterketarako izen ematea zabalik dago

Gabez Takarraran gaueko mendi lasterketaren zortzigarren edizioa izango da aurten, ekainaren 9an. Hala, aste honetan ireki dute izen ematea; *Kirolprobak.com* webgune bitartez egin daiteke.

Gazteen eta helduen lasterketez gain, aurten, berritasunak izango ditu lasterketak. Izan ere, batetik, Euskal Herriko koparako puntuagarria izango da, eta, ibilbide bereko probaz gainera, oinez joan nahi dutenentzako ibilaldia egingo dute. Lasterketa 23:00etan hasiko da eta oinezkoen martxa, berriz, 21:00etan. Oinez zein korrikan doazenek, 23,2 kilometro izango dituzte biek ala biek.

## Udaleku irekietan izena emateko epea luzatu dute

Txirikila Aisialdi Elkarteak eta Eskoriatzako Udalak antolatuta, 3 eta 12 urte arteko haurrei zuzendutako udalekuetan izena emateko epea eguaztenean amaitzen zen, baina, herriko hainbat gurasok eskatuta, epea maiatzaren 3ra arte luzatzea erabaki dute.

Uztailaren 3tik 20ra bitartean izango dira udalekuak, eta izenematea honela egin beharko da: Tortolis ludotekara joanda 15:30etik 19:00etara bitartean, edo kultura, 10:00etatik 12:30era bitartean. Harremanetarako, *txirikila@gmail.com* helbide elektronikora idatzi daiteke, edo 688 60 13 74 telefono zenbakira deitu.

# LEINTZ GATZAGA



Eguenean, Eneka Zankadak aginte-makila pasa zion Juan Bengoari. IMANOL BELOKI

## Juan Bengoa izendatu dute Leintz Gatzagako alkate

Eneka Zankadak alkate postua uzteko idatzia aurkeztu zuen atzo egin zuten ohiko osoko bilkuran

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Eneka Zankada Leintz Gatzagako alkateak kargua uzteko idatzia aurkeztu zuen egueneko ohiko osoko bilkuran, eta, kargua uzteaz batera, alkate berria izendatu dute: Juan Bengoa, hain zuzen ere.

Eneka Zankadak 2015ean hartu zuen alkate kargua; Leintz Gatzagako historian lehen emakumea. Agintaldi honetako hiru urte pasa ostean, lan kontuengatik alkatetza utzi behar izan duela adierazi zuen: "Alkatetza utzi arren, zinegotzi moduan jardungo dut hemendik aurrera. Aukera bat sortu zait lanean, eta, zalantzak izan ditudan arren, erabaki hau hartu dut. Hala ere, orain arte moduan lanean jarraituko dugu denok batera, elkarrekin. Izan ere, aurpegia alkateak ematen duen arren, taldean egiten dugu lan udaletxe honetan".

Hori horrela, orain arteko boskote berak jardungo du Udalaren kudeaketan: Eneka Zankadak, Ixidor Salaberrik, Joannes Mendizabalek, Roberto Otazuk eta Juan Bengoak.

### Juan Bengoa, alkate

Juan Bengoak, Leintz Gatzagako alkate berriak, hauxe esan zuen kargua hartu berritan: "Ez zen nire helburua alkate izatea, baina hala izan da. Eneka Zankada izendatu zutenean, hark esan zuenez: 'Alkate, denok gara Gatzagan'. Eta hala jarraitzea espero dut. Hasiera batean, Roberto Otazu izendatu behar genuen, baina hura ere lanpetuta dabil... eta niri tokatu zait. Alkatetzarako laguntza eskatzen dut soilik".

Osoko bilkurari amaiera emateko, aginte-makila eman zion Eneka Zankadak Juan Bengoari, eta talde argazkia atera zuten.

## Martxan dago bake epailea eta ordezkoa aukeratzeko deialdia

Eguaztenean, bake epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko eskaerak aurkezteko epea ireki zuten Leintz Gatzagan. Eskaerak Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira, eta horretarako azken eguna maiatzaren 15a izango da.

Izendapena lau urterako izango da, eta hainbat baldintza bete beharko dituzte eskatzaileek. Hain zuzen ere, eskaerak aurkezteko epea amaiturik, udalbatzak bake epaile titularra eta ordezkoa aukeratuko ditu; betiere, ezarritako legezko betebeharrak betetzen baditu. Eskaerarik ez badago, Leintz Gatzagako udalbatzak modu askean aukeratuko ditu prozeduraren baldintza berekin, eta Euskadiko Justizia Epaitegi Gorenari jakinaraziko dio erabakia. Horren gaineko informazio gehiago *Leintzgatzaga.eus* helbidean jaso daiteke.

# Lorabarri Astea, eguenetik aurrera

Hilaren 12ra bitartean mahai-ingurua, hitzaldiak, tailerrak, ikus-entzunezkoak, irteerak eta azoka izango dira, herriko elkarteek, eskolak eta Udalak antolatuta; Izarkom, Coop57 eta Goiener proiektuei buruzko saioarekin hasiko da egitaraua

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Seigarren edizioa izango du aurtengoa Lorabarri Asteak. Maiatzaren 3an hasiko da, 18:30ean Sastiñan izango den mahai-inguruarekin: Euskal Herriko telekomunikazio operadore kooperatiboa –Izarkom–, aurrezki etikoa bultzatzen duen finantzaketa zerbitzu eredua –Coop57– eta jatorri berriztagarridun energiaren merkaturatzea –Goiener– izango dira hizpide, proiektuotako pertsonekin.

Asteburuurako, berriz, bi irteera daude iragarrita: zapatuan inguruko txoriak ezagutzeko, Mikel Olano basozainarekin –prismatikoak eramatea gomendatzen da–; domekan, ostera, Aramaioko zuhaitz eta basoen berri jasotzeko, guraso elkartearekin batera. Lehenaren hasiera 09:30ean izango da eta bigarrenarena, 09:00etan, parkean.

Bi irteera horien artean, zapatuan, 21:00etan, kultura etxean, *A plastic ocean official* dokumentala emango dute –gazteleraz–: plastikoak eragindako kutsadurari buruzko lana da, eta arazoarentzako irtenbide proposamenak ere jasotzen ditu.

Astelehenean, hilak 7, klima aldaketari eta ekonomiari buruzko hitzaldia izango da, 18:30ean, Sastiñan, Unai Pascualekin –klima aldaketa ikertzen duen BC3 zentroko ikerlaria–.

Martitzenean, berriz, ordu eta leku berean, *Elikagai eta energia autonomia gaztandegian* izeneko hitzaldia egingo du Kerixara gaztandegiko Felix Ajuriak. Beren etxaldean egindako koltza hazien erabilera integralaren berri emango du, eta ekonomia zirkularrean egindako urratsa azalduko. Ondoren, gazta dastaketa izango da.

Maiatzaren 10ean, elikadura kontzienteari buruzko saioa izango da jubilatuen elkartean, 17:00etan, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistarekin, jatea ekintza "soziala" eta "emozionala" ere badelako.

Egitarauko azken egunean Lorabarri azoka egingo da 11:00ak eta 14:00ak artean plazan: Aramaioko barazki zein ogi ekologikoak, artzain gazta, Udalatx mintegi ekologikoa, Nafarroako olio, ardo eta pasta ekologikoak... 21:00etan kultura etxean, azkenik, *Captain fantastic* filma emango dute –gazteleraz–: naturarekin harremanean, bizimodu alternatiboa daraman familia baten istorioa da.

### San Martin eskolako ekintzak

Eskolan ere egingo dute txoriak ezagutzeko ibilaldia, maiatzaren 8an, Roman Martinezekin; hilaren 10ean elikadurari buruz jardungo du Amaia Diaz de Monasterioguren**ek**; eta, biharamunean, ikazkinaren txabola egingo dute, Jon Ugarterekin.



Aurreko edizio bateko azoka. GOIENA

**ASKOTARIKO PRODUKTU EKOLOGIKOAK IZANGO DIRA SALGAI HILAREN 12KO AZOKAN**

## Egitaraua

**Maiatzak 3**
- **18:30** Izarkom, Coop57 eta Goiener, Sastiñan.

**Maiatzak 5**
- **09:30** Txoriak ezagutzera, parketik.
- **21:00** *A plastic ocean official*, kultura etxean.

**Maiatzak 6**
- **09:00** Zuhaitzak ezagutzera, parketik.

**Maiatzak 7**
- **18:30** Hitzaldia: Unai Pascual, Sastiñan.

**Maiatzak 8**
- **18:30** Kerixara gaztandegia, Sastiñan.

**Maiatzak 10**
- **17:00** Amaia Diaz de Monasterioguren, erretiratuen elkartean.

**Maiatzak 12**
- **11:00** Azoka, plazan.
- **21:00** *Captain fantastic*, kultura etxean.



Umeak eta begiraleak, udalekuetan. ARANTZAZU EZKIBEL

# Ume zein begiraleek izena eman dezakete jada udalekuetarako

Umeak 3 eta 12 urte artekoak izango dira, eta begiraleek prestaketa lanak egin beharko dituzte

**J.I.** ARAMAIO

Uztailaren 4tik 20ra izango dira aurten udalekuak, eta maiatzaren 25a baino lehen eman behar da izena bertan begirale lanak egiteko. 09:30etik 13:30erako tartean jarduteko izango da, aipatutako egunetan, eta udalekuen prestaketa lanean ere jardungo dute begiraleek.

Izena emateko ezinbestekoa da 17 urtetik gora izatea, eta baloratuko dira: begirale titulua edo Irakasle ikasketak; EGA; umeekin esperientzia; Aramaiokoa izatea. Soldata 310 euro izango da. Begiraleek formakuntza berezia jasoko dute ekainaren 9an. Interesa dutenentzat: 945-44 53 74; Ana Muñoa, arratsaldez, ludotekan.

### Haurrentzako deia

Udalekuetan parte hartu nahi duten haurrek, berriz, maiatzaren 18ra arte dute izena emateko –eskaera orria eta bankuko agiria ludotekara eramanda–. 60 euro kostako da familiako lehen umearentzat, 40 bigarrenarentzat eta 30 hirugarrenarentzat. 10:00etatik 13:00etara izango da udalekua –auzoetatik autobusa egongo da–.

## Liburutegiko arduradunaren gomendioak

Gomendatutako liburuen zerrendaren bigarren zenbakia kaleratu du liburutegiak: 6 urte arteko haurrentzat gomendatzen dituzte *Moko txiki* eta *Gehiago garenean* lanak; 6 eta 8 urte artekoentzat, *Xomorropoemak eta beste pizti batzuk*; 10 eta 12 urte artekoentzat, *Jessicaren itzala* eta *Waluk* izenburudun komikia; eta helduentzat, *Bihotz handiegia* ipuin sorta eta *La mujer en la ventana* izenburudun eleberri beltza.

Irakurzaletasuna bultzatzea du helburu egitasmo horrek; herritarrak irakurtzera animatu nahi ditu, irakurtzearen alde atsegin eta gozagarria azpimarratuz.

## 'Feldenkrais' ikastaroa egiteko aukera, maiatzean

Mugimendua eta bakoitzarekiko atentzioa erabiltzen dituen ikasteko metodoa da *Feldenkrais*. Zenbait mugimendu sekuentziaren bitartez, bariazio desberdinak aztertuz, gorputz atal desberdinen artean lotura berriak sortzen doaz, mugimendu eraginkor, atsegin, erraz eta osasuntsuagoak lortuz. Ikastaroaren helburuak dira mugimenduen koordinazioa; oreka eta postura hobetzea; giarretako tentsio eta minak gutxitzea; eta baita erlaxatzea ere. Astelehenetan 09:00etatik 10:00etara izango da ikastaroa, kiroldegiko gimnasioan. Izena emateko: 620 60 19 59 (Ainhoa Garaia). Maiatzean hasiko da.




Gaur egungo bake epaile Blanca Mendialdua, udaletxean sartzen –bake epaitegiaren egoitza–. J.I.

# Bake epailea hautatzeko prozedura zabalik dago

Blanca Mendialduak duela bederatzi urte hartu zuen kargua, eta eragozpenik ez du uzteko, beste inork bere burua aurkeztuko balu. Erregistro zibileko zereginak izaten dira ohikoenak, eta adiskidetze saioren bat-edo ere izaten da tarteka-marteka

**Julen Iriondo** ARAMAIO

"Besterik ez badago jarraituko dut, baina ez dut arazorik beste bati lekua uzteko"; Blanca Mendialduaren hitzak dira. Hura da Aramaioko bake epailea 2009a ezkero: "Erretiratu berria nintzen, proposatu zidaten egiteko hori hartzea, eta baietz esan nuen". Udaletxe ondoan bizi da, eta dio ez dela lotura handia astean behin –astelehenetan–, idazkariak datozenean, bertaratu eta karguak eskatzen dituenak egitea: "Gehienetan, erregistro zibilarekin lotutakoak izaten dira: jaiotzak, heriotzak, ezkontzak, abizenak aldatzea… Horietan, sinatzea izaten da".

Tarteka, noiz edo noiz, izaten da bestelakoren bat, adiskidetze saioren bat edo… "Horrelakoetan, gure lana ez da izaten epaitzea; inplikatutako aldeak iritsi behar dira adostasunera, eta guk egiten dugun bakarra da adostasun horri izaera ofiziala ematea". Hauteskundeetan emaitzak Gasteiza, epaitegira, eramatea ere bake epailearen egitekoa izaten da.

Bake epaile izateko ez omen da behar ezagupen edo prestaketa berezirik; lehen, formakuntza saio bat egiten zen, baina, "krisiarekin", hori ere kendu zuten. Betekizun hau betetzeagatik jasotzen duen diru kopurua ere bera ei da azken bederatzi urteotan, ez omen da aldatu: 1.000 euro urtean. Baina dio balitekeela herrian egotea egiteko horien truke diru sarrera hori lortzea ondo etor dakiokeen lagunik, eta animatzen du aurkeztera.

**Aukeraketa, udalbatzak**

Udalbatzari dagokio hautatzea udalerriko bake epaile titularra eta ordezko izango diren pertsonak. Kasu honetan, Aramaioko bake epaile izateko interesa duten pertsonek lehen bait lehen jo behar lukete udaleko erregistro orokorrera instantzia aurkeztera, ediktua Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzetik hamabost egun baliodunek o epea baitago horretarako. Legezko baldintzak betetzen dituzten interesdunek honako agiri hauek ere erantsi behar dizkiote instantziari: nortasun agiriaren fotokopia; erantzukizunpeko aitorpen bat, adierazten duena kargua betetzeko baldintza guztiak betetzen dituela hautagaiak; memoria laburra, non argudiatuko den hautagaiaren egokitasuna.

Udalak hautagaitza aurkezten dutenei zuzenean jakinaraziko die zeintzuk diren kargu hori betetzeko ezinbesteko baldintzak eta ezin betetzeko ezgaitasun eta bateraezintasunak. Bake epaile kargua lau urterako izaten da.

**URTEAN 1.000 EURO JASOTZEN DITU LAN HORI EGITEKO ARDURA BERE GAIN HARTZEN DUEN PERTSONAK**



NIRE USTEZ

**ANDONI ELEJALDE**

## Txaloak eta txistuak

Kaixo, berriz; mila esker hurbildu zaretenoi irakurtzen nauzuela esaten. Marihuana gai bezala. Gure egunerokotasunean dugun errealitatea, guztiok noizbait inguruan izan duguna, ustez, txartzat daukagu eta datuek horrela diote; bihotzekoak, minbizia, buru-galtzea… Eta kontsumitzen jarraitzen da. Nire ustez, bizio soila ez ezik, beste ezer bada. Izan ere, jakin badakigu: marihuanak, landarea izatez, propietate medizinalak ditu, nahiz eta ematen den erabilera desegokia izan. Erregaia erretzean, substantzia kaltegarriak sortzen ditu eta erretzaileak arnastu egiten ditu. Horregatik da txarra; hala ere, alde positiboa ikusi diot, lasaitasunean etzanda egonda, gorputzak esan eta egiten duena ondo ulertzen laguntzen du. Baita ere, erre gabe egonda burua ulertzera heltzen ez den gauzak konprenitzeko eta aztertzeko gai da erre ostean, nahiz eta hausnarketa bat-batean desagertu daitekeen. Laburbilduz, gure gorputza hobeto ulertzen eta perspektiba zabalagoa izaten laguntzen duela uste dut. Gogoratu, kontsumo arduratsua.

## Gure Esku Dagoren mahaia, giza katerako izena emateko

Barikuro jarriko dute herriko Gure Esku Dagoko lantaldekoek mahaia, ekainaren 10eko giza katerako izena emateko. 19:30etik 20:30era okindegi aurrean egongo dira. Gainera, Lorabarri Asteko azokan –maiatzaren 12an– ere jarriko dute, eta, ziurrenik, maiatzaren 25ean Eguzkierripa rock jaialdian ere bai, gauez –Internetez ere eman daiteke–.

Ekaineko giza katean Gopegira joatea dagokie aramaioarrei, bertan kilometro bat osatzeko. 250 lagun behar dira horretarako. Asmoa da Aramaiotik autobusean joatea Gopegira; bi txartel mota egongo dira: egun erdikoa, Gopegira joan, giza katean parte hartu eta bueltа –7 euro–; eta egun osokoa, Gasteizko jaialdira joanda –10 euro–. Bestetik, Herritarren Itunerako erabakitzearen aldeko arrazoiak *gureeskudagoaramaio@gmail.com* helbidera bidal daitezke.



GOIENA

## Bertso eskolen arteko saioak

Aramaioko bertso eskolakoak Irunen izan ziren asteburuan, Bertsotruk ekimenaren barruan Txingudiko bertsolariekin kantuan. Poteoa izan zen aurrena, eta afaria ondoren, eta zaleek harrera bikaina egin zioten saioari. Maiatzaren 5ean, bestetik, Aramaioko eta Mungiako bertso eskolen arteko desafioa izango da, Marixekan. Afarirako izena emateko: 688 62 70 89.



Mizpirualde Diputazioak kudeatzen duen arren, etxez etxeko zerbitzua Udalaren eskumena izango da aurrerantzean. JOKIN BEREZIARTUA

# Etxez etxeko zerbitzuaren ardura hartuko du Udalak

EH Bilduren eta Irabaziren abstentzioarekin onartu du udalbatzak Diputazioarekin etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko hitzarmena; Mizpirualdera igotzeko kaleko zoruak ere zeresana eman zuen osoko bilkuran: "Asfaltatu egin da, ez hormigonatu", dio alkateak

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Euren kabuz baliatzeko zailtasunak dituzten pertsonei zuzendutako etxez etxeko zerbitzua Udalaren eskumena izango da aurrerantzean, Mizpirualde egoitza Diputazioaren Kabia erakundeak kudeatzen duen arren. Hain justu, aurrera begirako zerbitzu horren finantziazioak eragin zuen eztabaida asteleheneko osoko bilkuran. "300.000 euro inguru bideratzen zituen Udalak urtero Mizpirualdera; gaur egun ez dugu diru hori bideratzen, baina konpromisoa hartzen dugu, neurri baten, behintzat, etxez etxeko zerbitzuaz arduratzeko", adierazi zuen Elena Lete alkateak.

Gobernuaren proposamenaren aurrean, EH Bildu eta Irabazi abstenitu egin ziren. "Datozen urteotan zerbitzu horri aurre egingo zaio, baina ez dago bermatuta udalok –ez delako bakarrik Bergarakoaren arazoa– eskumen horri diruz aurre egin ahalko diogun. Eskumen berri bat dugu, baina ez dugu finantziazio berririk; horregatik, herren ikusten genuen", deritzo EH Bilduko Agurne Barrusok.

## Mizpildi kaleko zorua ere hizpide

Bestalde, galderen eta eskaeren tartean, EH Bilduk zalantza plazaratu zuen. "Bidekurutzetan oinezkoen eta autoen arteko elkarbizitzarako lurrari tratamendu bat eman zitzaion eta orduan alkateak esan zuen tratamendu horrek ez zuela alde zaharreko plana errespetatzen; gero konturatu gara Komenioko aldapan tratamendu bera eman zaiola", dio Agurne Barrusok. Alkateak, berriz, beste ikuspegi bat dauka: "Mizpirualdeko asebetetze inkestetan, urtero-urtero azaltzen zen Mizpildi kalearen egoera oso eskasa zela eta horregatik bideratu dugu asfaltatze prozesu bat; eta ez hormigonatzea, Bidekurutzetan egin den moduan".

Amaitzeko, Irabazik lan prekarietateari aurre egiteko eta Bigarren Errepublikaren aldeko mozio bana aurkeztu zuen; gobernua bietan abstenitu egin zen. "Mozioa aurreko eguenean erregistratu eta aldaketa proposamenak bilkura baino bost ordu lehenago heldu zaizkigu; ez daukagu liberaziorik azken orduan aldaketok begiratzeko. Guk ezin dugu gehiago egin", dio Aiert Lizarraldek.



# Udalekuen prezioak gora aurten: 16 zentimo orduko

Aurtengoak iazko tarifak baino "nabarmen" garestiagoak direla-eta kexatu egin dira zenbait guraso; Euskara zinegotzi Izaskun Labaienek dio iaz Udalak 88 euro ordaindu behar izan zuela umeko, gastu osoaren erdia: "Igoera ez da hain nabarmena", uste du

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Udalak eta Jardunek antolatzen dituzten udaleku irekien prezioek zeresana eman dute herriko guraso batzuen artean. Seme-alaba bat baino gehiago apuntatzeko asmoz dabiltzanak, bereziki, kexu dira, tarifak "nabarmen" igo direla iritzita: "Iaz bi ume apuntatuta ordaindu beharrekoa ez zen 128 eurora heltzen eta aurten, berriz, 200 euro ordaindu behar da". Bergaran hiru edo lau asteko udalekuak daude: 2017an hiru astekoaren prezioa 50,50 eurokoa zen –aurten 75 eurokoa da– eta lau astekoarena, berriz, 67,30 eurokoa –aurten 100 eurokoa da–. Horrez gain, aurten bigarren ume bat apuntatzeagatik ez dago deskonturik; iaz %20koa zen.

**"Oso gustura" Jardunekin**

Euskara zinegotzi Izaskun Labaienek honelaxe azaldu du aldaketa: "Igoera da orduko 16 zentimokoa, ez da igoera hain nabarmena. Arrasaten, adibidez, hiru asteko udalekuen prezioa 103 eurokoa da; hau da, Bergaran lau asterengatik kobratuko duguna [100 euro ume bakoitzagatik] Arrasaten hiru asterengatik ordaindu beharrekoa [103 euro] baino merkeagoa da".

Deskonturik zergatik aplikatuko ez den galdetuta, honako hau erantzun du Labaienek: "Aldaketa egin da iaz Udalak ume bakoitzagatik 88,4 euro ordaindu behar izan zuelako, gastu osoaren erdia. [...] Arrasaten eta Eskoriatzan ez dago deskonturik; Oñatin badago, baina hirugarren umeak ordaintzen jarraitzen du. Bergaran, lehen bi seme-alabengatik berdin kobratuko dugu eta hortik aurrerakoak doan izango dira". Iaz 525 ume izan ziren eta aurten antzeko kopurua izatea espero dute: "Gurasoak, orokorrean, konforme daude eta Udala oso gustura dago Jardunek egiten duen lanarekin". Maiatzaren 11ra arte eman ahalko da izena; *www.bergara.eus* webgunean, udalekuen atalean.

# Elorregik eta Labegaraietak jai giroan ospatuko dute zubia

Makalaren igoera egingo dute Elorregin; Labegaraietan, erraldoien kalejira izango da lehen aldiz, martitzenean

**J.B.** BERGARA

Joan den asteburuan Auzuen Arteko Eguna ospatu zen Uberan (ikus 44. orria), eta datozen egunotan jaiak ospatuko dituzte Elorregin eta Labegaraietan. Elorregin gaur hasi eta domekara arteko egitaraua prestatu dute. Gaur, San Prudentzio bezpera, plaza, eliz ataria eta ingurua auzolanean garbitzeko eta apaintzeko elkartuko dira (16:00); makalaren igoera eta suziri jaurtiketa (18:00) eta lagun arteko afari "umoretsua" egingo dituzte (20:00).

Bihar, San Prudentzio eguna, meza (13:00) izango da; bertsolarien eta trikitilarien laguntzaren bazkaria Alkartasuna elkartean (14:00); eta erromeria (22:30). Domekan, Alai taldeak girotutako meza nagusia (10:30) eta ondoren pilota partidua egongo dira, jarekin eta edanarekin.

**Erraldoien lehena Labegaraietan**

Elorregiko jaiei lekukoa hartuko die astelehenean Labegaraietak. Hilaren 30ean, suziri jaurtiketa izango da; kroserako izen-ematea (16:30); heldu zein umeendako hirugarren auzo krosa (17:00); umeendako jolasak (18:30); dantzaldia DJ Julen Narbaizarekin (20:00); eta ogitartekoafaria kiroldegian –aukera egongo da kiroldegiko tabernan eskatzeko, bezperan– (21:00). Astelehenean, txistulari bandarekin diana izango da (10:00); meza nagusia San Joxepeko abesbatzarekin –ondoren salda eta txorizoa egongo dira– (11:00); auzo poteoa (13:00); Potx magoaren ikuskizuna kiroldegiko karpan (17:00); eta Bergarako erraldoiak –ondoren, txokolate-jana eta buruhandiak– (18:00). Erraldoien lehen erakustaldia izango da Labegaraietako jaietan.





Berdintasunerako zuzendari Miren Elgarresta, Angiozarren, egitasmoaren nondik norakoak azaltzen. XABI URZELAI

# Landa eremuan generoak izan duen eragina aztergai

Diputazioko Lurralde Oreka eta Gizon zein Emakumeen Berdintasunerako zuzendariak Angiozarren izan ziren martitzenean, landa eremuaren eta hiriaren arteko aldeak zeintzuk diren aztertzeko, genero ikuspegitik: "Politika publiko zehatzak jarriko ditugu martxan"

**X.U. / J.B.** BERGARA

Diputazioko ordezkariek Angiozarko bailara aukeratu zuten, martitzenean, Gipuzkoako landa giroko herrietan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun sozioekonomikoak zeintzuk diren azaltzeko. Ikerketa baten bidez jaso dituzte datuok, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako zuzendari Miren Elgarrestak azaldu zuen hemen bizi izan den industrializazio prozesuak zein eragin izan duen horretan.

Hain justu, gizonak industria munduko zereginetara eta emakumeak etxeko lanetara bideratzen zituen ereduak ze eragin izan duen aztertu gura dute: "Iniziatiba hau sortu da lurralde orekaren eta berdintasun zuzendaritzaren artean eta aztertu nahi dugu genero rolak zer-nolako eragina duen herri txiki hauetan. Horrez gain, ziurtatu nahi dugu ea ezberdintasunik dagoen herri txikien eta handien artean, genero rolaren ikuspegitik". Angiozarkoa hirugarren saioa izan zen, eta, guztira, bost egingo dituzte Gipuzkoan barrena: "Prozesu honek emango dituen ondorioak partekatu egingo ditugu, dagozkien ordezkari politikoekin zein sozialekin".

**Gipuzkoarren %20, landa giroan**

Diputazioko ordezkariek zehaztu dutenez, Gipuzkoan landa girokotzat jotzen den geografiak 120.000 biztanle hartzen ditu. Hau da, biztanleriaren %20 landa giroko herri eta auzoetan bizi da. Eta egungo argazki sozioekonomikoak azken 60 urteetako ibilbidearen ondorioak ageri ditu. Ikerketa egin eta eragile ezberdinei aurkeztea bakarrik ez, pauso bat aurrera egin gura du Aldundiak. "Asmoa da azterketa horren ondoren argibide batzuk jasotzea eta herri txiki hauetan benetan dauzkagun ezberdintasunak eta horiek eragiten dituzten faktoreak identifikatzea". Faktore horiek ondo identifikatu eta horietan eragitea da helburuetako bat: "Bide batez, politika publiko zehatzak martxan jarri gura ditugu gure lurraldearen orekaren mesederako eta Gipuzkoa osoko kohesio sozialerako".

**GIZONAK INDUSTRIARA ETA EMAKUMEAK ETXEKO LANETARA BIDERATU DITUEN EREDUA DA IKERGAIA**

**Debagoieneko ordezkaritza zabala**

Elgarrestarekin batera, Lurralde Orekako zuzendari Iñaki Labaka etorri zen Diputaziotik. Eta, ekimena bertatik bertara ezagutzeko, ordezkaritza politikorik ez zen falta izan; Angiozarko alkate Jose Angel Mikeoz gain, Bergarako, Arrasateko, Aretxabaletako eta Antzuolako ordezkari politikoak bertan egon ziren, eta baita, besteak beste, Bergarako Berdintasun teknikari Ilargi Etxebarria.



NIRE USTEZ

**PEDRO GARITANO**

## Bertuteak

Gizakiok bertuteak dauzkagu, adimen eta giza bertuteak, bertute kardinalak esaten zaien horiexek. Platonek aipatzen ditu *Errepublika*-n: zuhurtzia, justizia, sendotasuna eta neurritasuna, eta adierazten du justizia dela beste guztiak batzen dituena. Lau bertuteak dira Santa Marinako erretaularen goialdean irudikatuta daudenak, oso ederrak izanda ere, jendeak ezagutzen ez dituenak. Ostera, elizatik irten eta metro gutxira, harritzar zatar bat dago, urteetan, monolito itxurarekin, 1509. urtean Bergarako lurretan jaiotako konkistatzaile baten omenez. Konkistatzaile hau ez zen ezaguna egin, hain zuzen, justiziaren bertutearen jabe izateagatik, baizik eta "Paraguai birpopulatu zuelako, paraguaitarren baimenik barik". Harritzar hori, justiziaren antitesia da, gizateriak justizia be2harrezko duenean.

Kontua ez da epaitegiaren gainean dagoen Marcial Agirre bergararrak egindako eskultura handia imitatzea, baina, harritzarraren ordez, askoz ere koherenteago izango litzateke justiziaren alegoria bat, lorategi eder bat… Edo ezer ere ez, besterik barik. Azken aukera hori da nire hautua.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

## Agirreko hondakinen gunea, "negargarri"

Herritar batek dio Agirre auzoko hondakinen gunea "negargarri" egon dela, gainezka eta hesiak apurtuta. "Arduraz" jokatzeko eskatu die herritarrei; eta erakundeei, berriz, "neurriak" hartzeko.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

## Ekainean hasiko dira Boluko frontoia estaltzeko lanak

Goitu Eraikuntzak enpresari esleitu zaizkio lanak, 286.079 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne). Udalaren arabera, obrak ekainean hasiko dira eta bost hilabete inguru iraungo dute. Frontoiari estalkia jartzea eta mugikortasunerako zailtasunak dituztenen irisgarritasuna bermatzeko igogailu bat egokitzea izango dira lan nagusiak.

OHARRAK

### 1949an jaiotakoak

Maiatzaren 5ean Zabala jatetxean bazkalduko dute. 60 euroko ordainketa egin behar da parte hartzeko, apirilaren 30a baino lehen: 3035 0009 19 0091152341 (Laboral Kutxa).

### Hitzaldia: Katxalin

Elkarteko Mabel Arcienagak hitzaldia emango du gaur Donostiako Tabakaleran (17:30): *Animal doméstico o salvavidas.*

# Kirolean berdintasunik eza gainditzeko bultzada

Bergara Hiria emakumezkoen kirol txapelketak antolatu dira urtea amaitu bitartean, eta asmoa da datozen urteetan ekimenarekin jarraitzea; sei elkarte batu dira lehen urte honetan: pilota, hockeya, ziklismoa, saskibaloia, eskubaloia eta futbola

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Kirola da gaur egungo berdintasunik ezaren adierazgarri garbietako bat, 2018an oraindik ere alde handiak daude-eta gizonezko eta emakumezko kirolarien artean hainbat esparrutan. Bada, arrakala hori ahalik eta gehien txikitzen laguntzeko, Udalak Bergara Hiria emakumezkoen kirol txapelketak antolatu ditu aurten.


Sei kirol elkarteetako eta Udaleko ordezkariak eguazten arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

**Kirol elkarteen "erantzun bikaina"**

Bergarako hiribilduaren 750. urteurrena hartu dute ekimena martxan jartzeko aitzakia moduan, baina datozen bost urteetan egitasmoarekin jarraitzeko konpromisoa ere hartu dute, berdintasun erreala epe luzerako erronka izango dela sinetsita: "Herritarrekin egindako bilera batean bururatu zitzaigun desoreka historiko horri aurre egitea eta gure aletxoa jartzea berdintasun errealaren bidean. Elkarteen partetik erantzun bikaina jaso genuen eta sei talde konprometitu dira ekimenarekin; mila esker zuen lanagatik eta prestutasunagatik", adierazi zuen eguazten arratsaldeko aurkezpenean Elena Lete alkateak.

Pilota, saskibaloia, eskubaloia, futbola, ziklismoa eta hockeya izango dira lehen urte honetako protagonistak. Pilota sailak, Reyes Azkoitiak azaldu zuenez, mutilen txapelketen antzekoa egiten saiatu dira. Promes eta nagusi mailetan lehiatuko dira neskak, maila bakoitzean hiru bikoterekin; lehen final-laurdenak apirilaren 29an eta maiatzaren 6an izango dira; finalerdiak, berriz, maiatzaren 13an. Finala maiatzaren 21ean jokatuko da, jaietako astelehena: "Domekan egin nahi genuen, baina, frontoia ez dagoenez libre, mutilekin batera jokatu beharko dute".

**Denetarik urtea bukatu bitartean**

Burdinola irristaketa klubak ere hartuko du parte. Ekaineko lehen asteburuan emakumeen hockeya izango da protagonista Labegaraietan. Ekainaren 2an, Bilboko, Mirandako eta Bergarako taldeen arteko neurketak jokatuko dira eta ekainaren 3an, hiruko txapelketak, hockeya ezagutu gura duenari zabalik. Lokatza Ziklismo Eskolak ere ez du hutsik egingo; iaz lehen aldiz antolatutako San Martzialgo nesken kronoigoerari jarraipena emango diote. "Proba ikusgarria da, herrian osoa maitatua den igoera bat. Badaramatzagu urte batzuk emakumeen alde lan egiten, eta urte berezi honetan halako ekimen bat antolatuko zela jakitean asko poztu ginen", esan zuen Lokatzako Jon Unamunok. Ekainaren 15ean izango da, 18:30ean.

Saskibaloi sailak irailaren 14rako edo 22rako prestatu du Bergara Hiria barruko txapelketa. Beteranoendako partidu bat eta emakumezkoen elite mailako IDK taldea etorriko da Bergarara. Eskubaloi saileko arduradun Josetxo Muniategik aurreratu zuen abenduko zubian Akitaniako, Gipuzkoako eta bailarako selekzioen arteko hiruko txapelketa jokatuko dela Labegaraietan. "Neska kopuruan gorakada nabarmena izan dugu azken urteetan; halako ekintza erreferente bat izatea aberasgarria izango da", gaineratu zuen.

Azkenik, futbol sailak infantil eta senior mailetako txapelketa bana antolatu du irailaren 1erako edo 8rako; infantil mailan zortzi talde egongo dira eta senior mailan, lau talde.


**REYES AZKOITIA**
PILOTA SAILA

"Ilusio handia egin dit ekimenak, ikaragarria da emakumeen txapelketa bat herrian antolatzea; hori bai, arazoak izan ditzakegu, neska gutxi dago eta."


**MARIAN MELLADO**
SASKIBALOI SAILA

"Saskibaloi klubean ditugun nesken eta mutilen kopurua antzerakoa izaten da urtero; badaude urteak, gainera, neska gehiago izaten ditugula".


**EIDER LETE**
BURDINOLA IRRISTAKETA TALDEA

"Hockeya ez da batera ezaguna gure bailaran eta ezagutarazteko asmoz gabiltza. Proposamena asko gustatu zaigu, neska asko hasi dira-eta gurekin lanean".


**GARBIÑE ELORZA**
FUTBOL SAILA

"Proposamena oso ondo jaso genuen; are gehiago, jakinda azken urteetan bereziki emakumeen taldeak sustatzen ari garela gure elkartean".

## Dorletako Ama, bikain Bergaran

JMA-Dorletako Ama taldekoek goraipatzeko lana egin zuten asteburuan Bergaran. Alebin mailan, Ainhize Lopez de Aretxabaleta izan zen lehena eta infantil mailan –argazkian– helmugaratzen lehena taldeko Gari Arexolaleiba izan zen. Maila berean, bigarrena Ane Sologaistoa izan zen; Lokatza Ziklismo Eskolak hirugarren postua ere lortu zuen infantil mailan.



JMA-DORLETAKO AMA

## 10.000 euro lortu gura ditu BKEko futbol sailak Aspanogirentzat

Gabonetako zozketako bigarren saria –bizikleta elektriko tolesgarria– saridun gabe geratu ostean, BKEko futbol saileko ordezkariak ekimen solidario baten murgiltzea hasi ziren pentsatzen eta elkartea aukeratzerakoan ez zuten zalantzarik izan: "Horren gertu bizi izan dugun kasuaren ondoren –kadete mailako Xabi Azkargortak minbizia gaindituberri du–, Aspanogi elkarteari laguntzea erabaki genuen", adierazi zuten atzo arratsaldean Lasa jatetxean egindako agerraldian. "Erronka handia" zehaztu dute, 10.000 euro lortu gura dituzte eta; txartelak salgai daude Agorrosingo kantinan, Bule eta Depor tabernetan eta Travel Brand, Multiopticas, Jo'ka, Igaro eta Lonbide dendetan, euro baten. Bizikletaz gain, lau lagunendako bazkari bat Lasan eta klubeko materiala zozketatuko da ekainaren 23an, Mahonero Egunean.



Domekan parte hartu zuten dantzariak, euren umeekin, talde argazkian. IBON UNAMUNO

# Berriro ere dantzan jarri dituzte gorputzak

25. Dantzari Eguna ospatu zuten zapatuan Arrasaten, eta egunerako propio elkartu ziren Xamatz dantza taldeko kideak. 12 urte dira dantza egiteari utzi ziotela; zapatuan aspaldiko lagunekin egoteko aukera izan zuten, hortaz, dantzari bergararrek

**Arantzazu Ezkibel** BERGARA

Xamatz dantza taldeko kideak garai bateko ohiturak berreskuratu, eta alpargatak jantzita dantzan ibili ziren zapatuan. Dantzari Eguna ospatu zuten Arrasaten; aurten, 25. aldiz, gainera. Hori dela eta, eguna ospatzeko gonbidapena jaso zuten Xamatz dantza taldeko kideek: "Gonbidapenak harrera ona izan zuen gure artean, eta parte hartzeko prest agertu ginen", azaldu du Ibon Unamunok, dantza taldeko kideak.

### Hogei bat lagun elkartu ziren

Zapatuko ekitaldirako hogei bat dantzari ohi elkartu ziren. "Hilabete lehenago hasi ginen entseguak egiten. Taldeko hainbat kide erraldoi taldekoak direnez, euren lokalean eta baita musika eskolan ere utzi digute entseatzeko lekua", dio Unamunok.

Alardea egin zuten goizean Jose Maria Arizmendiarrieta plazan: Xamatz dantza taldeko kideek gainerakoen txalo zaparrada jaso zuten kalejira osteko aurkezpenean. Bergararrez gain, Eskoriatzako Gorosarri dantza taldeko kideak ere egunerako propio elkartu ziren.

### Garai bateko lagunak

"Oso gustura" ibili zirela azaldu du Unamunok: "Garai bateko ohiturak gogora ekartzeko balio izan zigun, eta baita aspaldiko lagunak ikusteko ere. Izan ere, 25. urteurrena izanda, beste herrietako taldeetako dantzari ohiak ere elkartu ziren".

Egun bakarrerako elkartu diren edo ekitaldi gehiagotan dantza egingo duten galdetuta, Unamunok dio hurrengo ekitaldia ekainaren 29an izango dutela: "Bergararen 750. urteurreneko ospakizun jaialdian parte hartzeko gonbidatu gaituzte".

**HURRENGO EKITALDIA EKAINAREN 29AN IZANGO DUTE, 750. URTEURRENAREN HARIRA**

### San Martzialen, soka dantza

Xamatz dantza taldeak orain dela hamabi urte laga zion dantza egiteari. "Dantza taldean ez zegoen gazte jenderik; umeak zeuden, eta gu, nagusiak, baina erdiko belaunaldia falta zen", esan du Unamunok. Eurek eramaten zuten taldearen ardura, eta Javier Mendizabal *Surra*-ren laguntza izaten zuten. Gaur egun, taldeko hainbat mutilek San Martzial egunean soka dantza egiten dute. Neskek, aldiz, ez dute dantzarekin jarraitu. "San Martzial eguneko dantza egiten dugu, eta orain dela hiru bat urtera arte Inauterietako sorgin dantza ere egin izan dugu", azaldu du Unamunok.

Egun, Bergaran, Moises Aspiazu dantza taldeak trikiti doinuak dantzatzen ditu, eta Musika Eskolan dantza modernoagoak egiteko aukera dute herriko gaztetxoek.

# "Habia apurtuekin, naturarekiko dudan kezka azaldu nahi dut"

**DANIEL LASKURAIN** ARTISTA

Bergararrak erakusketa zabalduko du gaur, Aroztegin

**A.E.** BERGARA

*Kabiak* erakusketa Aroztegin egongo da ikusgai maiatzaren 13ra arte. Artista bergararra "pozik" dago herrian erakutsi behar duelako.



Laskurain. IMANOL SORIANO

**Zer ipiniko duzu ikusgai?**

Habiak jarriko ditut; 100 bat habia izango dira, guztiak ezberdinak. Marrazkiak, eskulturak, argazkiak... dira. Erabilitako materiala birziklatua da, edo aurkitutako egur zatiak... Gainera, habiak apurtuta daude, edo erreta... Hau da, metafora moduan erabili ditut: adierazi nahi dut zein egoeratan dagoen natura.

**Naturarekiko daukazun kezka azaldu nahi duzu?**

Habiak egoera kaskarrean daude. Horregatik, metafora moduan erabili ditut: ikus dezagun natura nola zaintzen dugun. Natura zein egoeratan dagoen hausnartu, eta hainbat txori espezie zergatik desagertzen ari diren pentsatzeko.

**Noiztik lantzen duzu gai hau?**

Orain dela bost urte hasi nintzen gai hau lantzen. Orduan, beste proiektu batzuk ere banituen esku artean. Egun, beste proiektuak bukatuta ditut eta gai honekin bakarrik nabil.

**Zergatik ematen diozu horrelako garrantzia?**

Gai honekin gustura nabil: batetik, artista plastiko moduan hainbat materialekin lan egiten nabilelako; bestetik, nire kezka adierazten dut. Zer egiten ari gara munduarekin? Hainbat habia hutsik daude. Zergatik daude hutsik, non daude txoriak? Hala ere, irakurketa bat baino gehiago egon daitezke erakusketaren gainean. Siriako etxe bonbardatuak ematen dutela ere esan didate.

**Gaur izango da erakusketaren inaugurazioa. Han izango zara?**

Bai, Aroztegin egongo naiz, eta hala eskatzen didatenei azalpenak emango dizkiet. Herritarrak gonbidatu nahi ditut erakusketa ikustera.

**Berezia da, zuretako, erakusketa Aroztegin jartzea?**

Bai, norberaren herrian jartzea erakusketa berezia izaten da. Egun, ni ez naiz Bergaran bizi, baina aste bukaera guztietan joaten naiz herrira. Bergaran artearekiko eta, bereziki, pinturarekiko giro berezia dago; gainera, Aroztegi aretoa oso ondo dago.

## Antzerki tailerra egingo dute, doan, kartzela zaharrean

*Antzerki aste bukaera* egingo dute gaur eta bihar gaztetxean. Bi antzezlan eskainiko dituzte, eta baita antzerki tailerra ere. Ikastaroa bihar, zapatua, izango da, doan, 17:00etan –2-3 ordukoa eta gazteleraz–. Antzezlanak izango dira: gaur, barikua, *Manipulados*; eta bihar, zapatua, *Nudos*. Biak ere, 22:30ean eta 4 euroren truke.

## Markeliñe taldeak 'Euria' antzezlana eskainiko du

Haurrendako antzezlana izango da Markeliñek aurkeztuko duena: bihar, zapatua, izango da, 18:00etan, Seminarixoan. 50 minutuko iraupena izango du, eta 4 euro kostako da. Aterki bat aitzakia hartuta, galeren gaia landuko du antzezlanak. Galera txiki zein handiak baretzeko hartu beharreko denboraz jardungo dute.

# "Guregatik lan egin dute; orain, guri tokatzen zaigu"

**IBAI ZABALO** ANTZUOLAKO KIROL ELKARTEKO KIDEA

Bizitzaren zati handi bat Antzuolako Kirol Elkarteari eskaini dio Ibai Zabalok. Futbol taldearen egoeraz eta klubaren 25. urteurrenaz berba egin du GOIENArekin

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Ibai Zabalo antzuolarra gaztea den arren –27 urte–, oraindik futbolaren esparruan zeresana emateko ilusioz dago. Antzuolako taldeko jokalari beteranoetako bat da eta hura da kapitaina. Baina AKEko zuzendaritzan ere badihardu lanean, eta gazteen entrenatzailea da.


Ibai Zabalo, Eztala futbol zelaian. MAIDER ARREGI

**Zer moduz dago talde nagusia une honetan?**

Azken partidu garrantzitsuak jokatzen ari gara, eta, oraingoz, emaitza onak lortu ditugu; pozik gaude, gure helburua mailari eustea da eta. Azken jardunaldira arte, behintzat, gogor borrokatuko gara, kategoriari eusteko asmoz.

**Aldaketak izan dituzue taldean; gabezia hori igarri da?**

Partiduetan, gazte mailatik igo diren jokalari gazteen laguntza izan dugu eta emaitza txukunak lortu ditugu. Hiru talde gaude puntu berekin eta denok borrokan gaude mailari eusteko.

**Asteburuan, baina, partidu gogorra duzue, Beasainen aurka.**

Bai, oso ondo jokatzen duten gazteak dira eta partidu gogorra izango da.

**Bizitzaren zati handi bat futbolari eskaini diozu. Nola bizi izan duzu kategoria galdu eta igo izana?**

Beti Antzuolan ibili naiz futbolean. Herrian jokatu izan dut eta poztasunak eta sufrimenduak herrian gehiago bizitzen dira. Gainera, herrian dagoen zaletasuna igarri egiten da.

**Azken urteetan bistaratu den olatu gorri horren babesa beti izan duzue, beraz, herrian.**

Bai. Gainera, jende asko mugitzen da partiduak ikustera. Berotasun hori asko eskertzen da.

**Zuzendaritzako kide, gazteen entrenatzaile, jokalari... nola moldatzen zara denera iristeko?**

Borondate-lan handia dago atzean, baina garbi dudana da guregatik ere lan egin izan dutela eta geuk ere egin beharra

### "AKE EGUNA EKAINEAN OSPATUKO DUGU ETA HERRIARI ZABALDUTAKO JAIA IZANGO DA"

daukagula taldeak aurrera jarrai dezan. Beste batzuengatik ematea tokatzen zaigu. Belaunaldi aldaketa gertatzen ari da pixkanaka. Jendean ohartzen da beste batzuek jokatu ahal izateko egin beharra dagoenaz, eta jendea kontziente izaten ari da. Orduan azaleratzen da taldearen alde lan egiteko borondatea.

**Futbol eskolari esker, herriari zabaldu zaio futbola, eta kirol honek batzen dituen balioak.**

Bai. Iaz abiatu genuen futbol eskola, eta egun, 65 neska-mutiko dabiltza. AKE eguna ere herrira zabaldu genuen, eta orduan ikusi genuen batzen den herritarren kopurua handia dela. Kirola egitea eta lantalde gisa funtzionatzea dira gaztetxoekin lortu gura ditugun helburuak. Lagun talde bat gara, baina helburu beragatik ere borrokatzen gara; batez ere, goiko kategorietan. Lehiakortasuna ere hor dago, baina talde lana ere badago, noski.

**Aurten ere egingo duzue AKE eguna? Herriari zabalduta izango da?**

Bai; batez ere, iazko esperientzia ona eta parte hartze handia ikusita. Herri bazkaria egingo dugu, bai futbol taldeetako kideekin, futbol eskolako gaztetxoekin eta baita ere etorri gura duten herritarrekin ere. Ekainaren 9an izango da aurtengo AKE eguna.

**Aurten, udazkenean, gainera, 25 urte beteko ditu futbol taldeak.**

Hori da. Antzuola moduko herri txiki batendako, 25 urtean lan egitea asko da, pozik ospatuko ditugu. Zailtasunak ere asko izan dira eta! Baina beste horrenbeste betetzen baditugu, lanak ondo egin ditugun seinale izango da.

**Aurten ez duzu titular jokatu. Futbol jokalari jarraituko duzu?**

Bai; denon beharra dago taldean. Iaz, partidu guztietan titular jokatu nuen; aurten berriz, belauna hautsita izan dudalako, gutxi jokatu dut. Baina futbola lagatzeko asmorik ez daukat eta disfrutatzen jarraitzeko asmoa daukat.



NIRE USTEZ

**AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ** AMAIARAMI@HOTMAIL.COM

## Hesiak

Bada pertsona berde, zuri, more edo arrosak errespetatu behar direla esan, baina azal kolore ilunagoa duen batekin gurutzatzean, eskua poltsikoan sartzen duenik.

Bada balkoian *Ongi etorri errefuxiatuak* jartzen duen banderatxo horia izan, baina aurkako jarrera azaltzen duenik.

Bada elkarbizitza positiboaren alde egiten duen euskaldun super iraultzailerik, baina behar denean bizkarra ematen duenik.

Bada euskara aniztasunaren baitan integraziorako tresna izan daitekeela esan, baina jatorri desberdinetako umeak batzen dituen eskola batean seme-alaba apuntatzen ez duenik.

Bada giza eskubideak aldarrikatu, baina orain bi hilabete jatorrizko herrialdetik ihes egin behar izan duenari diru laguntzak ematean, lapurretaz hitz egiten duenik.

Bada mugak ixtearen aurka egon, baina inoizko hesirik handiena jartzen duenik.


Zurrategi plazan pintxoak eta datilak dastatzen. IMANOL SORIANO

# Elkartasunez beteriko pintxoak haur sahararrak ekartzeko

Sagirik eta Anelkarrek festaren balorazio ona egin dute; herritarren borondateari esker 531 euro batu dituzte

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Anelkar eta Sagiri elkarteek egindako elkartasun deialdiari ondo erantzun diete, beste behin, antzuolarrek. Elkartasun festan saldutako txitxi-burruntziekin eta datilekin ateratako dirua uztailean hamar haur saharar ekartzeko proiektura bideratuko dute. Sagiri elkarteko Marta Sanchezek adierazi du gustura daudela herritarrengandik jasotako erantzunarekin: "Oso pozik gaude; 531 euro batu ditugu eta jasotako diruak ahalbidetuko du Saharako hamar neska-mutikok udako egonaldia gurean egitea". Saharako gastronomia tradizionalaren parte diren jakiez gain, ardoa, gazta eta intxaurrak ere dastatu dituzte herritarrek.

Oporrak Bakean programako gastuak bideratzeko bestelako ekintzak egingo dituztela jakinarazi dute antolatzaileek.

**Borondatezko begiraleak**

Udako egonaldirako begirale lanetarako boluntarioen beharra dagoela nabarmendu dute. Hala, interesa dutenek *sagiri.debagoiena@gmail.com* helbidera idatzi dezakete.



Antzuolako argazki taldeko kide batzuk Olaran etxearen aurrean. MAIDER ARREGI

# Objektiboaren aurrean herriko argazkilariak

Orain dela hiru urte jaio zen herritar talde batek sustatuta argazkilaritzaren inguruko jakintza konpartitzeko asmoa. Orain, zortzi bat antzuolar astelehenetan, hamabostean behin, batzen dira ezagutzak konpartitzeko eta zabaltzeko

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Argazkilaritzarekiko zaletasuna duen herria da Antzuolan. Izan ere, herrian antolatzen diren argazki lehiaketek harrera ona izan ohi dute. Zaletasun hori ikusita jaio da Antzuolako argazkilaritza taldea. Helburua ezagutzak elkarbanatzea dute. "Antzuolan argazkilaritzarekiko zaletasuna sumatu izan dugu. Herri moduan lehiaketak ere sortzen ziren eta konturatu ginen argazkilaritzaren bueltan mugimendua bazegoela. Ohartu ginen ez genituela ezagupenak zabaltzen, eta horregatik erabaki genuen tartetxoa hartzea eta elkartzen hastea argazkilaritzaz hitz egiteko", dio Iker Aizkorbek, argazki taldeko kideak.

Orain dela hiru urte jaio zen taldea osatzeko lehen ideia eta orduz geroztik saio ugari elkarbanatu dituzte. Ikastaroren bat edo beste jaso badute ere, gehienak autodidaktak direla diote: "Ikasteko modurik onena praktikatzea da eta egiten diren akatsetatik ikasten joatea, zalantza gabe. Ezagupenak lortzen joatean datza gakoak eta ez soilik eskolak hartzean", argitu du.

Baina argazki on baten atzean, pazientzia handia dago? "Denbora eta pazientzia dago. Baita ezagupenak ere. Baina akats asko egitean ere badago gakoa".

**Disfrutatzeko**

Harrigarria bada ere, ea argazkirik etxean jarrita duten edo erakusketak egiten dituzten galdetuta, erantzuna ezezkoa izan da. Hala ere, egindakoa erakustera animatu denik ere bada: "Gure helburua disfrutatzea da; normalean, ez dugu erakusketarik antolatzen eta ez ditugu lehiaketetarako argazkiak ateratzen. Hala ere, nire kasuan, lehiaketaren bat parean suertatzen bazait eta aterata daukadan natura argazki bat lehiaketa horretara egokitzen bada, parte hartu izan dut", dio Aizkorbek.

**ARGAZKI ON BATEN ATZEAN DENBORA, PAZIENTZIA, EZAGUTZA ETA AKATSAK EGITEA DAUDE**

Sergio Moreno, aldiz, bidaia argazkilaria da. "Bidaiatzea eta argazkiak ateratzea gustuko ditut, eta, nire kasuan, eskutik lotuta datoz. Indian, Ameriketako Estatu Batuetan (AEB)... orain, Italiara joango naiz argazki *tour* bat egitera". Morenok bidaiaren arabera argazkilaritza soziala edo paisaia erretratuak ateratzen ditu: "Indian eta Thailandian jendea erretratatzeko aukera izan dut; AEBetan, aldiz, pasaiak".

**Astelehenetan batzen dira**

Bilera herritarrei irekia da eta argazkilaritzaz jardun gura duenak Olaranen duten lokalera jo dezake. Taldea 18:30ean batzen da, astelehenetan, hamabostean behin–. "Nahi duenarendako, ateak zabalik ditugu".




BEÑARDO KORTABARRIA

## 'Euskadi lagunkoia'-ren bideoa

*Euskadi lagunkoia* ekimenerako bideo ofiziala grabatu zuten atzo goizean herriko erretiratuek eta udal ordezkariek. Asmoa da ekimenaren gaineko informazioa jasoko duen bideoa, besteak beste, webgunean eta aurkezpenetan erabiltzea. Antzuolarrek, pozik, herri atseginago baten alde lanean jarraituko dutela azaldu zuten.

## Maiatzaren 5ean Debagoieneko Trikiti Eguna ospatuko da

Antzuolan egingo da aurten Debagoieneko Trikiti Eguna. Maiatzaren 5ean, zapatuan, ospatuko dute trikitizaleek festa. Egun osoko jaia izango da eta ekintza ugaritan parte hartzeko aukera izango da.

10:30ean, ongietorria egingo zaie bailarako trikitilari taldeei. Ondoren, hamaiketakoaz gozatuko dute eskolako patioan.

11:00etan, Josune Arakistain eta Itsaso Elizagoien trikitilari ezagun eta arrakastatsuen eskutik hitzaldia egingo da Torresoroa aretoan. 12:00etan, berriz, trikiti eta pandero doinuek jantziko dituzte herriko kaleak.

13:00etan Zurrategi plazan saio berezia egingo dute. Ondoren, bazkaria izango da patioan.

18:00etan, berriz, gazte taldeek emanaldia egingo dute Herriko Plazan. Amaitzeko, 20:30ean, Bide Batez taldearekin erromeria izango da, Zurrategin.

## Astelehenetik aurrera haurreskolan izena emateko aukera dago

Antzuolako haurreskolan izena emateko epea apirilaren 30ean, astelehenean, zabalduko da. Interesa dutenek maiatzaren 11ra arte dute aukera izena emateko. Irailean, urrian edo azaroan hasteko diren haurrendako deialdia da. Informazio gehiago izateko, haurreskolara bertara jo daiteke, edo 943 78 60 15 telefono zenbakira deitu.

## Aiherra Egunerako bazkariko txartelak salgai daude

Maiatzaren 19an ospatuko da aurtengo Aiherra-Antzuola senidetze eguna –San Isidro festaren baitan–. Bazkarira joateko txartelak salgai daude liburutegian. Txartelak eskuratzeko azken eguna maiatzaren 14a da. Helduek, 15 euro; haurrek, 5. Bazkalostean, 16:00 aldera, Jundajo bikotearekin kantu saioa egingo da.

# Agintaldiaren lehenengo hiru urteak aztergai

'Harira' saioan izan dira Iraitz Lazkano alkatea eta Gu Geu Elgetako bozeramaile Mikel Larrea. Lazkanoren esanetan, egoera ekonomikoa txarra izanda ere Elgetak aurrera egin du. Erronka garrantzitsurik ez dagoela uste du, aldiz, Mikel Larreak

**Larraitz Zeberio** ELGETA
Elgetako alkate Iraitz Lazkano eta oposizioko bozeramaile Mikel Larrea Goiena telebistako *Harira* saioan izan ziren martitzenean. Gai askoren gainean egin zuten berba, besteak beste, hirugarren urtea betetzera doan agintaldiaren inguruko balorazioa egin zuten. Alkatearen iritziz, orain dela hiru urte baino egoera hobean dago Elgeta. "Lehenengo aldiz urte mordoxka batean Elgetako Udala egoera egonkorrean dago. Planifikatuta dago hemendik eta hamar urteko epean ze diru egongo den eta zertan gastatzeko egongo den. Orain arte ez dugu hori eduki", esan zuen. Eta ordaintzeko dauden kalte-ordainak aipatu zituen. Egoera ekonomikoak baldintzatutako agintaldia dela onartuta ere, Gu Geu Elgetako Mikel Larreak uste du erronka garrantzitsurik ez dagoela. Horrelakoetan "beste esfortzu eta ahalegin batzuk" egin behar izaten direla uste du oposizioak. Udal Gobernua mantentze-lana egitera mugatzen dela esan zuen. "Lehen, Elgetan, mugimendu handia zegoen, eta jaitsi egin da. Gaztetxea ere itxi egin dute", esan zuen Larreak.


Iraitz Lazkano (EH Bildu) eta Mikel Larrea (Gu Geu Elgeta) telebista platoan. L.Z.

Bestela ikusten ditu gauzak Lazkanok: "Zerbitzu gehienetan ordutegiak zabaldu eta prezioak murriztu ditugu, hauteskunde programan planteatutako gehienak garatuta edo garatze bidean daude, parte hartze prozesuan irtendakoekin berdina gertatzen da". Larreak beste maila bateko proiektuak markatu behar direla uste du. "Zer-nolako Elgeta nahi dute herritarrek hogei urte barru? Nora goaz? Zer-nolako herri diseinua nahi dugu? Ez dut ikusten Elgetan hausnarketa hori sortu denik", esan zuen.

**Industrialdea**
Oposizioak garrantzi handia ematen dio industrialdeak dituen arazoei arreta jartzeari. "Ez du errepide egokirik eta arazo hori dagokion lekuan mahai gaineratu behar da irtenbide bat topatzeko", esan zuen Larreak. Lazkanok erantzun zion Gipuzkoako Foru Aldundiak oso argi esanda daukala Elgetako saihesbidea ez dela, oraingoz, lehentasunezkoa. Bestelakoetara etorrita, Larreak esan zuen herrian oso gutxi ezagutzen direla industrialdean egiten diren jarduerak, eta azoka moduko bat egitea proposatu zuen.

**Kultura politika**
Espaloia kafe antzokiaren egoeraren inguruan Iraitz Lazkano alkateak uste du herriko kultura politikak ez duela zertan kafe antzokira lotuta egon, eta bestelako ekimen ugari egiten direla esan zuen. "Oso oso ondo ekipatuta dagoen aretoa dugu, eta herritarrek erabiltzeko moduan dago. Garbi dagoena da, oraingoz, ez dagoela inor hori kudeatzeko prest", esan zuen.

Oposizioak uste du Elgetak bere mailako kultura politika definitu behar duela. "Bere garaian, muga nahiko goian jarri zen. Errealitate apur bat birtuala zen, nire ustez. Konparazio baterako, lehenengo mailako futbol talde bat ginen eta *Txapeldunen Liga*-n jokatzen genuen. Gaur egun, *Hirugarren Mailaraino* jaitsi gara eta futbol zelaia ia itxita daukagu. Elgetak topatu behar du zein den bere kultura politikaren maila, eta, akaso, jaitsi egin behar dira aurreko pretentsio handiak".

Gizarte politika gaietan gaur egun ez dago itxarote-zerrendarik Elgetako eguneko zentroan, baina egoera hori aldakorra dela esan zuen Larreak. Bideberri mankomunitateari eduki gehiago ematea proposatu zuen.

Bi udal ordezkariek bestelako gaiak ere jorratu zituzten saioan: Gueñes-Itsaso goi tentsioko lerroa, kirol azpiegituren egoera, zuntz optikoaren hedapena, gas horniketa, erretiratuen egoera Ozkarbi elkartean...

*Harira* saioa osorik dago ikusgai *Goiena.eus* atarian eta *Goiena nahieran* aplikazioaren bitartez.

**UDALAREN EGOERA EGONKORTU EGIN DELA USTE DU LAZKANOK, ETA NORABIDERIK EZA DAGOELA LARREAK**

## Argiteria publiko osoa LED sistemara egokituko dute aurten

Iazko gerakinetik finantzatuko ditu Udalak bestelako lanak ere; adibidez, gaztetxeko teilatuaren konponketa

**L.Z.** ELGETA
Elgetako Udalak 185.847 euroko gerakinarekin itxi zuen 2017a, eta udal arduradunek martitzenean egindako osoko bilkuran erabaki zuten haren 182.436 euro zertara bideratu.

Zati bat —50.998 euro— 2018ko aurrekontuan aurreikusita dauden egitasmoetara bideratuko dute. Hala, osatu egingo dira aurrez onartuta dauden zenbait diru-lerro. Gainerakoa —131.438 euro— egitasmo berrietara bideratuko dute; besteak beste, herri osoko argiteria LED sistemara pasatzera, ospitale zaharra botatzera, gaztetxeko teilatua konpontzera.

EH Bilduko ordezkarien aldeko botoekin onartu da kreditu aldaketa. Gu Geu Elgetako udal ordezkariak abstenitu egin dira. "Aurrekontuarekin abstenitu egin ginen, eta, kreditu aldaketa hau aurrekontuaren luzapena izanik, abstenitu egingo gara", esan zuen Mikel Larrea bozeramaileak. Gaineratu zuen Udalak mantentze-lanak egitera mugatzen duela bere jarduna eta okerreko aurreikuspenak egin izana seinalatu zuen. "Dinamika arriskutsua iruditzen zaigu horrela jardutea", esan zuen. Inbertsio kontzeptu berriak igarri zituen faltan, eta aurrezteko intentziorik eza azpimarratu zuen. EH Bilduko ordezkariek erantzun zioten urteetan ez dela ganorazko mantentze-lanik egin Elgetan eta dirua aurreztu ahala joango direla egiten. Proposamen zehatzak egiteko eskatu zioten oposizioari, eztabaida gauza zehatzen inguruan egiteko.

### Egitasmo berrietarako diru-lerroak

| | |
|---|---|
| Herri osoko argiteria berritzeko | 75.000 € |
| Ospitale zaharra botatzeko | 14.500 € |
| Gaztetxeko teilatua konpontzeko | 12.000 € |
| Artekalean autobus geltokia egiteko | 10.000 € |
| Hesi berriak ipintzeko | 6.000 € |
| Squash kantxako lurra berritzeko | 5.107,41 € |
| Osoko bilkuren aretoa argiztatzeko | 3.000 € |
| Mural bat egiteko | 3.000 € |
| Domingo Iturbe kaleko biribilgunea txikitzeko | 1.331 € |

## Kantsatzeke Txiki irteera Aralarrera maiatzaren 13an

"Oraingo honetan, Amezketatik irten eta Burutzuzingo meategietara egingo dugu txangoa, Aralarko medietan barrena", adierazi dute antolatzaileek. Lauzpabost orduko txangoa izango dela adierazi dute, eta taldea 08:30ean abiatuko dela herriko plazatik, autoetan. Interesatuek maiatzaren 10era arte dute izena emateko aukera udaletxean, Kantsatzeke taldearen Facebook profilean eta *kantsatzeke@gmail.com* helbide elektronikoan. Prezioa hau da: sei euro nagusiendako eta lau euro adingabeendako. Adingabeek guraso edo nagusi baten ardurapean joan beharko dute. Irteera adin guztietako interesatuendako da.

# Herrian "gertatutakoa" ikusteko aukera izan da

'Elgetaren gainbehera' herri antzezpena irudikatu zuten domekan, 1937ko apirilaren 24an gertatutakoa gogora ekartzeko; antolatzaileak gustura geratu ziren egindakoarekin, eta herritarrek uste dute beharrezkoak direla horrelako ekimenak

**Arantzazu Ezkibel** ELGETA

Tropa frankistak herrian sartu zireneko uneak irudikatzea eta udaletxeko balkoitik diskurtso eta keinu frankistak ikustea "gogorra" izan zen herritar askorendako; hala ere, garrantzitsutzat jo dute gauzak gertatu modura kontatzea.

*Elgetaren gainbehera* herri antzezpena irudikatu zuten domekan, 1937ko apirilaren 24an gertatutakoa gogorarazteko. "Lehenengo aldia izateko, primeran irten da dena. Pozik gaude", azaldu du Juan Ramon Garaik, Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kideak.



Herri antzezpena: emakumeak eta umeak ihesi. IMANOL SORIANO

### Historia, era bisualean

Iraitz Lazkano alkateak azaldu du "Elgetan gertatu zena" azalarazi nahi izan dutela: "Historia era bisualean kontatu nahi izan dugu. Orain arte, bi bandoen arteko borroka bat bezala kontatu izan da; baina uste genuen gabezia bat bazegoela, gerokoa ez genuela kontatzen", dio, eta gaineratu du: "Uste dugu garrantzitsua zela kontatzea emakumeek eta umeek nola bizi izan zuten frankistak herrira sartu zirenekoa, eta egin zuten sarraskia. Ez bakarrik frontean egondako bataila horiek". Garaik gaineratu du domekan ikusitakoa "gertatutakoa" dela, "historia" dela.

**JUSTIZIA ERREALA LORTZEKO BIDEAN LAN EGINGO DUTELA AZALDU DU IRAITZ LAZKANO ALKATEAK**

### Justizia erreala

Hainbat herritarrek azaldu dute "beharrezkoak" direla horrelako ekintzak, gazteek jakin dezaten zer gertatu zen, "berriro horrelakorik ez pasatzeko eta biktimei beharrezkoa duten omenaldia eskaintzeko".

Alkateak gaineratu du memoria historikoaren errekuperazioa bide luzea izango dela, baina horretan dihardutela, "justizia erreala" lortzeko. "Bide horretan aurrera egiteko asmoarekin gaude, baita bi kereila horiekin ere. Gure eskuetan dagoena egingo dugu omentzeko, egia ezagutzeko eta justizia exijitzeko", gaineratu du Lazkanok domekakoaren gainean.

## Intxortako frontean, hildakoak gogoan

Omenaldiarekin hasi zuten domekako ekitaldia. Intxortako frontean hildako 231 miliziano eta gudari omendu zituzten *Intxortako atea*-n. Senide batzuk eta ordezkari politikoak izan ziren han. Joseba Tapiak Joxe Mari Lopategi bertsolari errepublikanoaren bertsoak eskaini zituen, eta ondoren, Ainhoa Agirreazaldegik bertsotan egin zuen.



Dantzaria, senitartekoen aurrean. IMANOL SORIANO

# Bi edukiontzirekin, olio erabili gehiago batzea espero dute

Inbutuak banatu ditu Udalak, olioa ontzietara ondo isurtzeko; udaletxean bertan eska daitezke

**A.E.** ELGETA

Etxean olio erabilia jasotzeko edukiontzi berriak daude herrian; gainera, orain, bi edukiontzi jarri dituzte: Berraondokua gunean eta Domingo Iturbe kalean, hain zuzen ere.

"Lehengo sistemak, aspalditxoan, arazoak ematen zituen, ez zituelako ontziak ongi bueltatzen. Mankomunitatean adostu genuen beste era batekoekin proba egitea", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak. Gainera, hainbat herritarrek etxetik 600 bat metrora zuten edukiontzia; orain, bi edukiontzirekin, olio erabili gehiago batuko dela uste du Lazkanok.

Sistema berriarekin, etxean gauza bera egin beharko da: baina orain, edukiontzira eraman beharreko potoak norberak jarri beharko ditu. Beirazko edo plastikozko potoak erabil daitezke. "Olioa ontzietara isuri, ongi itxi eta edukiontzi berrietara bota behar dira", azaldu du alkateak. Potoetara olioa egoki isurtzeko, Udalak inbutuak banatu ditu; hain zuzen ere, udaletxean eska daitezke.



GEAXI EZPELETA

## Liburuaren Eguna ospatu dute

Astelehenean, Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen; horren harira, Liburutegiak *Bertsol Haritza* ipuin kontaketa saioa antolatu zuen. Ibai Asoain ipuin kontalariak haritzondoaren azpian kontatu zituen ipuinak; hainbat hitz aukeratu zituzten gaztetxoek, eta Asoainek hitz horien bueltan sortu zituen ipuinak.

## Athleticzaleen bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte

Gipuzkoako Athleticzaleek urteroko bilkura egingo dute; aurten, Elgetan –Intxortako Lehoiak taldearen X. urteurrena aitzakia hartuta–. Ekainaren 16an izango da. Bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude. Interesa duenak *intxortakolehoiak@hotmail.com* helbidera idatz dezake. Menuaren prezioa: helduek, 25 euro; umeek, 10 euro.

## OHARRAK

### Erretiratuak

Maiatzaren 9an Aginaga sagardotegian bazkaltzeko izena eman nahi duenak bihar, zapatua, izango du horretarako aukera. Prezioa 30 euro da.

### Euskal dantzak

Eguaztenean, maiatzaren 2an, hasiko dute euskal dantzen ikastaroa. Ekainaren 27ra arte izango da.



Nerea Zubia, Irati Etxeberria, Marijo Etxegoien, Lourdes Idoiaga, Mikel Biain eta Amaia Erostarbe, aurkezpenean. M.B.

# Milioi erdi euro gordeta, herritarrek erabakitzeko

Maiatzaren 7an zabalduko da epea herritarren proposamenak jasotzeko. Egingo diren saio irekietan edo etxeetan banatuko duten eskuorrietako fitxa beteta egin daitezke ekarpenak. Proiektu egingarrien artean bozkatuta hartuko da erabakia, urrian

**Oihana Elortza** OÑATI

Datozen bi urteetako aurrekontuetan zati bat herritarrek egindako proposamenetara bideratzea adostu dute udalbatza osatzen duten bi alderdiek, EH Bilduk eta EAJk.

**Konpromisoa**

Guztira, 500.000 euro bideratuko dituzte herritarrek proposatutako proiektuak gauzatzera; 250.000 euro 2019ko aurrekontuetatik eta beste horrenbeste 2020koetatik. 16 urtetik gorako edozein oñatiarrek egin dezake proposamena norbanako gisa. Ostean, proposamen guztiak aztertu egingo dituzte, bideragarritasun aldetik eta arlo ekonomikotik. Ahalik eta proiektu gehien babeste aldera, aurrekontu handia –80.000 eta 120.000 euro artekoa– duen bakarra onartuko da aldi bakoitzean. "Herritarren beharretatik eta proposamenetatik abiatuta, Oñatiren beharrak eta etorkizunerako proposamenak zehazten joango gara prozesu honetan. Herri gisa ditugun beharrei denen artean erantzungo diegu", esan dute alderdi bietako udal ordezkariek, Mikel Biainek eta Lourdes Idoiagak, martitzenean egindako aurkezpenean.

Alderdi biek adostutako prozesu horretan, herritarren eskaerak kontuan hartu eta horietako batzuk gauzatzeko konpromiso politikoa hartu dute udal agintariek. " Egunerokotasunean, herritarrak eurak dira, zerbitzu eta baliabideen erabiltzaile diren aldetik, aukerak, gabeziak eta hobetu beharrekoak hobekien ikusten dituztenak, eta, zentzu horretan, herritarren hitza garrantzitsua da ekarpenak egiteko orduan", adierazi du Biainek. Baita erabakia loteslea izatea ere. "Erabakitzailea izango da. Prozesu honetatik ateratzen diren proiektuak, jarritako baldintza edo mugen barruan, erabakitzaileak, lotesleak, izango dira 2019ko eta 2020ko aurrekontuetan", zehaztu du Idoiagak.

Proposamenendako gordetako zenbatekoaz, parte hartzeko behar den gutxieneko adinaz eta proposamen handien muga ekonomikoaz gain, herritarrek osatutako berme-taldea egotea ere adostu dute. Baita politikariek osatutako jarraipen-batzordea ere: Mikel Biain alkatea, Nerea Zubia, Irati Etxeberria, Lourdes Idoiaga, Amaia Erostarbe eta Marijo Etxegoien dira batzorde horretako kideak.

**Faseak**

Partaidetzazko aurrekontuen prozesuak lau fase izango ditu: lehenengoa izango da herritarren proposamenak jasotzekoa, maiatzaren 7tik 24ra. Tarte horretan sei bilera egingo dira egun eta toki ezberdinetan. "Herritar bakoitza hobekien datorkion saiora etorri daiteke, eta han azaldu dezake bere proposamena", dio Onintza Andresek, Partaidetzako udal teknikariak. Prozesu hori guztiori azaltzeko, eskuorriak banatuko dituzte herriko etxeetan, eta eskuorrietan ere proposamenak egiteko fitxa egongo da. Fitxa horiek udal eraikinetan jarriko dituzten edukiontzietan sartu daitezke. Udal webgunean sartuta ere egin daitezke.

Jasotako proposamen guztiak herritarren aurrean azalduko dituzte ekaineko lehen hamabostaldian, eta horietako batzuk lehenetsiko dituzte. Politikariek eta udal langileek baloratuko dituzte, gero, proposamenak. Politikariek prozesuan adostutako irizpideekin bat datozen aztertuko dute; eta udal langileek, berriz, proposamen bideragarriak diren edo ez. Urrian, 8tik 28ra, herritarrek boto bidez aukeratuko dituzte aurrekontuetan txertatuko diren proposamen edo proiektuak, eta azaroko osoko bilkuran onartuko dira.

Partaidetza kulturari bultzada emateko asmoa ere badu prozesu horrek: "Herritarrek erakundeetan izan dezaketen partehartzea indartu gura dugu, dakarren demokraziaren zabaltze ariketarekin", diote alderdi biek.

**"HERRITARRAK DIRA BEHARRAK ONDOEN IKUSTEN DITUZTENAK"**

MIKEL BIAIN, EH BILDU

**"ATERATZEN DIREN PROIEKTUAK LOTESLEAK IZANGO DIRA"**

LOURDES IDOIAGA, EAJ

## Autobusa jarriko dute gauean Olabarrietako jaietara joateko

Pilota txapelketako finalak martitzenean, maiatzak 1, jokatuko dituzte eliza kontrako frontoian, eguerdian

**O.E.** OÑATI

Gaur, egubakoitza, hasiko dira Olabarrieta auzoko jaiak; 20:00etan botako dute etxafuegoa.

Musika, dantzak, kirola eta auzo bazkaria, egongo dira, besteak beste, Olabarrietan martitzena bitartean. Gaur gauean, 22:00etan, musika taldeen kontzertua egongo da. Claytons, Gatazka eta Broken Legary taldeek joko dute, eta antolatzaileek autobusa jarri dute kaletik auzora joateko; Portu taberna parean eta Olakua auzoan har daiteke, 21:45etik aurrera.

Zapatuan, haurrendako jolasak eta txorimaloak egongo dira, pilota partiduez gain. Domekan, auzo bazkaria Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi bertsolariekin, herri kirolak eta erromeria, besteak beste.

Auzoko pilota txapelketako finalak martitzenean jokatuko dira, meza ostean. Oñatzeko dantzari gazteen erakustaldia eta mus txapelketa ere egongo dira maiatzaren 1ean.

## 'Tren ibiltaria' egongo da Urgain Errekaldera joateko maiatzean

Aurten ere Urgain Errekalde eskolako Guraso Elkarteak *Tren ibiltaria* ekimena antolatu du. Maiatzaren 7tik 18ra, bi astez, egingo da eta bost ibilbide izango ditu, ikasleak elkarrekin oinez eskolara joan daitezen: Eltziatik (08:35), San Lorentzeko tuneletik (08:40), Kanpantxotik (08:35), Bidebarrietatik (08:40) eta San Martingo zubitik (08:40).

## 'Arantxen' topaketa egingo dute, hamargarrenez

Bi urtean behin egiten duten *Arantxen* topaketa maiatzaren 6an egingo dute, hamargarren aldiz. Aurten ere meza, talde argazkia eta bazkaria egingo dituzte eta dagoeneko zabalik dago bazkarira joateko izena emateko epea. Joan gura duenak 35 euro sartu behar ditu Laboral Kutxako kontu honetan: ES1830350170541701019652



Angel Rekalde, Nerea Zubia, Mikel Biain eta Koldo Martinez, eguen goizean egindako aurkezpenean. O.E.

# Memoria-lekuei buruz jardungo dute maiatzean

Euskaldunen historiako gertaeren gune nagusiak izango dituzte hizpide Oñatin Udalak Nabarralderekin batera egingo duen jardunaldian. Qim Torra, Amaia Nausia, Iñaki Sagredo, Eneko Bidegain, Beñi Agirre eta Xabier Irujo etorriko dira, besteak beste

**Oihana Elortza** OÑATI
Nabarraldeko Angel Rekalderen esanetan, historian zehar izan diren gertaeren lekuez jardungo dute maiatzaren amaieran Oñatin egingo dituzten jardunaldietan: "Praktika hori egiten da munduan zehar, baina ez horrenbeste Euskal Herrian. Hemen oso historia aberatsa, trinkoa, dugu, baina ez dugu ezagutzen. Kontzeptu hori jaso eta landu gura dugu Oñatiko saioetan. Hori izango da gure lehenbiziko asmoa edo helburua, eta, horrekin batera, historiari errepasoa egitea".

### Ekarpena

Euskal Herrian memoria-lekuak badaudela dio Rekaldek; Amaiur, Orreaga eta Gernika, adibidez. "Gernikaren bonbardaketa, abestia, margolana... ditugu, baina han gertatutakoa besteek errekonozitu dutelako ezagutzen dugu; esaterako, Picassoren bitartez. Guk planteatzen duguna da gure historia geuk jorratzea, eta horretan jartzen garenean konturatzen gara toki pila bat daudela, klasikoaz gain".

Maiatzaren 20an hasiko dira jardunaldiak, eta, Mikel Biain alkateak esan duen moduan, punta-puntako historialariak eta adituak etorriko dira Oñatira. "Hemen egingo den kongresu honetan aterako diren ondorioekin, herri moduan ezkutuan dagoen historia horri ekarpen garrantzitsu bat egingo zaiola uste dut", adierazi du Biainek aurkezpen ekitaldian.

### Gonbidapena

Alkateak esan duen moduan, ez da lehen aldia Oñatiko Udala eta Nabarralde elkarlanean aritzen direna. Oraingoan, gainera, herriko historiazaleek ere euren interesa agertu dute ekimena egiteko, eta beste eragile batzuek ere parte hartuko dute. Aloña Mendirekin, esaterako, irteera antolatu dute Orreagara.

**LEKU FISIKOEZ GAIN, GUNE IMMATERIALEZ ERE ARITUKO DIRA; ESATE BATERAKO, EUSKARAZ**

Erakusketa bat ere egongo da, euskarari buruzkoa. Izan ere, Angel Rekaldek zehaztu du memoria-lekuak ez direla fisikoak bakarrik. "Batzuetan, immaterialak dira, eta hor ere sartuko gara. Euskara, adibidez, memoria-gunea da. Emozioa, identitatea transmititzen da hor, eta hori lantzeko aukera izango dugu", argitu du Nabarraldeko kideak.

Irteera eta erakusketaz gain, hitzaldiak eta mahai inguruak ere egongo dira, adibidez. 26ko egun osoko jardunerako akreditatu egin behar da eta izenematea zabalik dago *www.nabarralde.eus* atarian. Beste ekitaldietara joateko deialdia ere egin du Nerea Zubia zinegotziak: "Herritarrak eta inguruko herrietakoak animatzen ditugu parte hartzera".



Hilaren 21ean egin zuten lokalaren inaugurazioa. ENEKO AZURMENDI

# "Koalizio izatetik komunitate izatera" pasa gura du EH Bilduk

'Harittu' prozesua abiarazi dute, "jauzi kualitatiboa" emateko; Kale Barrian lokal berria zabaldu dute

**O.E.** OÑATI
Orain artekoaren balorazio positiboa egiten du Oñatiko EH Bilduk, baina "jauzi kualitatibo bat emateko garaia" dela uste du, eta "horri erantzutera dator" *Harittu* prozesua, koalizio abertzaleko kide Igor Tomeren esanetan. "Helburua da EH Bildu koalizio bat izatetik komunitate bat izatera pasatzea, sentsibilitate desberdineko ahalik eta jende gehien saretzeko eta espazioa zabaltzeko".

Prozesuak hiru lan-lerro politiko nagusi izango ditu: lehenik, herri diagnostiko bat egin gura dute. Ondoren, diagnostiko horretatik abiatuta, ekintza-plan bat egitea dute helburu. "Ekintza-plan hori bi adarretan bereiziko litzateke: batetik, ekintza instituzionalak, Herri Programan jasoko direnak; eta bestetik, adar soziala. Hori egin ostean, zerrendaburua aukeratu eta zerrendak egingo ditugu", zehaztu du Tomek. Hala ere, garbi utzi nahi izan du prozesua ez dela hauteskundeetara mugatzen.

Kale Barriko lokala "ideiak partekatzeko, eztabaidatzeko, elkar ezagutzeko eta proiektua indartzeko" dela gaineratu du.


NIRE USTEZ

**AITOR UGALDE**

## Jubilatuak

Kaleak hartu dituzte jubilatuek eta pentsionistek azken asteetan; nola, gainera! Harrigarria ere bada zenbat jende mobilizatzen ari den pentsio duinak eskatzeko. Espainiako estatuko hirietan mobilizazioak egiten badira ere, beste inon baino jendetsuagoak izaten ari dira Euskal Herrian egindakoak, eta hori, kontuan izanik Euskal Herriko jubilatuak direla batez beste Espainian pentsio altuenak jasotzen dituztenak. Hori, neurri handi batean, orain jubilaziora heldu den belaunaldiak langileen eskubideen defentsan egindako borrokagatik izan da. Borroka handia, baina ez nahikoa denek pentsio duinak izateko.

Orain ere borrokan ari da belaunaldi hori eta behin eta berriz azpimarratzen digute euren eskubideengatik aritzeaz gain, gaur egungo langileen alde ere ari direla. Hurrengo urteetan jubilatuko garenok eskertu beharrean gaude oraingo jubilatuen lehengo eta oraingo borroka, eta erreleboa hartzeko prest egon beharra daukagu, galtzen ari garen langileen eskubideak hobetzeko eta pentsio duinak bermatzeko.

# Lehen partidua galduta, hurrengoa irabazi guran

Txapelketa nagusia bukatuta, kopan lehiatzen hasi berriak dira Aloña Mendiko eskubaloi taldeko neskak. Eguaztenean jokatu zuten fase berriko lehenengo partidua, eta galdu egin zuten; dena den, horri buelta emateko gogoz dihardute

**Iker Oñate** OÑATI

Denboraldiko txapelketa nagusia bukatuta, kopan lehiatzea dagokie Aloña Mendiko neskei. Baina ez dute gura moduan hasi fase berria: 24-16 galdu zuten Elgoibarren kontra. Hori bai, galtzen hasitakoari buelta emateko garaiz dira oñatiarrak. Asteburuan dute horretan hasteko aukera, Ordiziaren kontrako partiduan; bihar dute hitzordua, 16:00etan, Zubikoan.

"Kopaz gozatzea da helburu nagusia. Hori bai, emaitza onak beti dira ongietorriak", dio Nerea Morenok, taldeko entrenatzaileak. Eta, horri dagokionez, onartu du baztertu barik dutela finalerako sailkatzeko aukera: "Badugu horretarako gaitasuna".

Zehatz esanda, bi taldetan banatu dituzte kopako parte hartzaileak –bost talde daude oñatiarren ligaxkan–. Beraz, finala jokatu gura badute, Aloña Mendikoek aurrealdean bukatu beharra dute lehen fasea; puntu gehien eskuratzen dituzten bi taldeek erdietsiko dituzte finalaurrekoetan jarduteko txartelak.



Ainhoa Tatiegi oñatiarra, defentsarengandik ihesi. IMANOL SORIANO

**Jokalari berriak**

Ohi moduan, kopan zenbait jokalari berri izango dituzte Aloña Mendikoek –denboraldia gazte mailan egin duten hainbat lagun–. "Besteak beste, datorren urtean senior mailan lehiatzera pasako diren jokalariak talde berrira egoki daitezen saiatzen gara. Beraz, esan daiteke hurrengo denboraldira begira hasiak garela", aitortu du Morenok. Hori bai, jokatzeko erari dagokionez, ez du aparteko aldaketarik aurreikusten: "Nahiko parean daude senior eta gazte mailakoen jokatzeko moduak. Etorri direnek ez dute egokitzeko arazorik izango". Aurrera begira, "baikor" da entrenatzailea.

**Txapelketan, "gorabeherak"**

Bestetik, orain artekoaz mintzo, liga "gorabeheratsua" izan dute Aloña Mendikoek. Alegia, txapelketa ez zuten gura moduan hasi, baina partiduek aurrera egin ahala, nabari zen hobekuntza: "Talde berria, jokalari berriak... Partidu asko galdu genituen hasieran; denok bat egin beharra genuen. Eta lortu genuen. Bigarren itzuliko emaitzak ikustea beterik ez dago".

**LIGAXKA BATEKIN HASI DUTE KOPA; OSTEAN JOKATUKO DIRA FINALAURREKOA ETA FINALA**



Aloña Mendiko kideak, Arrasateko partidua bukatuta. ALOÑA MENDI ESKUBALOIA

## Eskerrak eman dizkiete zaleei

Aloña Mendiko eskubaloi saileko mutilek ezin izan dute Lehen Maila Nazionalera igotzeko fasean jarduteko txartela erdietsi. Hori bai, "denboraldi osoan" eskainitako babesa eskertu gura izan diete zaleei: "Zuei esker gaude hemen. Eskerrik asko, benetan".

# "Polita da norbere herriko lasterketetan parte hartzea"

**EIDER IRIZAR** KORRIKALARIA

Euskal Herriko txapeldun bilakatu zen, kadete mailan

**I.O.** OÑATI

Mendi lasterkariek hitzordu garrantzitsua zuten aurreko asteburuan: Aloñako Igoera. Askotariko parte hartzaileak izan ziren bertan; besteak beste, kadete mailakoak –16 kilometroko ibilbidean–. Tartean zen Eider Irizar korrikalari oñatiarra. Euskal Herriko txapeldun bilakatu zen maila horretan.

**Aloñako Igoeran esku hartu duzu lehenengoz.**

Ez hori bakarrik. Orain arte ez bainuen mendiko lasterketarik egina. Esperientzia ederra izan zen; baina gogorra, era berean. Asko sufritu nuen beheranzko bidean.

**Eta zer sentitzen du oñatiar batek herriko mendi lasterketa egitean?**

Poza. Polita da norbere herriko probetan parte hartzea. Nabari dira zaleen animoak. Eta asko eskertzen dira. Xarma berezia du herrian korrika egiteak.

**Giro ederra zegoen, ezta?**

Duda barik. Zale asko zeuden ibilbidean zehar, eten barik animoak ematen. Eta plazara iristeak ere asko motibatu ninduen; lagunez eta ezagunez beteta zegoen herriko plaza. Asko eskertu nituen haien animoak.



Eider Irizar, Aloñako Igoeran. EIDER IRIZAR

**Eta eguraldia?**

Egia esan, nahiago dut tenperatura baxuagoarekin korrika egin; hori bai, nork bere gustuak ditu. Niretzat, bero larregi egiten zuen. Dena den, zaleak erakarri zituen eguraldi onak. Eta positiboa da hori. Eurek sortzen dute mendi lasterketetako giroa.

**Euskal Herriko txapeldun bilakatu zinen kadete mailan.**

Hala da. Hori bai, kadete mailan parte hartu zuen neska bakarra izan nintzen. Espero dut aurrera begira neska gehiago animatzea. Neuk ustekabean eman nuen izena. Alegia, beste proba bat egin gura nuen lagun batekin. Eta Aloñan ere korrika egin nezakeela jakin nuen; izena ematea erabaki nuen orduan. Ea halako gehiago dauden.

**Aurrera begira, lehiatzen segitzeko asmoarekin?**

Ez nituzke mendiko lasterketak baztertu gura. Neguan krosak egiten ditut; eta denboraldia bukatzean mendiko zenbait probatan parte hartzea da asmoa.

## Gipuzkoa mailako arku tiro txapelketa egingo dute domekan

Txantxiku Arkulariak taldeak antolatuta, Gipuzkoako arku tiroketa txapelketa egingo dute domekan, 10:00etan hasita; Gipuzkoako 3D ligaren bigarren jardunaldia izango da aste bukaerakoa –Gipuzkoako Open Ligarako puntuagarria–. Hain zuzen ere, Zozopase inguruan jardungo dute lehiakideek, 24 jaurtiketa-guneko ibilbidean. Eta senior mailako parte hartzaileez aparte, eskola kirolekoak –infantilak, alebinak eta benjaminak– ere ibiliko dira arku tiroketan; Piketa Txuritik jaurtiko dute azken horiek. Bestetik, jaurtitzaile gehiegi baleude, izen-ematearen hurrenkera hartuko dute kontuan antolatzaileek.

# Kultura Astea, Jerardo Elortza omentzeko

Jerardo Elortza oñatiarrak eginikoa omendu guran, hainbat ekintza antolatu dituzte ekainaren 1etik 9ra bitartera. Besteak beste, Elortzak duen ezagutza gizarteratzea dute helburu. Eta, aurrera begira, liburu sorta bat argitaratzeko asmoarekin dihardute

**Iker Oñate** OÑATI

Jerardo Elortzaren ibilbidea erdigunean, Kultura Aste "berezia" antolatu dute zenbait herritarrek. "Elortzak asko eman dio Euskal Herriko kulturari, hizkuntzari... Miresgarria da, era berean, herriko ondarearen alde egindakoa. Bere lana aitortzeko beharra ikusi dugu", aitortu du Kepa Elortzak, egitasmoaren bultzatzaileetako batek. Hala, era askotako ekintzak egongo dira ekainaren 1etik 9ra bitartean.

Eta harago joan dira antolatzaileak: "60ko eta 70eko hamarkadetan, dena lozorroan zegoenean, herriko ondarea berpiztu guran jardun zuten gainerako lagunak omentzeko ere balioko du egitasmoak". Esaterako, garai hartan sorturikoak dira Oñatz kultura taldea, Oñatiko ikastola eta herriko liburutegi batzordea. Kultura Astearen bultzatzaileek "euskal berpizkundearekin" lotzen dituzte halakoak.



Aste Kulturalaren aurkezpen prentsaurrekoaren ostean, kultura etxean. XABI URZELAI

Hori horrela, era guztietako ekintzak antolatu dituzte aste kulturalerako. Besteak beste, Elortzari buruzko erakusketa egongo da ikusgai kultura etxean, ekainaren 1etik 8ra bitartean; bere lana gizarteratzea da helburua. Eta bide berean antolatu dituzte gainerako ekintzak.

Besteak beste, Elortzaren ibilbidearen bueltako berbaldia egongo da. Urte askoan bere lankide izandako Juan Martin Elexpuru izango da hizlari; eta, horrez aparte, bere biografiari buruzko ikus-entzunezkoa eta Paulo Anduaga agustinoaren berbalditxoa izango dira –Elortzak agustinoekin izandako harremanaz jardungo du hark–.

Modu berean, 60ko eta 70eko hamarkadetan sortutako zenbait eragiletako ordezkarien mahai ingurua antolatu dute –Oñatz kultur taldea, herriko ikastola...–. Eta ikus-entzunezkoen emanaldia egongo da: Jerardo Elortzak esku hartutako lau film izango dira ikusgai.

### Ekitaldi nagusia

Bestalde, Kultura Asteari amaiera "borobila" eman guran, bukaerako ekitaldia egingo dute ekainaren 7an. "Poesia errezitaldia, proiekzioak, musika tarteak... izango dira hitzordu horretan", diote bultzatzaileek. Eta herriko ikasketa zentroetako gazteek trenari buruz sortutako unitate didaktikoa ezagutzeko aukera ere izango da. "Jerardo Elortzaren lana herriko gazteengana gerturatzeko ekimena izan da hori", azaldu dute.

### Liburu sorta

Gainera, Kultura Astera mugatu barik, aurrera begira jarriak dira egitasmoaren bueltakoak. Tartean, Elortzarekin batera egindako liburu bilduma argitaratu gura du Udalak. "Berak barruan duen ondarea gizarteratzeko balio dezake horrek", dio Mikel Biain alkateak.

## Askotariko ekintzak Kultura Astean

**Erakusketa, kultura etxean**
- **18:00-20:00 (ekainaren 1etik 8ra)** Jerardo Elortzari buruzko erakusketa ikusgai.

**Hitzaldia, Santa Ana antzokian**
- **19:00 (ekainak 4)** Jerardo Elortzaren ibilbidearen inguruko hitzaldia, Juan Martin Elexpuruk eskainia.

**Mahai ingurua, kultura etxean**
- **19:00 (ekainak 6)** 60ko eta 70eko hamarkadetan Oñatin sortutako kultur taldeen mahai ingurua.

**Filmen emanaldia, kultura etxean**
- **19:00 (ekainak 7)** Jerardo Eortzak esku hartutako lau film eskainiko dituzte.

**Omenaldia, Santa Ana antzokian**
- **12:00 (ekainak 9)** Ekitaldi nagusia. Ostean, bazkaria, Etxe-Aundin.

Debagoieneko
GREMIOAK

AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE
Mesterreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA
ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Beñat Rezusta –Aimar Olaizola atzean duela–, eguazteneko pilota aukeraketa saioan, materiala probatzen. IMANOL SORIANO

# "Ez dut uste Aimarrek beldur handirik duenik"

**PILOTA** Bergarakoak debuta egingo du buruz burukoan gaur, egubakoitza (22:00, Bergarako Udal Pilotalekua) Aimar Olaizolaren kontra: "Lau entrenamendu saiorekin, ezin dut miraririk eskatu, baina lanak ematen saiatuko naiz"

**Xabier Urzelai** BERGARA
Beñat Rezustak etxeko zaleen aurrean jokatuko du gaur, egubakoitza: "Txapelketa hasi eta lehenengo partidua etxekoen aurrean jokatzea ez da erraza izaten, gauzak ondo egin gura izaten ditugulako, baina ez naiz kexatuko. Eskuz binakako txapelketa amaitu zenetik lau entrenamendu saio egin ahal izan ditut, eta sentsazioak denetarikoak izan dira, batzuk onak eta beste batzuk ez horren onak. Baina eskuetatik ondo nago, eta aukeratutako materialarekin ere gustura geratu naiz; horrenbestez, ez dago aitzakiarik".

Buruz burukoan Bergarakoa da geratzen den atzelari bakarra: "Txapelketa hau aurrelariek dominatzen dute", eta ondo daki lehenengo kanporaketa honetan ze kontrario izango duen: "Aimarrek daukan txapel kopurua ikustea baino ez dago duen mailaz jabetzeko. Ez dut uste nire kontra jokatzeko beldur handirik izango duenik, baina nik itxura polita eman gura dut, eta ezustekoa ematen saiatuko naiz". Bi pilotari horiek lehenengoz jokatuko dute buruz burukoan.

## Oñati, Herri Arteko Txapelketan

Gipuzkoako hamazortzi herritako ordezkariek jokatuko dute Herri Arteko Txapelketa, eta Debagoienak ordezkari bakarra izango du: Oñati; finalzortzirenetan hasiko dute txapelketa, eta maiatzaren 20an Goiatz Bidania taldea izango dute aurrean. Faboritoa Azpeitia da –azken hiru edizioak irabazi dituzte–. Finala ekainaren 30ean jokatuko da.



Herri Artekoan parte hartuko duten klubetako ordezkariak. GIPUZKOAKO PILOTA FED.

# Hamabi gol sartu dituen Ordizia Agorrosinen izango da bihar

**FUTBOLA** Joan den astean Touring-i errepaso galanta eman zion liderraren bisita izango du Bergarak

**X.U.** BERGARA
Joan den astean Ohorezko Erregional Mailan sartu zituzten gol guztietatik (34) ia herena talde bakarrak egin zituen, lider dagoen Ordiziak 12-0 irabazi zioneta Touring-i. Bada, joan den astean Mondraren kontra 0-0 egin zuen Bergarak Ordiziaren bisita izango du bihar, zapatua (12:00). Eta, hain zuzen, Touring taldea Aretxabaletan kontra ahaleginduko da joan den asteko zauriak sendatzen. Iñigo Velez de Mendizabalen mutilek Errenterian jokatuko dute, gaur, egubakoitza (20:30).



Oiartzunen kontra. I.SORIANO

Mondrak, berriz, etxean jokatuko du bihar (16:30), jaitsiera postuetatik urruntzeko lehian dabilen Hondarribiaren kontra.

**Erregional Preferentean, derbia**
Bergarak eta Aretxabaleta UDAk derbia jokatuko dute etzi, domekan. Eta etxean jokatuko dute, baita ere, Mondrak eta Aloña Mendik. Oñatiarrek lehia polita dute, Elgoibarrek puntu bat gehiago baino ez du eta. Mondrak, berriz, Ordizia hartuko du etxean. Antzuola Beasainera joango da.

## PILOTA Emakumezkoen Bergara Hiria hasiko dute domekan

Domeka goizean (10:00) hasiko dute Emakumezkoen Lehenengo Bergara Hiria Txapelketa. Sei partidu egongo dira ikusgai; horietako hiru promes mailakoak izango dira eta beste hiru, senior mailakoak: "Zaleak pilotalekura etortzera animatu gura ditugu, pilotari hauek euren berotasuna igarri dezaten", adierazi du Reyes Azkoitiak.

## ESKUBALOIA Arrasatek etxera ekarri gura du igoera fasea

Maiatzeko bigarren asteburuan jokatuko dute Maila Nazionalera igotzeko igoera fasea –Ford Mugarri Arrasatek domekan lortu zuen txartela, finalean Zarautzi irabazita–, eta arrasatearrek, aste barruan, fase hori etxera ekartzeko eskaera bideratu dute Federaziora. Iaz, esaterako, Oñatiko taldeak Burgosen jokatu zuen fase hori.

## SASKIBALOIA Euskadiko kadete mailako txapelketa, Iturripen

Iturripen jokatuko dituzte, asteburuan, kadete mailako Euskadiko Txapelketako lauko finalak, gizonezkoen eta emakumezkoen mailetan, eta tartean izango dira Ointxe! Araski taldeko neskak. Zapatuan 12:30ean jokatuko dute finalerdia, Easoren kontra. Aurrera egiten badute, domekan 12:15ean jokatuko dute finala.

## AUTOMOBILISMOA Hitzorduz beteta dator maiatza

Euskadiko Txapelketako 2018ko egutegia maiatzean iritsiko da Debagoienera. Maiatzaren 12an Gorlako 27. Igoera jokatuko dute Bergaran, eta maiatzaren 26an Eskoriatzak hartuko du errelEboa, baina eslalom proba batekin. Bestalde, uztailaren 7an ziren egitekoak Gatzagako Igoera, baina egunez aldatzeko lanean dabiltza antolatzaileak.

# "Jokalari hauek inoiz ez dute amorerik eman"

**ESTI LOITI 'TITU'** LEINTZ ARIZMENDIKO ENTRENATZAILEA

**FUTBOLA** Leintz Arizmendik Euskal Ligan egindako lehenengo urtean kategoriari eutsi dio; atezain bakarra zuten, eta jokalari batzuek postu horretan jokatu behar izan dute

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Esti Loiti *Titu*-k zuzentzen duen taldeak atzo, eguena, zuen ligako azken partidua. Etxeko lanak aurrez eginda zituztenez, partidua ez zen erabakigarria izan. UDA, Mondra eta Arizmendi batu izanaren ahalegina hasi da fruituak ematen.

**Zer moduz joan da urtea?**

Balorazio positiboa egiten dugu, helburuak bete ditugu eta. Baina urte luzea izan da, eta, jokalariek maila honetan jokatzeko adina maila badutela erakutsi badute ere, erronka handiko urtea izan da.

**Gauza positiboetatik hasiko gara:**

Euskal Ligari segituan hartu genion neurria, eta, kontrarioa edonor zela ere, talde honek ez du inoiz amorerik eman; zentzu horretan, jokalarien jarrera sekulakoa izan da.

**Eta non egon dira arazoak?**

Klub bakoitzak talde sendo bat sortzeko zituen zailtasunetik abiatuta sortu zen Leintz Arizmendi. Kontua da talde bakarra izateko jokalari asko izan ditugula, baina ez dugula izan bi talde sortzeko adina jokalari. Erdibide horretan, talde bakarrean jokalari kopuru handia izatea erronka izan da, eta horrek sortu digu buruhausteren bat edo beste. Jokalariak aukeratzeko orduan batzuetan asmatu egingo genuen eta beste batzuetan, berriz, ez.



Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan izan da *Titu,* aste barruan. X.GOROSTIDI

**"TALDEAN JOKALARI ASKO EDUKI IZANA ERRONKA IZAN DA, ETA GUZTIEKIN EZ GENUEN ASMATUKO"**

**Egonkortasun falta ere aipatu duzu.**

Bai; jokalarien joan-etorriak handiak izan dira: ikasketa edo lan kontuengatik kanpora joan direnak, entrenatzera etortzeko zailtasunak zituztenak... Horrek ekarri du batzuek ez dutela jarraikortasunik izan, eta pena apur bat eman dit horrek; alegia, taldeak lan egiteko izan duen egonkortasun faltak.

**Urteak daramatzazu entrenatzaile. Zein asmo duzu datorren denboraldirako?**

Orain, oporrak behar ditugu denok [Barre], baina ez dut uste lehenengo taldean jarraituko dudanik, hor egin dut nire ekarpena. Maila txikietako gazteekin egingo nuke lan gustura.

## Lore Etxeandia, 'pitxitxi' izateko bidean

Lore Etxeandia aretxabaletarrak eskura du Euskal Ligan jokatzen dabiltzan lehenengo urte honetan kategoriako *pitxitxi* izatea –22 gol egin ditu–. Leintz Arizmendik asteburuko jardunaldia aurreratu, eta atzo, eguena, jokatu zuen ligako azken norgehiagoka, baina beste talde batzuek asteburuan bertan jokatuko dute. Atzetik datorren hurrengo goleatzaileak, baina, hamazortzi gol egin ditu.



Lore Etxeandia aretxabaletarra, Erandioren kontrakoan. IMANOL SORIANO



Domekan, igoera faserako txartela ospatzen. IMANOL SORIANO

## Maila Nazionalera igotzeko fasea Arrasaten jokatuko dute

**ESKUBALOIA** Euskal Herriko, Errioxako eta Kataluniako taldeak batuko dira Iturripen maiatzaren 11tik 13ra

**X.U.** ARRASATE

Domekan lauko finalean Zarautzi irabazi eta Maila Nazionalera igotzeko faserako sailkatu eta gero, Arrasate Eskubaloiko arduradunek hurrengo erronka zehaztu zuten: igoera fasea Arrasatera ekartzea. Eta eguaztenean jaso zuten Federaziotik baieztapena: maiatzaren 11tik 13ra Euskal Herriko, Errioxako eta Kataluniako onenak Iturripen batuko dira.

**Lana, baita kantxa kanpoan ere**

Estatu mailako hogei taldek hartuko dute parte fase horretan, bost multzotan banatuta. Eta Arrasatekoa D multzoa izango da. Bertan, Ford Mugarri Arrasate izango da euskal ordezkaria –Basaurik Vigon jokatuko du– eta Arrasatekoekin batera CH Poblenou (Bartzelona), Clavijo Calasancio (Logroño), eta BM Iruña Eskubaloia izango dira Iturripen.

Bada, arrasatearrek erronka polita izango dute kantxan, eta baita kantxa kanpoan ere. Duela 23 urte antolatu zuten halako fase bat azkenekoz ibarrean. Oñatin izan zen, eta txantxikuak mailaz igo ziren orduan.



ESPAINIAKO TRIATLOI FEDERAZIOA

## Beñat Arnaiz, talde onenarekin

**DUATLOIA** Joan den asteburuan jokatu zuten Sorian Espainiako Taldekako Duatloi Txapelketa, eta Beñat Arnaiz podiumeko lehenengo postura igo zen gizonezkoen elite mailan. Arnaizek Arabako Ascentium taldeko kideekin parte hartzeko gonbita jaso zuen, eta ez zen onartu izanagatik damutuko, aretxabaletarra Espainiako txapeldun da eta.

# Oihana Aranarentzako, bigarrenez, txapela

Egubakoitzean Lasturren jokatu zuten Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketako finalean, Aretxabaletako Lekaixoka bertso eskolako bertsolariak eskuratu zuen ekainaren 9an Saran jokatuko duten Euskal Herriko Txapelketarako txarteletako bat

**Aitziber Aranburuzabala** ESKORIATZA
Saio "dotorea" eskaini zuten Gipuzkoako txapela eskuratzeko lehian jardun zuten zortzi bertsolariek; horien artean zeuden Aretxabaletako Lekaixoka bertso eskolako Oihana eta Haizea Arana ahizpak eta Oñatiko Txinparta bertso eskolako Aitor Tatiegi."Final batena baino gehiago, lagun arteko saio baten itxura zuen. Denak ibili ginen oso gustura kantuan, eta nabaritu zen saioaren emaitzan", diote Debagoieneko ordezkariek.

Lehen aldia zen finala afari formatuan egin zutela, eta bertsolariek eta publikoak eskertu egin zuten hala egitea. "Ohiko tentsioa sumatzen bazen ere, giroa eta ingurua askoz lasaiagoa zen. Azkenaldiko finalik onenetakoa iruditu zitzaidan, oso ale onak bota zituzten. Bertso saio bizia eta azkarra lotu zuten, zaleak zein bertsolariak bat eginda, elkar eginda", kontatu du publikoan zegoen Oñatiko bertso eskolako Iñaki Olaldek.


Haizea Arana, Aitor Tatiegi eta Oihana Arana –irabazlea– bertsolariak txapelarekin. A.T.

## Kantagarriak eta entzungarriak

Bigarrenez ekarri du Oihana Aranak Gipuzkoako txapela etxera, eta, irabazleaz gainera, pozik dira ibarreko beste bi ordezkariak ere. "Eskolan egin dugun lanaren ordaina da; hortaz, kide guztiontzako errekonozimendua da", dio txapeldunaren ahizpak, eta zera gaineratu du oñatiarrak: "Oihanak sekulako eguna izan zuen, eta entzuten ari nintzela argi neukan puntutxo bat gorago zebilela. Ez zuen akatsik egin, eta gure mailan hori izaten da, gehienetan, irabazteko gakoa".

Gai jartzaileen lana goraipatu dute hirurek: "Eskolarteko txapelketako gaiak mami gutxikoak izan ohi direla kritikatu izan dugu sarritan; oraingoan, baina, asmatu egin dute gugandik gertu dauden gaiak proposatuta. Kantatzeko erosoak eta entzuteko entretenigarriak izan ziren: kuadrillari buruzkoak, bikote-harremanak, sare sozialak...".

## Ekainaren 9an, Sarara

Euskal Herriko Txapelketa jokatuko dute egun horretan, eta, Gipuzkoatik, eskoriatzarra eta Zarauzko Aner Peritz *Euzkitze* izango dira ordezkariak. "Oihanari ze aholku? Egin dezala bertsotan dakien moduan eta goza dezala saioaz, horixe da opa dioguna", diote bi lagunek.


A.T.

## "Botatakoekin harro geratu nintzen"

**OIHANA ARANA**
BERTSOLARIA

Bigarrenez da Gipuzkoako txapelduna, eta pozik da, bereziki, kantatutakoekin harro dagoelako.

**Lehenengoak besteko poztasuna ematen du bigarrenak?**
Oso final ezberdinak izan dira, formatuari eta jendeari dagokionez. laz kide berriena eta gazteena nintzen, eta sorpresa izan zen, guztientzako, irabaztea. Oraingoan, gehiago gozatu dut, baina Aner ikusten nuen faborito.

**Zein izan da, zure ustez, zure indargunea?**
Akatsik ez egitea, bereziki, baina onena, bertso aldi guztietan gustura eta harro joaten nintzela eserlekura.

**Nola prestatuko zara Sarako txapelketarako?**
Hainbat saio ditut aurretik, eta entrenatzeko erabiliko ditut; hala ere, ez dago sekreturik, egin eta egin!

# Gaur, barikua, ibarreko musika eskolen topaketa

Seminarixoan izango da emanaldia, 19:00etan; leihatila, berriz, 18:00etan irekiko dute

**A. A.** BERGARA
Bergarako Musika Eskolak antolatu du aurtengoa; eta herrikoez gainera, Oñatiko, Eskoriatzako, Arrasateko, Aretxabaletako eta Soraluzeko ikasleak izango dira.

150 lagun batuko dira. "Bergarak eta Arrasatek gazte banda bana ekarriko dute; Soraluzetik haurren abesbatza dator; Eskoriatzako eta Aretxabaletakoek, berriz, konboak ekarriko dituzte; eta oñatiarrek, folk talde bat", kontatu du Bergarako Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek, eta zera gaineratu: "Helburua beste eskolek egiten dutena ikustea eta partekatzea da. Oso interesgarria da eskola bakoitzak erakusten duena".

Herrikoek hasiko dute emanaldia, Xabier Leteren *Kontrapas* eta *West Side Story* filmaren *Amerika kantua* eskainita. Hego Amerikako musika izango da segidan, Arrasatekoen eskutik. Anabel Henao piano-joleak lagunduta, Soraluzeko abesbatzak hartuko du lekukoa. Sorotan Bele-ren bi kantu joko dituzte Aretxabaletakoek, eta The Clash-en eta Michael Jackson-en doinuak entzungo dira gero, Eskoriatzakoen eskutik. Bukatzeko, oñatiarrek, Etzakit eta Kepa Junkera aukeratu dituzte.

# Emakunde Saria jaso du Virginia Imazek lehendakariaren eskutik

Aktorea lehenetarikoa izan da pailazoen munduan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzen

**Eneko Azkarate** GASTEIZ
Pozik, harro, sudur gorrikoek eta kulturgileek, oro har, egiten duten lana nabarmenduz eta saria emandakoei eskertuz, jaso du oraingo martitzenean Virginia Imazek Emakunde Saria; ondoen egiten dakiena egiten: antzezten. Eskultura eta 14.400 euroko saria jaso ditu.

Lehendakaritzan egin da ekitaldia eta Iñigo Urkullu lehendakariaren eskutik jaso du saria, Izaskun Landaida Emakundeko zuzendaria bertan zela. Virginia Imaz "sortze eta komunikazio eredu bat da. Bere umorearen eskutik, berdintasuna sozializatu du. Hori dela eta, esan genezake bidaia-laguna izan dugula; izan ere, bere ibilbidea Euskadiko berdintasun politiken eskutik joan da", adierazi du Lehendakariak. Landaidak, berriz, Virginia Imaz "umorearen bitartez emakume eta gizonen arteko berdintasuna ideien mundutik emozioen mundura eramateko gauza" izan dela.


Virginia Imaz, Izaskun Landaida eta Iñigo Urkullu alboan dituela. IREKIA

# Poemekin harilkatutako musika ikuskizuna

Asier Serrano idazleak Miren Fernandez eta Antxon Sarasua musikariekin batera egiten duen ikuskizun literario-musikala da 'Linbotarren itzalak ate ostean'. Kulturateko areto nagusian eskainiko dute, maiatzaren 3an, eguena, 19:00etan

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Urtarrilean, Arrasateko Bibliotekako irakurle taldearekin bildu zen Asier Serrano, *Linbotarrak* poema liburuari buruzko solasaldia egiteko; idatzitakoak irakurleekin partekatzea gustuko duela dio. Liburu bera eta haren aurretik idatzi zuen *Ate osteko itzalak* izenekoa ere eskuetan hartuta izango da datorren eguenean; oraingoan, baina, bi musikari alboan dituela. "Hiruko baten lehenengo zatia da *Ate osteko itzala*, eta nitasuna planteatzen dut; *Linbotarrak* da bigarrena, eta gu, hau da, bizi dugun gizartearen ispilua da. Poesiaren betaurrekoetatik gaur egungo gizartea erretratatzeko modua da".



Serrano, bibliotekako solasaldietan. J. B.

**Bidaia baterako proposamena**

Hirurak aspaldiko lagunak direla dio Serranok: "Bakarkako nire ibilbidean eskuineko eskua izan da beti Sarasua, eta Fernandezen bakarkako diskorako hitz batzuk idatzi nizkion. Ikuskizunean bidaia bat planteatzen dugu, eta bidaia horretan eurek beste ahots bat eskaintzen diote; musikari moduan arituko dira, bereziki, baina poema zatitxoak errezitatzeko erronka bota nien".

Istorio bat kontatzen dutela dio idazleak: "Ikuslea gidatzeko, irudi batzuk izango dira atzean, baina eratu duguna istorio bat da, eta istorio hori nork bere maila pertsonaletik ikusi behar du. Aipatutako bi liburu horietatik poema batzuk aukeratu ditugu, eta, horiek guztiak lotzeko, nire musika ibilbidean egindako hamabi abesti *errreskatatu* ditugu –Lorelei taldearekin, bakarka zein beste musikari batzuekin–. Kantu horiek izango dira gure bidaiaren geltokiak".

Poesia errezitaldi bat baino gehiago kontzertu bat dela dio Serranok: "Beti esan dut bi maitale izan ditudala: literatura eta musika; azkenaldian, literaturan murgilduta nabil, baina banuen musikari heltzeko gogoa, eta esango nuke musika-maitalearekin adiskidetzeko gune bat izan dela honako ikuskizun hau; gustura ari naiz gitarra eskuan berriz ere kantuan".

## Screamers & Sinners taldearen bi kantu, disko partekatuan

Aretxabaletako taldeak 'Buzzed Out!!' izeneko lana argitaratu du Londresko Moonshine Stalkers taldearekin




Lan berriaren azala. NANO BARBERO

**A. A.** ARETXABALETA

*The revenge of... El Sacamantecas* lana kaleratu zuen Aretxabaletako taldeak iaz, eta Arrasateko gaztetxean egin zuten aurkezpen kontzertura gonbidatu zuten Londresko Moonshine Stalkers taldea. "Jaialdietan elkarrekin jo izan dugu. Talde gaztea da, baina eskarmentu handiko hirukotea", dio Screamers & Sinners taldeko Jago Domingok.

**Lau kantu, biniloan**

Nor bere ezaugarriekin, biak ala biak psychobilly estiloan daude kokatuta. Arrasateko kontzertuan sortu zen elkarrekin argitaratzeko ideia. "Disko laburra da, eta binilo formatuan bakarrik dago; Nano Barberorena da diseinua. Bina kantu grabatu du talde bakoitzak: kantu propio bat eta bestearen bertsio bat. Euren kantua euskaraz abesten dugu guk; gainontzeko hirurak ingelesez dira".

Kantu berriak elkarrekin zuzenean aurkeztea da bi taldeen nahia, baina agendak uztartzea ez dela erraza dio Jago Domingo gitarra-joleak: "Oraingoz, ez daukagu datarik finkatuta, baina horretan ari gara. Asteburuan Leonen joko dugu guk, eta hara eramango ditugu gure diskoak. Gainera, gure Facebookera idatzita ere eros daitezke, zortzi eurotan. Ale gutxi atera ditugu –talde bakoitzarentzako 120 kopia–, eta oso ondo ari gara saltzen".

## Goiena Klubaren txokoa

### Hauek dira apirileko irabazleak!

**CHROMECAST BAT**
Nalara Arrizabalaga Elorza (Aramaio)

**HARREMAN DENDAKO OTARREA**
Lidia Agirrezabal Franco (Bergara)

**ARRIKRUTZ KOBETARAKO SARRERAK**
Iker Altuna Arenaza (Aretxabaleta)
Edurne Barrutia Urreta (Aretxabaleta)
Olatz Ecenarro Manuel (Bergara)

**EIBAR PARTIDUETARAKO SARRERAK**
Jose Luis Ugalde Orobengoa (Arrasate)
Xabier Zabala Urriategi (Bergara)

**"JON BRAUN" ANTZERKIRAKO SARRERAK**
Ibane Letona Urteaga (Arrasate)
Rakel Nanclares Ruiz (Arrasate)
Iñaki Aginagalde Garitano (Bergara)

**"SHEREZADE Y LAS CAPAS DE CEBOLLA" IKUSKIZUNERAKO SARRERAK**
Heriberto Zubia Uribeetxebarria (Arrasate)
Garazi Larrea Zumelaga (Antzuola)
Jose Luis Iñarra Mazmela (Bergara)
Amaia Irizar Sainz (Bergara)

**ZELAI ZABAL JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA**
Iban Orueta Markuleta (Oñati)

**ETXE AUNDI JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA**
Aitor Iturriaga Bakarte (Oñati)

**BASKONIA - FENERBAHCE PARTIDURAKO SARRERAK**
Pello Caballero Pozo
Ainhoa Moral Navarro
David Garcia Marin
Julen Arexolaiba Biteri

**SARIAK JASOTZEKO:**
**Arrikrutzeko sarrerak.** Goiena Klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa. OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Astelehenetik igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko). Harreman dendako otarrea **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Lehen saria jasotzeko,** zatoz GOIENAren egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

### Irabazi bi lagunendako otordua

HILARION JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 · kluba@goiena.eus

*KLUBA Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

**Bergarako Udalari esker**
"Voces de cine" ikuskizunerako sarrerak ditugu
**Bergara | Seminarixoa | Maiatzaren 5ean | 19:00etan**

**PARTE HARTZEKO: MAIATZAREN 3A**
**E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Musika" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



Urteko kuota: **56€**
Deitu: **943 25 05 05**
kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN


IMANOL SORIANO

### BERGARAKO ETA ANTZUOLAKO UMEAK KANTUAN

***'Kantari'*** *Zapatua eta domeka, 09:30 eta 16:30*


GOIENA

### APIRILEKO OSOKO BILKURA BERGARAN

***'Osoko bilkura'*** *Zapatua 19:00 eta domeka 22:00*

**EGUBAKOITZA, 27**

- **10:00** Hemen Debagoiena
- **11:00** Onein
- **11:30** Hemen Debagoiena
- **12:30** Hurretik: Aitor Montes
- **13:00** Kantari 20
- **13:30** Hemen Debagoiena
- **14:30** Albisteak
- **14:45** Galdegazte: Txus Jaio
- **15:15** Hemen Debagoiena
- **16:15** Albisteak
- **16:30** Onein
- **17:00** Albisteak
- **17:15** Amaia DJ
- **17:45** Albisteak
- **18:00** Hemen Debagoiena
- **19:00** Ikuskizuna: Miren Amuriza eta Asisko
- **20:00** Hemen Debagoiena
- **21:00** Elikatu
- **21:30** Amaia DJ
- **22:00** Hemen Debagoiena
- **23:00** Galdegazte: Txus Jaio
- **23:30** Amaia DJ

**ZAPATUA, 28**

- **09:00** 1 2 3 Hemen da miru
- **09:30** Kantari 22
- **10:00** Kantari 21
- **10:30** 1 2 3 Hemen da miru
- **11:00** Hemen Debagoiena
- **12:00** Harira: Elgeta
- **13:00** Adi! Iskanbila: Garazi Esnaola
- **13:30** Hurretik: Aitor Montes
- **14:00** Galdegazte: Txus Jaio
- **14:30** Ikuskizuna: Miren Amuriza eta Asisko
- **15:30** Hemen Debagoiena
- **16:30** Kantari 22
- **17:00** Kantari 21
- **17:30** Amaia DJ
- **18:00** Galdegazte: Txus Jaio
- **18:30** Elikatu
- **19:00** Osoko bilkura: Bergara
- **20:00** Kantari 21
- **20:30** Amaia DJ
- **21:00** Harira: Elgeta
- **22:00** Hemen Debagoiena
- **23:00** Galdegazte: Txus Jaio
- **23:30** Hileko errepasoa: apirila

**DOMEKA, 29**

- **09:00** 1 2 3 Hemen da miru
- **09:30** Kantari 21
- **10:00** Kantari 22
- **10:30** 1 2 3 Hemen da miru
- **11:00** Galdegazte: Txus Jaio
- **11:30** Amaia DJ
- **12:00** Astearen errepasoa
- **13:00** Hemen Debagoiena
- **14:00** Elikatu
- **14:30** Hileko errepasoa: apirila
- **15:00** Adi! Iskanbila: Garazi Esnaola
- **15:30** Galdegazte: Txus Jaio
- **16:00** Amaia DJ
- **16:30** Kantari 21
- **17:00** Kantari 22
- **17:30** Hemen Debagoiena
- **18:30** Ikuskizuna: Miren Amuriza eta Asisko
- **19:30** Harira: Elgeta
- **20:30** Ikuskizuna: Miren Amuriza eta Asisko
- **21:00** Hurretik: Aitor Montes
- **21:30** Hileko errepasoa: apirila
- **22:00** Osoko bilkura: Bergara
- **23:00** Hemen Debagoiena

**EGUBAKOITZA, 27**

### ELIKADURA OSASUNTSUA

***'Elikatu'***

*21:00*

**ASTELEHENA, 30**

### ASTE BUKAERAKO KIROL ERREPASOA

***'Harmailatik'***

*21:30/23:30*

GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: ***goiena.eus/ telebista*** Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

**MARTITZENA, 1**


GOIENA

### OÑATIKO OSOKO BILKURA

***'Osoko bilkura'***

*19:00/22:00*

**EGUAZTENA, 2**

### KAZETARI GAZTEAK AINARA ORTEGAREKIN

***'Galdegazte'***

*21:30*

---

**OROIGARRIA**

## Luismi Cano Vicente



2018ko apirilaren 23an hil zen, 41 urte zituela.

*Luismi, beti izango zaitugu gogoan.*
*Saioa, Jurgi eta Aiala, zuekin gaude.*

Jurgiren eta Aialaren ikastolako lagunen partetik.
Bergaran, 2018ko apirilaren 27an.

---

**OROIGARRIA**

## Luismi Cano Vicente



2018ko apirilaren 23an hil zen, 41 urte zituela.

*Beti alai eta paziente,*
*horiek zure birtute.*
*Edonon egonda ere,*
*beti izango zaitugu presente.*
*Lagun maite.*

Argiñe eta Alex, Naroa eta Eneko, Isortxe eta Gorka, Leire, Olatz eta Julen, Amaia eta Joseba, Ione eta Pere.

Bergaran, 2018ko apirilaren 27an.

---

**ESKER ONA**

## Luismi Cano Vicente



2018ko apirilaren 23an hil zen, 41 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko apirilaren 27an.

---

**OROIGARRIA**

## Luismi Cano Vicente



2018ko apirilaren 23an hil zen, 41 urte zituela.

*Goizegi joan zara, hutsune handia utzita.*
*Baina zure indarra eta bizinahia gurekin dira.*
*Zauden lekuan zaudela, betirako gure artean.*
*Ez zaitugu ahaztuko, Luismi maitea.*

*Zure emaztea: Saioa. Seme-alabak: Jurgi eta Aiala.*
*Ezkon-gurasoak: Jesus eta Rosa. Eta zure koinata: Ariane.*

Bergaran, 2018ko apirilaren 27an.

---

**OROIGARRIA**

## Modesto Aranburu Latorre



2017ko apirilaren 27an hil zen, 62 urte zituela.

*Zure kantu isilaren doinua*
*betiko gure bihotzetan.*

Etxekoak.
Bergaran, 2018ko apirilaren 27an.

---

**OROIGARRIA**

## Angel Bedia Madinabeitia



2018ko apirilaren 22an hil zen, 65 urte zituela.

*Lagun aparta zarelako, pertsona ikaragarria zarelako, 'aita' onena zarelako, horregatik eta mila gauzagatik, bihotz-bihotzez milesker, 'aita'!*

*Zure adiskidetasuna eta alaitasuna ez ditugu inoiz ahaztuko! Beti arte!*

Ane eta Elene.
Alaitz, Antonio, Iñigo, Pakita, Beñat eta Maitane.

Aretxabaletan, 2018ko apirilaren 27an.

---

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| ARRASATE *EGUNEZ* | |
|---|---|
| Egubakoitza, 27 | ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30 |
| Zapatua, 28 | ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15 |
| Domeka, 29 | M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99 |
| Astelehena, 30 | FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26 |
| Martitzena, 1 | IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39 |
| Eguaztena, 2 | SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74 |
| Eguena, 3 | ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 |

| BERGARA *EGUNEZ* | |
|---|---|
| Egubakoitza, 27 | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| Zapatua, 28 | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| Domeka, 29 | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| Astelehena, 30 | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |
| Martitzena, 1 | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| Eguaztena, 2 | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| Eguena, 3 | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |

| OÑATI *EGUNEZ BAKARRIK* | |
|---|---|
| Egubakoitza, 27 | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| Zapatua, 28 | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| Domeka, 29 | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| Astelehena, 30 | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| Martitzena, 1 | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 2 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| Eguena, 3 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |

**ARRASATE *GAUEZ EGUNERO***
***(22:00etatik 09:00etara)***
**2018ko abenduaren 31ra arte:**
IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

**BERGARA *GAUEZ EGUNERO***
***(22:00etatik 09:00etara)***
**2018 osoan:**
MOZOS: Iparragirre 2
943 76 12 15

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.


**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo ***eskelak@goiena.eus***

▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

OROIGARRIA

## Luismi Cano Vicente



2018ko apirilaren 23an hil zen, 41 urte zituela.

*Zenbat solasaldi,*
*zenbat bidai,*
*zenbat bizipen,*
*beti gogoan izango zaitugu.*

Leti, Eli, Izaskun eta Blanca.
Bergaran, 2018ko apirilaren 27an.

OROIGARRIA

## Luismi Cano Vicente



2018ko apirilaren 23an hil zen, 41 urte zituela.

*Azken lasterketa hau ere leial egin duzu.*
*Ez zaitugu inoiz ahaztuko, Luismi.*
*Beti gurekin egongo zara.*

Zure lankideak.
Gasteizen, 2018ko apirilaren 27an.

OROIGARRIA

## Luismi Cano Vicente



-Goian bego-

2018ko apirilaren 23an hil zen, 41 urte zituela.

*Kirola, musika ta familia zituen maite.*
*Erreferentzia bat, irakasle, lagun eta batipat aita bezala.*
*Agurrik ez, Luismi, gero arte baizik.*

Kuadrillakoak.
Oñatin, 2018ko apirilaren 27an.

OROIGARRIA

## Fernando Etxebarria Egurrola



'Amerikano'

2018ko apirilaren 20an hil zen, 62 urte zituela.

*Agur eta ohore, Fernando geurea.*
*Lankide alaia eta guztiontzat maitea.*
*Handia izango da gure artean utziko duzun hutsunea.*
*Beti izango ditugu gogoan elkarrekin pasatako momentuak,*
*lanean zein kalean.*
*Eskerrik asko bihotzez.*

Zure Ederlango lankideak.
Eskoriatzan, 2018ko apirilaren 27an.

OROIGARRIA

## Fernando Etxebarria Egurrola



2018ko apirilaren 20an hil zen, 62 urte zituela.

*Beti egongo zara gure oroimen eta bihotzetan.*
*Gero arte, Fernando.*

Lagunak.
Eskoriatzan, 2018ko apirilaren 27an.

OROIGARRIA

## Fernando Etxebarria Egurrola



2018ko apirilaren 20an hil zen, 62 urte zituela.

*Une benetan gogoangarriak bizi izan ditugu zurekin, Fernando.*
*Beti izango zaitugu gogoan.*

Eskoriatzako gurasoen kuadrilla.
Eskoriatzan, 2018ko apirilaren 27an.

ESKER ONA

## Angel Bedia Madinabeitia



2018ko apirilaren 22an hil zen, 65 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

*A zelako putadie, Xagutxo!*
*Nola alaitu diguzun bizitza!*

Betiko, zure anai-arrebak.
Aretxabaletan, 2018ko apirilaren 27an.

ESKER ONA

## Maria Lourdes Irasuegi Torregarai



2018ko apirilaren 11n hil zen, 72 urte zituela.

Senarra: Iñaki Oria. Seme-alabak: Miren Argi eta Joseba. Bilobak: Eneko eta Laida. Anai-arrebak: Ignacia eta Jose Mari (†), M. Luz Oria eta Saturnino Lopez (†), Aurora Izcue eta Jabier Vidador (†). Ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako senideak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2018ko apirilaren 27an.

ESKER ONA

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK ETXERA

## Joxe Ramon Altzerreka Bastarrarena



2018ko apirilaren 24an hil zen, 71 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2018ko apirilaren 27an.

URTEURRENA

## Maria Luisa Urreta Garcia



2017ko apirilaren 29an hil zen, 91 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 29an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2018ko apirilaren 27an.

URTEURRENA

## Felisa Murua Aguirre



2017ko apirilaren 20an hil zen.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, 2018ko apirilaren 28an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren parroki elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2018ko apirilaren 27an.

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

*Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA*

# ZORION AGURRAK



ARRASATE
**Haizea eta Ibai Murgia**
Ibaik maiatzaren 1ean, 12 urte eta Haizeak 6an, 9 urte. Zorionak familia osoaren partetik!



OÑATI
**Jon Arabaolaza**
Maiatzaren 1ean, 30 urte. Zorionak, Jon, etxeko danon partetik. Oso ondo pasatu eguna.



OÑATI
**Unax Gende Sanchez**
Apirilaren 30ean, 4 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean! Muxu handi bat aitatxoren eta amatxoren partetik! Asko maite zaitugu.



ARETXABALETA
**Zaraitzu Lazkano Gorostiza**
Apirilaren 28an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zeure urtebetetze egunien. Muxu mordo bat, etxeko danon partetik!



ARETXABALETA
**Izaro Aperribay Elejalde**
Apirilaren 28an, 7 urte. Zorionak, politte! Patxo handi bat familia danaren partetik!



BERGARA
**Aitor Dacosta**
Apirilaren 28an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat etxekoen partetik. Bereziki June, Miren eta Andoni.



BERGARA
**Beñat Legazpia Molina**
Apirilaren 27an, 7 urte. Zorionak eta ondo pasatu, Ekainen partetik!



ARAMAIO
**Libe Reguero Osinaga**
Apirilaren 27an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Azkenean heldu da zure eguna. Besarkada eta muxu handi bat etxekoen eta, bereziki, Nahiaren partetik.



ANTZUOLA
**Iban Mendia Alonso**
Apirilaren 27an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu potolo-potolo bat etxeko guztien partetik. Berezienak, Aitanarenak!



OÑATI
**Laia Zurutuza Garcia de Albeniz**
Apirilaren 27an, 3 urte. Zorionak, Laia! Ondo pasatu zure eguna eta patxo potolo bat, etxeko danon partetik!



OÑATI
**Ihabar Agirrezabal Maiztegi**
Apirilaren 27an, urtebete. Zorionak, Ihabartxo! Dagoeneko urtebete! Ondo pasatu eta patxo potolo bat, etxekoen partetik. Asko maite zaitugu!



BERGARA
**Amalur Egidazu Arrillaga**
Apirilaren 26an, 8 urte. Zorionak, Amalurtxi! Jada zortzi urte! Patxo handi bat etxeko danon eta, bereziki, Hodeiren partetik.



ARRASATE
**Marta Fuentes Rodriguez**
Apirilaren 26an, 46 urte. Zorionak, Martuki! Oso ondo pasatu eguna eta patxo handi bat Landerren, Unairen eta Yuneren partetik!



BERGARA
**Irati Urigoitia**
Apirilaren 26an, 10 urte. Zorionak, Irati! Zure aita Lander, ama Ana, Endika, Luzia eta Eder, aitteitte Karlos, amama Enkarna eta beste senide guztiak.



OTXANDIO
**Aimar Arejolaleiba Carrasco**
Apirilaren 26an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat, Aretxabaletatik.



ANTZUOLA
**Eneritz Olano Altzerreka**
Apirilaren 25ean, 9 urte. Zorionak, potxola! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo bat, etxeko danon partetik polit hori!



ARETXABALETA
**Aimar Akizu eta Begoña Uribetxeberria**
Aimarrek 6 urte, apirilaren 25ean eta amama Begoñak 70 urte, apirilaren 27an. Zorionak bioi, bihotz-bihotzez, familia osoaren partetik. Segi zareten bezalakoak izaten.



OÑATI
**Maddi Aurrekoetxea Elorza**
Apirilaren 24an, 5 urte. Etxeko udaberria, benetan maitagarria. Bihotzez, zorionak, Maddi maittia.



ARRASATE
**Unai Torres Valdes**
Apirilaren 24an, 5 urte. Zorionak, maitia, gurasoen eta anaiaren, osaba Mikelen, izeba Vaneren eta lehengusu Hugoren partetik. Egun ederra pasatu. Asko maite zaitugu!



BERGARA
**Ane Arregi Gantxegi**
Apirilaren 24an, 6 urte. Zorionak, maitia! Sei urtetxo dagoeneko. Jarraitu horren alai izaten eta ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



OÑATI
**Eneritz Gereñu Arregi**
Apirilaren 24an, 10 urte. Zorionak, Eneritz! Muxu potolo bat, familixa danaren partetik eta ondo pasatu zure eguna!



ARETXABALETA
**Peru Ansa Okarantza**
Apirilaren 24an, 5 urte. Zorionak eta bost laztan handi, Peru!



OÑATI
**Ekain Leibar Zumalde**
Apirilaren 23an, 5 urte. Zorionak, Ekain! Jada bost urte! Patxo potolo bat, etxeko danon partetik. Ondo pasatu, txapeldun!



ARETXABALETA
**Aimar Azpitarte Zubizarreta**
Apirilaren 23an. Aimar, 10 urte gure bizitza irribarrez alaitzen eta laguntzen. Segi horrela gure bizipoza baitzara. Zorionak, txapeldun! Asko maitte zaittugu!



ARRASATE
**Unax Sanchez Oncala**
Apirilaren 23an, 16 urte. Zorionak, Unax! 16 urte! Oso ondo ospatu eta asko irakurri, Sant Jordi eguna ere bada-eta!



BERGARA
**Aiora Unamuno Lete**
Apirilaren 23an, 5 urte. Zorionak, *pitxirrina*! Muxu potolo bat, etxeko danon partetik! Asko-asko maite zaittugu.



ARRASATE
**Unax Andres Lopez**
Apirilaren 23an, 3 urte. Zorionak, txikitxu! Gure txapeldunak hiru urte betetzen ditu. Asko maite zaitugu! Besarkada eta muxu ;handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
**Itoitz, Ekhi eta Ihintza Louvelli Urrutia**
Ihintzak 5 urte, apirilaren 11n eta Itoitzek eta Ekhik, 10 urte, 23an. 10+10+5=25. Zein zorteko garen urte guzti hauetan bidaide izanagatik! Muxu pototo bana.



OÑATI
**Uxuri Olalde**
Apirilaren 21ean, 6 urte. Zorionak, polita, familixa guztixaren partetik!



BERGARA
**Iban Da Silva**
Apirilaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo! Egun politxa euki. Asko maite zaittugu: Kenar eta Alaine.



ARRASATE
**Laia Perez de Villarreal Perez**
Apirilaren 21ean, 6 urte. Zorionak, maittia! Sei urte! Patxo handi bat aitatxoren, amatxoren eta, bereziki, Oihanen partetik!



OÑATI
**Iraia Arregi Orueta**
Apirilaren 21ean, 10 urte. Zorionak, *guapa*! 10 urte jada? Ondo pasatu! Patxuak danon partetik!



ANTZUOLA
**Unai Eraña Belategi**
Apirilaren 20an, 10 urte. Zorionak, Unai! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo potolo eta handi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
**Danel Arizmendiarrieta Zabaleta**
Apirilaren 20an, 2 urte. Zorionak, Danel! Maite zaitugun denon partetik.



BERGARA
**Hegoi Gauna Iglesias**
Apirilaren 20an, 3 urte. Zorionak, Hegoi!



OÑATI
**Olaia Urkia Goenaga**
Apirilaren 20an, 3 urte. Zorionak, Olaia! Hiru urtetxo! Ondo pasatu zure egunean familiako guztiekin. Muxu eta besarkada potolo bat.



ARRASATE
**Hugo Carmona Iglesias**
Apirilaren 19an, 6 urte. Zorionak, politt hori! Ze handia zaren! Gaur primeran ospatuko dugu lagunen artean! Asko maite zaitugu, *pitxontxi*! Pa potoloa!



BERGARA
**Intza Goiti Zubia**
Maiatzaren 3an, 8 urte. Zorionak, Intza, asko maite zaitugu! Egoitz, amatxo eta aitatxo.

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 27

**ESKORIATZA Perfume tailerra**
Loreekin, belarrekin eta usaindun osagaiekin lurrin bat sortuko dute umeek.
*Ludotekan, 17:00etan.*

**ARRASATE San Andresko jaiak**
17:35ean txokolate-jana, 18:30ean buruhandiak, 19:30ean gazte-chef lehiaketa eta 22:00etan kriket-dardo txapelketa.
*San Andresen.*

**ESKORIATZA Bigarren eskuko liburu azoka**
Helduen liburuak euro baten truke, eta haurrenak, 50 zentimotan.
*Zaldibarren, 18:00etan.*

**BERGARA Ipuin kontaketa, umeendako**
Ixabel Agirresaroberen emanaldia.
*Liburutegian, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Beenan eta begigorri munstroa' musikala**
Beheko Errota musika eskolaren emanaldia.
*Zaldibarren, 18:30ean.*

**BERGARA Debagoienako musika eskolen emanaldia**
Emanaldi bateratua egingo dute. Irekia, herritar guztiendako.
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**OÑATI Olabarrietako jaiak**
20:00etan, etxafuego jaurtiketa; eta 22:00etan, kontzertua, Claytons, Gatazka eta Broken Legary taldeekin. Ostean, erromeria Gaitzerdi taldearekin.
*Olabarrietan.*

**OÑATI Elkartasun afaria**
Parrokiako Misio Taldearen eskutik. Batutako dirua Maliko proiektura bideratuko da. Hango proiektuari buruz berba egingo dute.
*Bidaurretan, 20:00etan.*

**BERGARA 'Manipulados' antzezlana**
Antzerki soziala eta umore beltza bateratzen dituen lana. Lanaren %20 inprobisazioa da. Sarrerak, lau euro.
*Gaztetxean, 22:30ean.*

## ZAPATUA 28

**LEINTZ GATZAGA Gatzagatik Oionera**
Gatz Museotik, ilundu aurretik, erreleboka, Oionera heltzeko helburuarekin antolatutako mendi ibilaldia izango da.
*Gatz museoan, 06:00etan.*

**OÑATI Olabarrietako jaiak**
10:00etan eta 16:00etan pilota txapelketa, 17:00etan haurrendako jolasak eta 19:00etan txorimaloak.
*Olabarrietan.*

**OÑATI Arkitektura tailerra**
*Arantzan-zu?* delako tailerra 6-11 urte artekoendako.
*Gandiaga Topagunean, 10:30ean.*

**ELGETA Erretiratuen irteera: izen-ematea**
Maiatzaren 9an Ordiziako azokara eta Donostiara joango dira, egun osorako. Gaur eman daiteke izena.
*Ozkarbi elkartean, 11:00etan.*

**OÑATI Batukada**
Emakumeendako, jabetza eskolaren eskutik.
*Eltzian, 11:00etan.*

**ARRASATE San Andresko jaiak**
11:30ean puzgarriak, 15:00etan auzo-bazkaria, 17:00etan poteoa eta 19:00etan dantzaldia.
*San Andresen.*

**OÑATI 'Herrixa kantuan'**
Txantxiku Ikastolaren eta Jose de Azpiazu musika eskolaren eskutik.
*Foruen plazan, 12:30ean.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatuak**
Sancti Spiritus Unibertsitatea eta San Migel parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan eta 17:00etan. Izena, aurrez, Turismo Bulegoan.
*Turismo Bulegoan.*

**ARRASATE Ekintzak San Andresen**
Gaztetxoendako.
*Gazte txokoan, 16:30ean hasita.*

**BERGARA Antzerki tailerra**
Doan.
*Gaztetxean, 17:00etan.*

**ARRASATE Erronka jolasak**
Gaztetxoendako.
*Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Bidaien kronikak'**
Indiara egindako bidaia kontatuko die Adrian Ugaldek gaztetxoei.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Sukaldaritza tailerra**
Gaztetxoendako.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARRASATE Arrasate Musikaleko orkestra**
XIV. Musikaldiko kontzertua. Iker Olazabalek zuzenduta, sei pieza eskainiko ditu orkestrak. Doan.
*San Frantzisko elizan, 20:00etan.*

**ARRASATE Aitor Otxoa & Mad Mule eta Nuevo Catecismo Catolico taldeak**
Sarrerak, bost euro.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

**BERGARA 'Nudo' antzezlana**
Bakarrizketa saioa.
*Gaztetxean, 22:30ean.*

## DOMEKA 29

**ELGETA Bisita bidatua**
Intxortako lubakietara. Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus.*
*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.*

**OÑATI Basoko arku tiroketa jardunaldia**
Gipuzkoako Open Ligarako puntuagarria.
*Zozopasen, 10:00etan.*

**OÑATI Olabarrietako jaiak**
10:00etan meza; 12:00etan herri kirolak; 13:30ean herriko bertsolariak; 14:30ean auzo bazkaria Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi bertsolariekin; 19:00etan erromeria.
*Olabarrietan.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatuak**
Sancti Spiritus Unibertsitatea eta San Migel parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan eta 17:00etan. Izena, aurrez, Turismo Bulegoan: 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan.*

**BERGARA Domeka azoka**
Elkartrukea, berrerabilera eta artisautza sustatzeko merkatua.
*Seminarioko karpan, 11:00etan.*

**BERGARA Txistulari banda**
Kalejira egingo dute.
*San Martin plazan, 11:00etan.*

**ARRASATE San Andresko jaiak**
11:30ean puzgarriak, 16:00etan txintxon txapelketa, 18:00etan poneyak eta bigantxak eta 23:00etan kontzertua, Governors eta Cruce De Caminos taldeekin.
*San Andresen.*

**ESKORIATZA Beldurrezko pelikula**
Gaztetxoendako.
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

**ARETXABALETA Dramazko pelikula**
Gaztetxoendako.
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

**ARRASATE Sukaldaritza tailerra**
Gaztetxoendako.
*Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

**OÑATI The Grace Of Dionysus taldea**
Blues-rock doinuekin girotuko du taberna Zumaiako taldeak.
*Pako tabernan, 19:30ean.*



MARKELIÑE

**BERGARA Markeliñe taldearen 'Euria' antzezlana**
Zerbait maite eta galtzen denean gertatzen denari eta sentitzen duenari buruz egiten du berba. Era berean, hori guztiori gainditzeko norberak duen gaitasuna lantzen du. Umeendako antzezlana. Sarrerak, lau euro.
*Bihar, zapatua, Seminarixoan, 18:00etan.*

## ASTELEHENA 30

**OÑATI Pentsiodunen eta erretiratuen elkarretaratzea**
*%0,25eko igoerarik ez! 1.080 euroko pentsio minimoari bai!* lelopean elkartuko dira.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatuak**
Sancti Spiritus Unibertsitatea eta San Migel parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan eta 17:00etan. Izena, aurrez, Turismo Bulegoan: 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan.*

**ARRASATE San Andresko jaiak**
12:00etan globoflexia, aurpegia margotzeko tailerra eta jokoak; 16:00etan tute txapelketa; 17:00etan Potx eta Lotx pailazoak; eta 23:00etan kontzertua Sonakay taldearekin eta Aitor Escobar bakarlariarekin.
*San Andresen.*

**OÑATI 'Lady bird' filma**
*Lady bird* filma. Gaur, ikuslearen eguna da.
*Zinema aretoa | Oñati 19:30ean*

## MARTITZENA 1

**OÑATI Olabarrietako jaiak**
11:00etan meza nagusia, eta ostean, pilota txapelketako finalak; 12:00etan luntxa; 13:00etan Oñatz taldekoen erakustaldia; 16:30ean

mus txapelketa; eta 19:30ean jaien bukaera.
*Olabarrietan.*

**BERGARA Txistulari banda**
Kalejira egingo dute.
*San Martin plazan, 11:00etan.*

**ARRASATE San Andresko jaiak**
12:00etan meza; 13:30ean helduen bazkaria Saran; 16:00etan mus txapelketa; 18:30ean buruhandiak; eta 20:00etan jaien bukaera.
*San Andresen.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatuak**
Sancti Spiritus Unibertsitatea eta San Migel parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan eta 17:00etan. Izena, aurrez, Turismo Bulegoan: 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan.*

## EGUAZTENA 2

**ARRASATE Odol ateratzea**
Arabako unitate mugikorra egongo da ateratzeak egiten.
*Anbulatorioan, 16:30ean.*

**BERGARA Eguazteneko azoka**
Sasoiko produktuak eta baserritarrenak erosteko aukera.
*Oxirondon, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Ipuinak eta heziketa emozionala' hitzaldia**
Haur literaturak umeen garapenean duen garrantziaz berba egingo du Juankar Alonso psikologoak, gazteleraz.
*Luis Ezeiza ikastetxean, 18:00etan.*

**ELGETA Umeendako dantza ikastaroa**
Gaurtik hasita, maiatzaren 27ra arte, eguaztenero, 18:45ean eta 19:30ean.
*Espaloian, 18:45ean.*

**ARRASATE Umeendako danborrada: izen-ematea**
Gaur hasiko dira izenak hartzen. Lekuak agortu arte. Pertsona bakoitzak, gehienez, hiru ume apuntatu ahal izango ditu.
*SUDC elkartearen egoitzan, 18:00etatik 19:30era.*

**BERGARA Pelikula**
*El indomable Will Hunting* pelikula ikusteko aukera. Doan .
*Zabalotegin, 20:00etan.*

## EGUENA 3

**ARRASATE Matrikulazio epea**
Bedoñabeko eta Musakolako haurreskoletan zabalik dute 2017an eta 2018an jaiotako umeendako matrikula, maiatzaren 11ra arte.
*Haurreskoletako bulegoetan.*

**ELGETA 'Hitzez Pitz' irakurketa solasaldia**
Goiatz Labandibarren *Fotogramak* liburuko hainbat pasarte hartuko dituzte abiapuntu. Talde irekia da.
*Liburutegian, 10:30ean.*

**ESKORIATZA 'Eskoriatza atzo eta gaur' erakusketa**
Antzinako eta gaur egungo argazkien bidez, Eskoriatzaren itxura nola aldatu den ikusteko bilduma.
*Ibarraundi museoan, 18:00etan.*

**OÑATI Giza katerako izen-ematea**
Eguenero eman daiteke izena Gure Esku Dago-ren lokalean.
*Kale Barrian, 18:30ean.*

**ARAMAIO Mahai-ingurua: Izarkom, Coop57 eta Goiener**
Hizlariak izango dira Iker Garaialde, Asier Garaialde, Amaia Oleaga eta Susana Cantero.
*Sastiñan, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Linbotarren itzalak ate ostean' emanaldia**
Asier Serranoren *Ate osteko itzalak* eta *Linbotarrak* poema liburuetan oinarritutako ikuskari literario-musikala da. Sarasuak, Fernandezek eta Serranok hamar abesti birmoldatu dituzte. Tarteetan, poemak errezitatuko dituzte.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**ARRASATE Kokein taldea**
Eibarko taldeak kontzertua egingo du Kooltur Ostegunetan. Euren azken diskoa 2014koa da, *Lurpekharia*. Guztira, sei grabatu dituzte. Sarrerak, bost euro.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

# ZINEMA

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIA

**El aviso**
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Peter Rabbit**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### BERGARA

#### ZABALOTEGI

**Tierra de Dios**
Domeka: 19:30.

**Coco**
Domeka: 17:00.

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**Lady bird**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Rabbit school**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

#### ARKUPE

**La tribu**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Peter Rabbit**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

#### COLISEO

**Campeones**
Zapatua: 17:99, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.

**Ready player one**
Domeka: 20:00.

**Un sol interior**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**El americano**
Domeka: 17:00.

#### ANTZOKIA

**El americano**
Zapatua: 17:00.

**Ready player one**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

#### BOULEVARD

**Vengadores**
Egunero: 18:00, 21:00, 00:00.
Egunero, eguena izan ezik: 16:00, 19:00, 22:00.
Egunero, martitzena izan ezik: 17:00, 20:00, 23:00.

**Vengadores 3D**
Egunero, eguena izan ezik: 21:30.
Eguena: 22:00.

**Noche de juegos**
Egunero, martitzena izan ezik: 15:50, 17:55, 20:00, 22:05, 00:10.
Martitzena: 15:50, 17:55, 20:00, 00:10

**La patrulla canina**
Zapatua, domeka eta martitzena: 16:30.

**Campeones**
Egunero: 15:45, 16:45, 18:15, 19:30, 20:45, 22:15, 23:45.

**Un lugar tranquilo**
Egunero, martitzena izan ezik: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Martitzena: 20:15.

**Proyecto rampage**
Egunero, zapatua eta eguena izan ezik: 15:50, 18:05, 20:20, 22:35.
Zapatua: 17:55.
Eguena: 15:45, 18:00.

**Peter Rabbit**
Egunbakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10.
Domeka: 17:10.

**Ready player**
Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 23:10.
Domekatik eguenera: n19:10, 22:10.

**La tribu**
Egunero:00:30.
Domekatik eguenera: 17:10.

**Las leyes de la termodinamica**
Egunero, zapatua izan ezik: 15:45, 17:55.
Zapatua: 15:45, 20:10.

**La casa torcida**
Egunero, zapatua izan ezik: 20:10, 22:25.
Zapatua: 22:25.

#### GORBEIA

**7 dias en Entebbe**
Egubakoitzetik astelehenera: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30.
Martitzena: 16:15, 18:20, 20:25.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.

**Alma mater**
Egubakoitzetik martitzenera: 18:20.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:15.

**Campeones**
Egubakoitzetik astelehenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka eta astelehena: 12:00.
Martitzena: 12:15, 17:30, 20:00.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.

**El Cairo confidencial**
Egubakoitzetik astelehenera: 19:45, 22:15.
Martitzena: 19:45.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 19:45.

**Juego de ladrones**
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

**Las leyes de la termodinamica**
Egubakoitzetik astelehenera: 16:20, 20:25, 22:30.
Martitzena: 16:20, 20:25.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:15.

**Los vengadores**
Egubakoitzetik astelehenera: 16:15, 17:15, 19:05, 20:10, 22:00.
Domeka eta astelehena: 11:45.
Martitzena: 11:45, 17:15.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 19:45.

**Noche de juegos**
Egubakoitzetik astelehenera: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30.
Martitzena: 16:15, 18:20, 20:25.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:15.

**Proyecto Rampage**
Egubakoitzetik astelehenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Martitzenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Ready player one**
Egubakoitzetik astelehenera: 17:00, 19:45, 22:30.
Martitzena: 17:00, 19:45.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 19:45.

**Un lugar tranquilo**
Egubakoitzetik astelehenera: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Martitzena: 16:30, 18:30, 20:30.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 19:45.

**Rabbit school**
Domekatik martitzenera: 12:00.

**Peter Rabbit**
Domekatik martitzenera: 12:15.

**Leo Da Vinci**
Domeka eta astelehena: 12:00.

**Leo Da Vinci (euskaraz)**
Domeka eta astelehena: 12:15.

**El principe encantador**
Domekatik martitzenera: 12:00.

**El americano**
Domekatik martitzenera: 12:15.

**Cavernicola**
Domekatik martitzenera: 12:15.

KRITIKA

**Isla de perros** ★★★★☆
**Zuz.:** Wes Anderson. **Herr.:** AEB (2018). **Animazioa.**

## Errebolta espiritua

**ANTONIO ZABALA**

Ez da Wes Anderson animazio mundura hurbiltzen den lehen aldia. Duela urte batzuk, *Fantástico Sr. Fox* estreinatu zuen, eta orain, *Isla de perros* gure aretoetara heldu da. *Stop motion* teknika erabiltzen du. Panpinak eskuz mugitzen ditu, eta gero, fotogramak bateratuaz, mugimendu sentsazioa lortzen du. Kasu honetan, 12 urteko mutiko bat eta irla baten abandonaturiko txakurrak dira istorioaren protagonistak. Horiek mutikoaren osabak sortutako sistema totalitarioarengatik baztertu eta irla batera bidaltzen dituzte. Haurrak eta txakurrek indarrak batuko dituzte osabaren agintekeria gainditzeko. Istorioa Japonian gertatzen da, eta gizarte eta kultura horren ezaugarriak islatzen dira Andersonek sortzen dituen irudi zoragarrietan. /

*Isla de perros*-en, abentura, adiskidetasuna, leialtasuna eta errebolta espiritua aldarrikatzen dira. Mundu honetan, agintari askok propaganda eta komunikabideak erabiltzen dituzte euren helburuak lortzeko eta jendea kontrolatzeko. Zuzendariak, berriz, baztertuen elkartasuna eta espiritu borrokalaria goraipatzen ditu.

Wes Andersonek ederki jokatzen du denboran jauziak ematen. *Flashback* asko erabiltzen ditu istorioa borobiltzeko eta pertsonaia bakoitzaren datuak eta ezaugarriak behar den momentuan ikusleari ezagutarazteko. Irudien erabilera bikaina, benetan liluragarria egiten du.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es



AZKEN BERBA



AGURNE BARRUSO

## Herriko jaiak

Herriko jaiak urteko egun garrantzitsuenetakoak dira gutariko askorentzako. Herrian gelditu eta etxerik ez bagenu bezala kalean orduak eta orduak disfrutatzeko ohitura dugunontzako, bereziki. Horietakoa izan naiz ni, eta, momentuz, horietakoa izaten jarraitzen dut. Egiari zor, eskertu nuen Bitorianatxoren igoera aurreratzeko erabakia; luze jotzen du egubakoitz iluntzetik martitzen gauerako tarteak.

Hala ere, nolako jaiak nahi ditugun hausnartu beharrean gaudela uste dut. Tendentzia, aurrekontua handitzea eta ikuskizun erraldoi / garestiegiak planteatzea ote den susmoa daukat eta nik –eta nik bezalatsu beste askok– herriko jaiak gauza txiki askok egiten dutela erakargarri uste dut. Lau egunetan 130.000 euro gastatu beharra dago Pazkoak onak izateko? Aurrekontu osoaren %16 ekitaldi bakarrak eramatea da bultzatu nahi dugun jai-eredua? Zaharkituta gelditu diren idi-probak programatu behar ditugu? Guztion jaia den honetan, Udalak akonfesionala behar lukeenean eta kultura eta erlijio aniztasuna areagotzen ari den honetan, meza programatu behar dugu?

Zergatik ez egin datorren urtera begira Bergarako jaien inguruko hausnarketa sakona eta partea hartzailea?

BUKATZEKO





Realak igoera lortu zuen egunean, 1967ko apirilaren 23an, Puertollanon (Ciudad Real). Argazki txikian, aurreko urteko bilkura.

REAL SOCIEDAD

# Bergaran elkartuko dira Puertollanokoak

Realaren historian letra larriz idatzia dago Puertollanon erdietsitako igoera: Lehen Mailan jokatzeko txartela lortu zuen, Jesus Aranbarri arrasatearraren gol bati esker. Oraindik ere, urtero elkartzen dira orduko jokalariak. Bihar, Bergaran dute bazkaria

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Badira akordutik nekez ezabatzen diren datak. Gertakariak. Eta horietako bat da 1967ko apirilaren 23koa: Realzale askok izango dute gogoan Puertollanon gertaturikoa (Ciudad Real): Lehen Mailara igo zen Reala, Jesus Aranbarri arrasatearrak sartutako gol bati esker –berdinketaren gola; 2-2 amaitu zen lehia–. Eta jokalariek ere ahaztu barik dute hori. Gustuko dute garai hartakoa gogora ekartzea, horren inguruan berba egitea, elkarrekin, talde izaera mantenduz.

Hori horrela, Puertollanokoek urtero finkatzen dute hitzordua. Eta aurten, Bergara aukeratu dute batzarleku. Hala, hamalau jokalari ohik Umore-Ona elkartean bazkalduko dute zapatuan. "Urteak dira Jose Agustin Arantzabal *Gaztelu*-k urteko bazkarira etorri ezin duela. Eta bere herrira [Bergara] etortzea erabaki dugu. Taldea izaten jarraitzen dugu. Bera ikusteko gogoz gaude", aitortu du Jon Sagastak, Realeko jokalari ohi arrasatearrak. *Gaztelu*-ren semea, Agustin Aranzabal, ere joango da bazkarira.

Besteak beste, halako bilkuretan, garaiko anekdotak dakartzate gogora Puertollanokoek. Adibiderik ere badu Sagastak: "Esaterako, gogoan dut norbaitek *Gora Euskadi* esan ziola Arzaki –irratia entzuten zegoen–. Eta *El Cadiz 0-0* izan zen haren erantzuna". Eta jokalari ohiek "gustura" gogoratzen dituzte halakoak. "Polita da garai hartakoez berba egitea; eta, era berean, taldekideak berriz ikustea", aitortu du. Talde izaera barruan dute oraindik.

**Duela bi hilabete**

Bazkari orok du aurre-lanketa bat. Eta duela bi hilabete hasi ziren horrekin. "*Gaztelu*-rekin elkartzeko bazkaria egin gura zutela esanez deitu zidaten. Orduan hasi ginen guztia prestatzen. *Gaztelu*-k berak ere gustura hartu du berria. Oso pozik dago", dio Fernando Juaristik, Realeko jokalari ohiak. Hark du janaria egiteko ardura, Juan Manuel Agirrezabal *Pepelu*-rekin batera.

Bestetik, jada zehaztuta dute menua: onddo nahaskia, foiegras txigorkia, kokotxak bakailaoarekin, solomilloa piper gorriekin eta pasteltxoak. Beraz, une gogoangarria izateko aitzakia barik daude Puertollanokoak. Realaren eta Athleticen arteko derbia dute, gainera.

GALDEGAZTE
GOIENA TELEBISTA
MAIATZAREN 2AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN
MAIATZAREN 4AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN
GONBIDATUA: OIHANA AZKORBEBEITIA (MENDI KORRIKALARIA)
JOKIN BEREZIARTUAK AURKEZTUTA ETA OÑATIKO TXANTXIKU IKASTOLAKO IKASLEAK ELKARRIZKETATZAILE LANETAN
BABESLEA: DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
LAGUNTZAILEAK: DEBAGOIENEKO IKASTETXEAK
goiena
Zu hemen zaude.

